



ISEI·IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

www.isei-ivei.net

Eskola uztea

DBHko bigarren zikloa



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Argitaraldia: 2007ko apirila

Ale-kopurua: ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Internet: www.euskadi.net

Egilea: Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI)
info@isei-ivei.net www.isei-ivei.net

Txostenaren egileak: Amaia Arregi Martínez
Alicia Sainz Martínez

Aholku eta gainbegiraketa teknikoa: Eduardo Ubieta Muñuzuri

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbo

Inprimaketa:

ISBN:

Lege-gordailua: BI -

AURKIBIDEA

0. Aurkezpena	5
I. Sarrera	7
Egoera	9
Lege markoa	18
EAE-n garatutako hezkuntza programak	21
Ikerketari buruzko galderak eta helburuak	23
Ezaugarri metodologikoak	24
Aplikazioaren ezaugarriak	26
Txostenaren antolaketa	26
II. Azterketa deskriptiboa	27
1. Euskal hezkuntza sisteman eskola uzteari buruzko datu orokorrak	27
2. Lagineko datuak	28
• Eskola-uztearen ehunekoa sexuaren arabera	29
• Eskola-uztearen ehunekoa sare eta lurraldeen arabera	30
• Eskola uzteko zioak ikastetxeen zuzendaritzaren arabera	31
3. Kontrol neurriak ikastetxeetan	35
• Ikasleak kontrolatzeko neurriak	38
• Kontrol neurriak familiarekin	40
• Beste zerbitzu eta erakunde batzuekiko lankidetzan aritzeko neurriak	47
4. DBHko ikastetxeetako prebentzio neurriak	51
5. Eskola-uzteak dituzten eta ez dituzten ikastetxeen araberako azterketa	61
6. Azterketa deskriptiboaren laburpena	65
III. Ikerketari buruzko galderak	69
1. Eskola uztearen tasa txikiari eusten zaio DBHko azken bi ikasturteetan?	69
2. Betetzen al dira ikastetxeetan Ikuskaritzak Eskolara ez agertzea eta Eskolagabetzea ekiditeko edo zuzentzeko planteatu dituen neurriak?	73
3. Ba al dago erlazorik ikastetxeetan garaturiko kontrol eta prebentzioko neurrien eta hezkuntza sistema uzteko arriskuan dauden ikasleen tasen artean?	76
4. Baliagarriak al dira derrigorrezko eskolatzeko-adina gainditu duten ikasleen eskola uztea prebenitzeko eta hezkuntza sisteman mantentzeko ikastetxeetan garatzen diren banako laguntzarako programak edo neurriak?	79
IV. Azken ondorioak	83

Bibliografia	85
Eranskinak	87
I. ERANSKINA: Eskola-uzteari buruzko galdera-sorta	89
II. ERANSKINA: Lurralde Delegaritzetatik kurtso hasierako jarraibideak	97
III. ERANSKINA: Eskola-uzte eta eskolagabetezari buruzko erregistro-orriak	101

0. Aurkezpena

Euskal hezkuntza Sistemaren helburu nagusietariko bat da inklusibitatea eta gure ikasle guztiek lortu ditzaketen arrakasta mailak lortu ditzatela. Baina horretarako funtsezkoa da ikasleak ikastetxetan egon daitezen. Hau dela eta, Hezkuntza Administrazio, Foru Aldundiak zein Udaletxeetatik ekimen ugari ematen dira eskola-uztearen kontra. Ikerketa honek gauza inportanteak utzi ditu agerian. Alde batetik Ikuskaritzaren programa eta neurriek ondorio onak dituztela eta horri esker Euskadin eskola-uztearen tasa derrigorrezko irakaskuntzan oso baxua dela, ez zero baina oso baxua.

Bestetik, hobetu ere egin ahal izan ditugula martxan dauden neurriak ikerketa eta interbentzioaren arteko koordinazioari esker.

Arazo honi buruzko ikerketari esker Europako erregio eta komunitate-foro batean ere parte hartu dugu, PREVALET programan, ezinbestekoa baita datuetan oinarritutako politikak bultzatzea. Lan honek, gainera, gure praktika onen berri Europan zehar zabaltzen lagunduko digu.

Apenas dago gai honi buruz datu fidagarririk Europako herrialdeetan. Hona gure aportazio txikia.

Hezkuntzaren eskubidea zaintzea etorkizuneko aseguru bat da, oso ikasle “uztaile” gutxi ditugun arren, ondorioak latzak izaten direlako kasu hauetan, marginalizazioa eta eskola-porrota besteak beste.

Ikastetxeek eskola-uzte kasu hauetan jarraitu behar duten protokoloa ez da elementu garrantzitsu bakarra. Sistemak berak ditu neurri prebentiboak ikasle hauek eskolan mantendu daitezen eta etorkizun hobea izan dezaten.

Euskal Hezkuntza Sistemaren lan onaren adierazle den ikerketa honen funtzioa ez da geure burua goraiatzeko baizik eta ikasleri guztiaren hezkuntzarako eskubidea kasu gehienetan errespetatzen dela jakitea eta geratzen zaizkigun kasuekin hobe eta finago aritzeko indarrak metatzea. Ez zaigu erronkarik faltako.

Tontxu Campos Granados

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua

I. Sarrera

Eskolagabetzeak, eskolara ez joateko joerak eta hezkuntza sistema derrigorrezko hezkuntzako aldian uzteak urratu egiten dute pertsona orok gure gizartean hezkuntza izateko duen eskubidea. Eskola uztea eta eskolara ez agertzea oro har oinarrizko hezkuntza titulazioa lortu gabe geratzea da eta, gainera, gizarte bazterketako faktore bat da. Hortaz, gertaera hori hezkuntza sistemaren arazo larria da, baina gizarte osoarena ere bai.

Kezka orokorra da Europako hezkuntza sistemetan; izan ere, azterlanak egin dituzte hainbat herrialde-tako neurriei buruz, zertarako-eta bazterketarik gabeko lanbide-bizitza izatea ahalbidetuko duten beharrezko ahalmenik gabeko herritarrak izateak dakarren disfuntziorik ez gertatzeko.

Europa mailan, kezka hori hainbat neurritan zehaztu da, horien artean PREVALET¹ proiektua, European Association of Regional and Local Authorities for Life (EARLALL) delakoak sortua. Horren helburua da Europako erregioetako gobernuek berrikuntzaren inguruko esperientzien berri elkarri ematea. Proiektuak kalitate-eSareaua izan nahi du hezkuntzaren arloko politiketarako, eta hezkuntzako berrikuntzak jakinarazteko, konparatzeko eta elkarri emateko koordinazio metodo irekia du oinarri. Honako hauek dira hezkuntza politikak, fase honetan horien gaineko esperientziak biltzeko oinarri direnak: eskola uztearen arloa derrigorrezko hezkuntzan eta helduentzako arautu gabeko hezkuntzaren arloa.

PREVALET proiektu honetan Europako hamar erkidegok edo erregioek hartzen dute parte, eta horien artean Euskal Autonomia Erkidegoak, eta proiektu horren harira sortu da azterlan hau.

Hainbat herrialdetan garaturiko neurrien ezagutza oso garrantzitsua da, baita derrigorrezko hezkuntza aldia bukatu baino lehen hezkuntza sistema ez uzteko duen eraginkortasuna ere, zeren eskola behar baino lehen uzteko gertaerarekin batera baitoa eskola porrota sarri askotan. Nahiz eta eskola porrota duten ikasle guztiek eskola behar baino lehen utzi ez, derrigorrezko heziketa ez duten ia guztiek eskola porrota izaten dutela esan daiteke.

Horren aurrean, irudikapen jakin bat sortu da gizartean. Eskola porrota eta eskola uztea ez da soilik hezkuntzarekin eta eskolara joateko adinarekin lotuta dagoen zerbait, baizik eta eskola uzten duena ere hartzen da aintzat, ingurune osoa barne dela: familia, lagunak, ikastetxea, etab. «*Gizarte irudikapena, funtsean, gizarte taldearen ideia jakin bat da, gizarte gertaera jakin bati buruz konpartituriko ideia bat (...) gizarte irudikapenen sustraietan, erlazioen, subjektibotasunaren eta kontzientziaren mundua dago (...) hainbat alderdi elkartzen dira —kognitiboa, afektiboak, sozialak eta balorazio mailakoak—, eta banakoek alderdi horiek bideratzen dituzte haien esperientziaren, komunikazioaren eta gizarte harremanen bidez*».²

Gizarteak eskola uztearen eta horren ondoriozko «*eskola porrotaren*» gainean duen irudikapena ez da unibertsal, baizik eta gizarte bakoitzarekin, gizarte talde bakoitzarekin eta une historiko batekin dago lotuta. Ikuspegi horretatik, eskola porrota zein hezkuntza sistema derrigorrezko hezkuntzako etapan uztea gizarte gertaerak dira, hain zuzen ere adin jakin bateko taldean jakineko irakaskuntza sortzeko ardu-
ra duen erakunde batekin lotuta daudenak gizarteetan: derrigorrezko hezkuntza.

Gaur egun eta gure gizarte honetan, nahitaezko hezkuntza sistema titulua eskuratu barik uztea ez da soilik eskola eremuari lotzen zaion gertaera bat, baizik eta ondorioak dakartza pertsona osoarengan, etorkizuneko aukerak baldintzatuz eta etorkizuneko lan eta gizarte bizitzan bazterketa izateko arriskuan jarriz. Oinarrizko titulazioa, gaur egun, ezinbesteko baldintzatatzat jotzen da, ez bakarrik ondoren-

¹ PREVALET: Policies for Regional Valorisation of Education and Training.

² Álvaro MARCHESI y Carlos HERNÁNDEZ GIL (2003): *El Eskola porrota. Una perspectiva internacional*. Madril. Alianza Editorial.

go ikasketekin jarraitzeko, baizik eta etengabeko teknologi garapenean murgilduta dagoen gizartean gutxieneko baldintzetan gizarte-lan integrazioa errazteko ere bai.

Ezagutzaren gizartearen ezaugarri bat heziketaren eduki berrietara etengabe egokitu beharra da eta, beraz, bizitzan etengabeko heziketa garatzeko gaitasuna sorrarazten duten pertsonak hezi beharra. «*Nahiz eta ikasketetan porrot egiten duten ikasleen ehuneko erlatibo batek laneratzeko eta gizarteratzeko posibilitateak izan, lanbidean aurrerapena izateko eta gizarte eta lan mailako aldaketei aurre egiteko zailtasunak askoz handiagoak dira.(...) Eskola porrotaren kontrako borrokari dagozkion programen helburu nagusia da ikasleak ikasteko prozesuan jarraitzea eta prozesu horretan berriz sarraraztea*» (Marchesi 2003).

Gainera, eskolara ez agertzearen eta eskola porrotaren gertaera azaltzeko azken iritziak aipatu behar dira; horien arabera, gertaera horiek eskolara huts egiten duten ikasleengan eragin larria izan dezaketen bestelako arazoan adierazle dira. Teoria horietan baieztatzen denez, zenbait kasutan, eskolara ez agertzearen atzean, tratu txarren, familiak ikaslea bertan behera uztearen edo eskolako jazarpen edo bullyngaren arazoa egon litezke. Izan ere, egoera horietako asko eskola inguruan baizik ezin antzeman daitezke eta eskolari esker izaten da horien berri. Ondorioz, zorrozki esku hartu beharra dago ikasle guztiak eskolan egon daitezen.

Hainbat ikuspegi teoriko dago eskolara ez agertzearen eta eskola porrotaren arazoak dakarren sorburua aztertzerakoan. Lehen ikuspegiaren ardatz nagusia eta ia bakarra banakoa izan da, eragina izan dezaketen gizarte, politika edo antolaketa mailako bestelako erreferenteak aintzat hartu barik. Ikuspegi horren arabera aztertu dira, bereziki Ameriketako Estatu Batuetan (AEB), eskola uzten duten ikasleen ezaugarriak, eta eskola-uzte horrekin lotutako arrisku-faktoreak definitu dira (Lee eta Burkhan, 2001). *Arrisku akademikoa* kategoriak kalifikazio baxuekin, hezkuntza mailako igurikapen baxuekin, ikasturtea goiz errepikatzearekin, diziplina arazoekin, etab. lotuta dauden alderdiak biltzen ditu, eta etorkizunean eskola zailtasunak izango direla uste da, hala nola eskolara ez agertzea, eskolatik «aldentzea» eta, azken urrats lez, eskola uztea.

Egoera honen gaineko ikuspegi zabalagoek, aldiz, zalantzan jartzen dituzte ikasleen arrisku-faktoreak ardatz hartzen dituzten ikerketak, bereziki ikaslea hezten den antolaketa testuingurua ahazteko joeragatik eta hezkuntza testuinguruak bete dezakeen eginkizunari ez erreparatzeagatik, betiere banakoaren eta familiaren egoera alde batera utziz. Ikuspegi zabalago horrek banakoaren hurreko ingurunea ere aztergai du —hezkuntza testuingurua barne dela— eta eskolak, horren politikak, jardunak planteamenduak eta antolaketak aldatzeari begira planteatzen duena baino azterketa zabalagoa egiten du. Ikuspegi horren arabera, kausa anitz aztertzen ditu eskola uztea; izan ere, hezkuntza mailako ikuspegia ez ezik (eskola behar baino lehen uztea) gizarte mailako azterketa ere egiten du (lan egiteko posibilitateak, pertsonak gisa eta gizartean eta lanbidean gora egiteko posibilitateak, etab.). Eskola gutxieneko titulua eskuratu barik uztea desagerrarazteko irtenbideak bilatzeak, jakina, lotura zuzena du arazoaren definizioarekin eta ikuspegiarekin.

Bigarren ikuspegi horrekin, hots, eskola uztea ikaslearengan eragina duen baina gizarte eta hezkuntza mailako sustrai sakonak dituen arazotzat hartuz, azterlan bat egin zuen CIDEk³, eta bertan aipatzen dira irtenbideak bilatzeko ikastetxeak aintzat hartu beharko lituzkeen zenbait neurri. Hauexek dira:

(...) betiere tratamenduaren gaineko ikuspegi konbentzionalak aldatzen badira. Gure planteamendu berriak hezkuntzako beste kultura bat dakar (...) Ondorengo ezaugarri hauek proposatzen dituen kultura ezberdinari dagozkio:

³ CIDE: Centro de Ikerketa y Documentación Educativa (2005): *El absentismo escolar como reto para la calidad educativa*. Madrid. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa.

- Arriskuan dauden ikasleak ikasgelako arazotzat hartu beharreen taldearen erantzukizuntzat hartu behar dira, hobetzeko posibilitateak izanik.
- Eskolara ez agertzea arazo pertsonaltzat hartu beharreen, tutoreak eta ikasleak inplikatu behar dira, gizarte eta sentimenduen mailako bestelako faktoreak sartzeko.
- Ikasgelaren barruko tratamendua izan beharreen, toki jakin batean dagoen kapital kulturalaren arabera landu behar da arazoa.
- Tratamendura hurbiltzeko erabilitako tresnak berriz lantzea aintzat hartu behar da: tresnen kontzeptuak, diagnostikoari emandako ikusmoldea, eskolak diagnostiko eta esku hartzeko prozesu honetan betetzen duen eginkizuna berriz aztertzea, ezagutzaz jabetzeko moduak berriz lantzea.

Egoera

Kontzeptuen definizioa

Eskolara ez agertzearen eta eskola uztearen arazoa kasik ez da modu sistematikoan eta zorrotzean aztertu. Nahikoa urriak dira eskola uztearen tasa neurtzea aipatzen duten azterlanak; hala, zein kopuru dauden jakin ahal izango dira. Bibliografia ugariagoa da zein inguruabarretan gertatzen den aztertu nahi denean, ikasleak eskola uztera daramatzaten egoerak, kausa anitz izatea, etab. eskola uzteari eta Eskolara ez agertzeari buruz dauden definizioen gaineko azterlan ugari dago eta kontzeptua neurtzen duten ikerketa bakoitzean konparaketa eragozten duten ñabardura ezberdinak daude.

Nahiz eta hasieran sen onean oinarritutako adostasuna egon daitekeen eta horri esker eskola uztea honela erraz definitu daitekeen, hots, *ikasgelara denbora luzean justifikatu gabe huts egitea*, arazoa konplexua denez gero, lehenbiziko galderak planteatzen dira gaia sakontzean: zenbait huts-egite izan behar dira eskola uzteko kasutzat hartzeko?, unibertsala al da huts-egite justifikatua?

Zenbatu daitekeena baino harago joanda, bestelako arazoak planteatzen dira, Garcia Graciak⁴ dioenez (2001):

«Zentzuzko esanahiari dagokionez, Eskolara ez agertzea ikasleak justifikaziorik gabe ikasgelara ez azaltzeari datxekio; halakotzat hartzen da behin eta berriz eta jarraian gertatzen denean. Hala ere, eskolara modu etenean, irregularrean edo ikasgaiaren arabera joatea zaila da kontrolatzen eta jasota uzten» (37. or.).

Lehenago aipatu dugunez, hainbat definizio dago eskola uzteari buruz; izan ere, oso gai konplexua da, ez bakarrik hitz ezberdinak sinonimotzat hartzen direlako, baizik eta hezkuntza aldietan edo ikasketak egiteko adin-tarteetan ere definizioak ez datozelako bat beti.

Zalantzarik egon ez dadin eta, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden datuak interpretatu ahal izateko, eskola uztea zehazki zer den azalduko da jarraian, bai Hezkuntza Ikuskaritzaren txostenen arabera, bai azterlanaren arabera.

⁴ GARCÍA GRACIA, M. (2004): *L'absentisme Escolar en zones socialment desfavorides. El cas de la ciutat de Barcelona*. Tesi Doctoral, Universitat Autònoma de Barcelona.

Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoaren txostenei buruzko definizioak⁵**Eskolagabetzearen definizioa:**

Derrigorrez eskolara joateko adinean diren eta ikastetxe batean matrikulatuta ez dauden adingabeen egoera da (6-16 urte). Adingabeen egoera ere sartzen da kontzeptu horretan justifikatu gabeko huts-egiteen %100 dagoenean, ikasleak matrikulatuta badaude ere.

Eskolara ez agertzearen definizioa, %99,9:

Ikastetxera denbora luzean huts egitea familiak zioak justifikatu, onartu edo eman barik, edo ikasleak berak nahi ez duelako nerabeen edo aurre nerabeen kasuan. Honako hau da tartea kasu honetan: eskola ikasturteko egunen %75etik gora eta %99 bitartekoa (zeren %100 aurreko definizioan ezarri baita).

Eskola uzteari buruzko definizioa ikerketa-lan honetan**Eskola uzteari buruzko definizioa:**

Ikasturtearen hasieran ikastetxean matrikulatuta egon arren, datuak bildu aurreko hilean, ikastetxera egun batean ere joan ez diren ikasleak dira, betiere espediente akademikoa lekuz aldatu ez badute ikasketak beste ikasketxe batean jarraitzeko.

Datuak konparatu ahal izateko, definizioen arteko antzekotasunak ezartzen dira eta ikerketako eskola-uztearen tasak beste tasa batzuekin konparatzen dira, hain zuzen ere Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoak egin dituen txostenekin. Izan ere, eskolara ez agertzea %99koa dela esaten da bertan, gehi eskolara ez agertzearen %100 duten ikasleei dagozkien tasak, eskolara joateko adinean egon arren ikastetxe batean ere ez bada matrikularik egin.

Azterlanak eta ikerketak

Ikerketa honetan agertzen den adin-tartean eta hezkuntza-mailan (DBHko bigarren zikloa) eskola uzteari buruz eginiko ikerketa gutxi egin denez, ezin egin daiteke beste azterlanekin azterturiko lagineko zuzeneko konparaketarik. Azken urteotan bildutako daturik gehienak hezkuntza sistemako DBHO etapan 18 eta 24 urte bitarteko gazteen adin-tarteari dagozkio. Neurketa horiek ikerketa honetako datuekin zuzenean ezin konpara badaitezke ere, erreferentzia baliagarria izan daitezke ideia orokorra bat izateko, hain zuzen ere hainbat herrialdetako hezkuntza sistemetako eskola-uztearen eta eskolara ez agertzearen arazoa planteatzeko moduari buruzko ideia.

⁵ *Ikasleriaren absentismo-kontrola*. EAEn txostena. Urteak: 2004-05 eta 2005-06. Hezkuntzako Ikuskaritza.

Nazioarteko egoera

• Estatu Batuetako egoera

National Center for Education Statistics (NCES) delakoak Estatu Batuetan 2001ean eskola-uztearen tasa buruz egin berri den azterlanean, eskola sisteman bigarren hezkuntzako ikasketak (high school)⁶ bukatu barik utzi zuten 16 eta 24 urte bitarteko ikasleen ehunekoa agertzen da. Taulan ikus daitekeenez, eskola uztearen batezbestekoa %10,7koa da; mutilak batezbeste horretan daude eta eskola uzten duten neskek ehuneko horren azpitik daude. Biztanle-taldean arabiarako azterketa eginda, tasarik altuena jatorri hispanoko ikasleekin gertatu da.

AEBetako eskola sistema uzten duten 16 eta 24 urte bitarteko ikasleen ehunekoa

	Ehunekoa
Batezbestekoa	10,7
Sexua	
Mutila	12,2
Neska	9,3
Etnia	
Zuria, ez hispanoa	7,3
Beltza, ez hispanoa	10,9
Hispanoa	27,0
Asiarra	3,6
Adina	
16 urte	4,2
17 urte	5,6
18 urte	12,9
19 urte	12,5
20-24 urte	12,3

Azterlan honek, beste faktore batzuen artean, bigarren hezkuntzako titulazioa lortzen duten ikasleen ehunekoa aztertzen du. Ondorio gisa aipatzen denez, ehuneko hori azken hiru hamarkadetan gutxi aldatu da, eta hazkunde txikia izan du 1972ko %82,8tik 2001eko %86,5era.

• Hego Amerikako egoera

Azken hamarkadetan aurrerapenak izan badira ere, eskola uzten dutenen tasak oso altuak dira 2000an eginiko azterlanaren arabera⁷. Gaur egun, 15 eta 19 urte bitarteko nerabe latinoamerikarren %37 inguruk uzten du eskola eskolako zikloan, eta ia erdiak uzten du eskola lehen hezkuntza amaitu baino lehen. Nolanahi ere, eskola uztearen inguruan ezberdintasun handiak daude herrialdeen artean, eta herrialdeen barruan ere halaxe gertatzen da hiriaren eta landako inguruaren artean.

⁶ Iturria: US Department of Commerce, Census Bureau, Current Population Survey, Octubre 2001. National Center for Education Statistics (NCES) «Dropout Rates in the United States 2001» 2004ko azaroa.

⁷ Ernesto ESPÍNDOLA eta Arturo LEÓN: «Educación y conocimiento: una nueva mirada. La deserción escolar en América Latina: un tema prioritario para la agenda regional». *Revista Ibero-Americana*, 30. zk. 2002ko iraila-abendua.

2000. urtean, honako hau izan zen gutxi gorabehera herrialdeetako hiri guneeetako 15 eta 19 urte bitarteko gazteen eskola-uzteen tasa:


%20tik behera	%20-%25	%25-%35	%40-%47
Bolivia Txile Erre. Dominikarra Peru	Argentina Brasil Kolonbia Panama	Costa Rica Ekuador El Salvador Mexiko Nikaragua Paraguai Uruguai Venezuela	Honduras Guatemala

Landa inguruetan, lehen hezkuntzako zikloan eskola uzten duten neska-mutilen kopurua ugaria da.

Hiritan mutilek neskek baino maizago uzten dute eskola, eta nesken ehuneko handiagoa hasten da bigarren hezkuntzan dagokion adinean, ikasturterik errepikatu barik.

Hezkuntza sistema uztearen inguruan eragina duten faktoreei buruz, bereziki nabarmentzen dira alde batetik egoera sozioekonomikoa eta familia, eta bestetik ikasleak eskolan izateak gatazka sortzen duten sistemaren beraren egoerak: errendimendu txikia, jarrera arazoak, irakasleen autoritarismoa, etab.

Eskola uztearekin lotuta dauden soldata-sarreraren galerak sexuaren arabera



Azterlan honetan ekarpen berritzailea egin da: ikasketak behar baino lehen uzten dituzten gazteek jasotzeari uzten dieten laneko sarrerei buruz eginiko kalkulua.


- **Europako egoera**

Nahiz eta ondoren bildutako datuak ikerketa honetakoekin ezin konpara daitezkeen, Europako herrialdeetako hezkuntza sistemen egoerara hurbiltzeko erreferentzia izan daitezke.

Lisboako 2000ko martxoko Europa Kontseiluan honako helburu hau finkatu zen, eskola-uzteari dagokionez: gehienez oinarrizko bigarren hezkuntza maila duten 18 eta 24 urte bitarteko pertsonen kopurua erdira murriztea. 2010. urtean %10era iritsi nahi da.

EBko herrialdeen batezbestekoa, 2004. urtean, %18koa izan zen, hots, derrigorrezko eskola aldia bukatuta ikasten jarraitzen ez zutenen ehunekoa⁸, baina EBn hamar herrialde gehiago sartuta, %15,9ra jaitsi zen. Soilik hamar herrialdetan sortu da 2010erako finkaturiko helburua, ondoko taulan ikus daitekeenez. Europako iparraldeko herrialdeak dira, eta ekialdeko zenbait herrialde ere bai.

Eskola uzten dutenen ehunekoa, 18-24 urte bitartekoak (2004)⁹



⁸ 18-24 urte bitartekoak, prestakuntza jarduerarik edo hezkuntzarik jasotzen ez dutenak inkesta baino 4 aste lehenago.

⁹ ISEI-IVEI 2005: *Hezkuntzako Adierazleen Euskal Sistema. Eskola-uzte goiztiarra*. www.isei-ivei.net.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 18-24 urte bitarteko gazteen %12,4k eskola utzi zuen 2004an DBHOk aldian, hots, aurreikusitako helburua baino 2,4 puntu gehiago eta Europako Batasuna osatzen duten 25 herrialdeen batezbestekoa baino 3,5 puntu gutxiago. Eskola uzten duten 18-24 urte bitarteko ikasleen sexuaren arabera, batez ere mutilak dira irakaskuntza uzten dutenak, %16,5; nesken tasa, berriz, 2010. urterako helburu gisa ezarritako %10ekoaren azpitik dago.


Datu horiek eta OCDEk (Lankidetzeta eta Ekonomi Garapenerako Erakundea) eginiko «Education at a Glance 2006» txostenean bildutakoak antzekoak dira, 2003-04 ikasturtekoak: eskola uzten dutenen batezbesteko tasa %15,2koa da Europan. Ehunekorik txikiena duten herrialdeen artean Polonia (%5,5), Suedia (%8,6) eta Finlandia (%9,3) daude.

Europako Batasunaren barruan, 2003-04 ikasturte akademikoko datuen arabera, Portugal da eskola uzten dutenen tasarik handiena duena: ikasleen %38,6k hezkuntza sistema uzten du derrigorrezko irakaskuntza amaitu gabe. Ehuneko horretatik %22,3 mutilak dira eta %35,4 neskak. Beste muturrean, hamar herrialdetan lortu da Europako Kontseiluak finkaturiko %10eko helburua, taulak dakarrenez.

• *Espainiako Estatuaren egoera*


DBHOn (18-24 urte) eskola uzten dutenen tasa %28,8koa zen 2000. urtean, Europako Batasunarena baino hamar puntu handiagoa (%19).¹⁰ 2004. urtean %30,4ra igo zen eta 2005ean %31,1era igo zen.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Ondokoa (DBHO) uzten duten ikasleen ehunekoa



¹⁰ EBko 15 herrialdeen hezkuntza arloko ministerioen bilera, Bruselan egina 2003ko azaroaren 25ean.. www.consumer.es/web/es/educacion.

OCDEko herrialdeak

Ohiko adinean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Ondokoa betetzen duten ikasleen ehunekoa¹¹

«Education at a Glance 2006» deritzon txostenaren arabera, 2003-04 ikasturtean Estatuko ikasleen %66k betetzen dute soilik batxilergoa edo adin bakoitzeko maila ertaineko prestakuntza zikloa; OCDEko herrialdeen batezbestekoa, berriz, %81ekoa da. EAEn adinari dagokion ikasturtean matrikulatutako ikasleen %79,38k betetzen du DBHO, hots, batezbestekoaren azpitik dagoen hirugarren herrialdea, ondoko grafikoan agertzen denez. Espainiako Estatuak laugarren postua du irakaskuntzako ziklo hori betetzen duten ikasleen ehunekorik baxuenen zerrendan.

Autonomia erkidegoetan nahikoa berri diren zenbait azterlan daude, eskola nahitaezko irakaskuntzako adinetan uzten duten autonomietako ikasleen tasari dagokienez.

Madrilgo Erkidegoan, CBG¹² taldeak azterlan bat egin zuen 98-99 eta 99-00 ikasturteetan DBHko bigarren zikloko ikasleekin. Honako egoera hau uzten zuten agerian datuok:

- Eskola utzitakoak %8,03 ziren. Madrilgo Erkidegoak gutxi gorabehera aintzat hartutako %4ko migrazio saldo positiboa duela kontuan izanik, autoreek uste dute eskola uzten dutenen tasa %12tik gorakoa dela.
- Erkidego horretako ikastetxe publikoek eskola uzten dutenen %11,03ko tasa zuten; ikastetxe pribatuek, berriz, %3,12koa.

¹¹ *Education at a Glance 2006*. Cap. A The output of Educational Institutions and the impact of learning.

¹² BALTASAR GRACIÁN TALDEAREN IKASKETA TALDEA, CBG: «Estructura social del Eskola porrota en la ESO dentro de la Comunidad de Madrid. Estima del abandono escolar». www.colectivobgracian.com.

- Ikasleak urteko batezbesteko *per capita* errentarekin neurtzen den gizarte-ekonomiako tarte bategoa edo bestekoa izan daitezke, eta horren arabera, eskola uzten dutenen ehunekorik altuena errentarik txikienetan gertatzen zen (%15,12), baina ehunekorik baxuena ez dagokio errentarik altuena duenari, errenta ertain altukoari baino (%6,15). Errentarik altueneko eta errenta ertain baxuko aldean ehunekoa bera da (eskola uzten dutenak %10,4 dira). Autoreek aipatzen dutenez, jokabide anomaloa dago errentarik altueneko taldeetan; izan ere, sare pribatuko eskola-uztea (%11,08) publikoan baino altuagoa da (%9,04).

Andaluzian, «*Eskolara ez agertzea. Hezkuntza eta gizarte arazoa*» izeneko txosten luzea egin zuen Andaluziako Herriaren Defendatzaileak 1998an. txosten horretan, absentismo txikiena dutenen profil psikologikoa agertzen da baina, hala ere, ez dago eskola uzten dutenen tasari buruzko datu orokorrik eta autoreek aitortzen dutenez: «*porrot egin zen Andaluzian dagoen eskolara ez agertzearen estatistika ebaluazioa eskaintzeko saiakera egitean; horren gaineko daturik eza ez da arrazoia —datu ugarri dago—, baizik eta arazoa ondorengo hau egiaztatzean eman zen: aipaturiko datuak aurretik herri administrazioek eskolara ez agertzearen kalkuluari buruzko irizpide bateratuak lortu barik egitea. Beste arazo larri bat ere sortzen da eskolara ez agertzearen ehunekoa finkatzeari dagokionez: ehuneko hori eskolara joateko adinean dauden ikasle guztiekiko —horren ondorioz, eskolatu gabeko ikasleak barne izango lirateke— edo, bestelako ikastetxeetan matrikulaturiko ikasle guztiekiko finkatu behar den».*

Azterlan horrek, ordea, ikasle ijitoen artean dagoen absentismo-tasari buruzko datu orokorrak ematen ditu. Azterlanaren arabera, eskolara joateko adina duten (6-16 urte bitartean) ikasle ijitoen absentismo-tasa 1997an %29,7koa zen eta 1998an kalkulaturikoa, berriz, %18,8koa da; absentismo-tasa ikaragarri handia zen, %90koa, programa abiarazi zen urtean (1989an) kalkulaturikoa, baina egun %18,8koa da.

Asturiasko Printzerrian, 2000-01 ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta DBHoko eskolara ez agertzeari eta bizikidetzari buruz eginiko txostenean ondorengo datuak bildu ziren, irakasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasketa burutzei eta zuzendaritzeei jakinarazitako informazioa abiapuntutzat hartuta:

Eskola uzten dutenen ehunekoa DBHn

DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH 4
1,8%	2,98%	3,29%	3,28%


Taulan ikus daitekeenez, mailaz mailako sekuentzia dago: irakaskuntza-maila zenbat eta altuagoa izan, gorako bidean jartzen da derrigorrezko eskolarizazio aldiaren hezkuntza sistema uzten duten ikaslearen ehunekoa.

• **EAEko egoera**

EAEan, 1992-2004ko epealdian, bilakaera positiboa ikusten da adierazle honetan; izan ere, eskola-uztearen tasa %25,4koa zen eta orain, berriz, %12,4koa da, 18 eta 24 urte bitarteko ikaslearen eskola-uztearen taula orokorrean ikus daitekeenez. Emakumeen kasuan (%8,1), tasa ez da iristen Europako Kontseiluak Lisboan 2010erako ezarritako helburura; mutilei dagokiena, ordea, %16,5koa da, Europako Kontseiluak finkaturiko %10etik gorakoa.

18-24 urterekin eskola uzten duten ikasleen ehunekoa¹³

Año	OROTARA	EMAKUMEAK	GIZONAK
1992	25,4	22,6	28,2
1993	23,1	17,2	29,0
1994	18,8	14,0	23,4
1995	18,2	13,6	22,7
1996	15,4	11,9	18,7
1997	16,6	13,6	19,5
1998	15,6	11,5	19,5
1999	13,9	10,3	17,4
2000	14,0	8,8	19,2
2001	15,1	9,5	20,5
2002	12,6	8,1	17,1
2003	14,5	11,3	17,6
2004	12,4	8,1	16,5



Nahiz eta datu horiek inola ere konparagarriak ez izan, DBHO uzten dutenen ehunekoa askoz handiagoa da adin-tarte horretan DBHn bildutakoak baino, halaxe agertzen baita Hezkuntza Ikuskaritzak 2004-05 eta 2005-06 ikasturteetan eginiko *Ikasleriaren absentismo-kontrolari* buruzko bi txostenetan: %1ekoaren ingurukoak dira:

¹³ ISEI-IVEI (2005): *Hezkuntzako Adierazleen Euskal Sistema. Eskola-uzte goiztiarra.*

Eskolara ez agertzea eta Eskolagabetzea duten ikasleen ehunekoa (6-16 urte)

	2004-05	2005-06
Lehen Hezkuntza	0,75	0,8
DBH	1,32	1,3

Txosten horietan eskolarizatu gabeko ikasleen kopuruak agertzen dira (Eskolara ez agertzearen %100 + derrigorrezko adinean matrikulatu gabekoak), ikasturtean %25koa edo hortik gorako eskolara ez agertzea izan duenaz gain.

Lege markoa

Atal honetan herri administrazioek esku hartzeko duten eremua kokatuko dugu, Eskolara ez agertzea errotik desagerrarazteko. Lehenik eta behin, hezkuntzaren arloko antolamendu juridikoa deskribatzen da, baita hezkuntzakoak ez diren baina arazoa desagerrarazteko baterako erantzukizuna duten beste administrazioen eskumenak eta betebeharrak definitzen dituzten oinarritzko arauak ere. Eskolatzea zuzenean edo zeharka aipatzen duten legezko testu nagusiak aipatzen dira, Euskal Autonomia Erkidegokoak zein estatu mailakoak. Bigarrenik, hezkuntza politika deskribatzen da, legeria horretatik abiatuta garatu dena eta EAEko ikasleen eskolara ez agertzea desagerraraztekoa bideratzen dena. Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Administrazioak arazoa errotik desagerrarazteko sortutako hezkuntzako zentzuzko programa eta proiektu ere aipatzen dira.

Nazioarteko eta estatuko administrazioaren legeria

Oso zabala da hezkuntza eskubideari eta nahitaezko eskolatzearekin lotutako arauetako buruzko legezko eremua, eta aldi berean, hainbat administrazio inplikatzeko ditu, zeren hezkuntzaren eremua gainditzen duen arazoa baita: eskolako eta gizarteko arazoa da. Hori dela-eta, bi eremuei buruzko legeria egin da.

1. Hezkuntza eremua

Eskolara ez agertzearen kontrako borrokarako jarduketak eta programak lantzen diren lege eremuaren hasieran, NBEk 1989an onetsitako Haurraren Eskubideen Biltzarrean xedaturiko beharrezko aipamena dugu. Horren bidez, honako hau hitzartzen dute estatuek:

«...haurren oinarritzko beharrak betetzea, haurrari osasun zerbitzua, hezkuntza, heziketa... emanaz».

Hezkuntzarako oinarritzko eskubide hori onartuta dago Espainiako Konstituzioaren 27. artikuluan, hauxe aipatzen baita 1. atalean:

«guztiek dute hezkuntza eskubidea», eta 4. atalean hauxe zehazten da: «oinarritzko irakaskuntza nahitaezkoa eta doakoa da».

Hezkuntza eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoak, (LODE), alde batez maiztaren 3ko 2/2006 Hezkuntzako Lege Organikoan aldatu denak (LOE), hauxe dakar 1.1. artikuluan:

«... oinarrizko hezkuntza eskubidea, beren nortasuna garatzea eta gizarteari jarduera baliagarria ematea ahalbidetuko duena. Hezkuntza hori nahitaezkoa eta doakoa izango da oinarrizko hezkuntza orokorrean eta, hala denean, lehen mailako lanbide heziketan, baita Legean ezarritako gainerako mailetan ere».

Onetsi berria den Hezkuntzaren Lege Organikoaren hitzaurrean, legearen funtsezko printzipio gisa ezarri du hezkuntza eskubidea:

«... helburua, orain, emaitza orokorrak hobetzea da, baita oinarrizko hezkuntza titulu barik amaitzen duten eta ikasketak behar baino lehen uzten dituzten ikasleen tasa handiak murriztea ere, oraindik tasa handiak baitira.»

Hauxe ezarri dute Lege horren II. kapituluko 3 eta 4. artikuluek:

«Lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza oinarrizko hezkuntza dira.» «Oinarrizko hezkuntzak hamar eskola-urte ditu eta modu erregularrean lantzen da sei eta hamasei urte bitartean.» «Lege honetako 3.3. artikuluan aipatzen den oinarrizko hezkuntza nahitaezkoa eta doakoa da pertsona guztientzat».

Administrazioek hezkuntza eskubidea bermatzeko legez egin behar dituzten jarduketan eremua mugatzen dute arautegi hauek. Eskubide hori bermatzea, eskolara ez agertzearen kontrako borrokari lotuta dagoena eta Espainiako Konstituzioaren 27. artikuluko 5. atalean legez bete behar dena. Hauxe ezarri da atal horretan:

«...herri botereek hezkuntza eskubidea bermatzen diete guztiei hezkuntzaren programazio orokorraren, ukitutako sektore guztien partaidetza eraginkorraren eta ikastetxeak sortzearen bidez»

Aipaturiko betebeharren gaineko lehen interpretazioari esker, honako ondorio honetara iritsi gaitzke: herri administrazioek eskolara ez agertzearen arazoari dagokionez duten erantzukizun bakarra ikasleek eskolan tokia izatea bermatzea dela, hots, eskolan toki bat eskaintzea nahitaezko hezkuntza izateko adinean diren ikasle guztiei.

Gaur egun, ordea, ezin esan daiteke eskolara ez agertzea funtsean eskolan plazarik ez izatea dela; eskolara sarri-sarri ez doan adingabearen gaineko kontzeptuak berak ere berekin dakar inplizituki eskolan tokia baduela, toki hori baliatzen ez badu ere. Hortaz, administrazioen lana neurri positiboak hartzea da ikaslea eskola uztera bultzatzen duten arazoak konpontzeko.

2. Adingabea babesteko eremua

Eskolara ez agertzeak gizarte eta lan mailan dakartzan ondorioek galarazi egiten dute arazoa soilik hezkuntzaren ikuspegitik lantzea; arazo honek ukitzen dituen ikasleak adingabeak izateaz jabetuta planteatu behar da eskolara ez agertzea ezinbestean.

Nazioarteko zuzenbidearen eremuan, Haurraren Eskubideen Biltzarra aipatu behar da, NBEk 1989ko azaroaren 20an onetsia. Horren bidez, honako hau hitzartu zuten konbentzioa sinatu zuten estatuek:

«...haurren oinarrizko beharrak betetzea, haurrari osasun arreta, hezkuntza eta heziketa emanez».

Estatu mailako eremuaren barruan, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan beren beregi aipatzen da eskolara ez agertzearen arazoa. I. kapituluko 13. artikuluan, herritarrek adingabeen eskubideak babesteari dagokienez dituzten betebeharrak definitzen dira, honelaxe:

«Adingabe bat nahitaezko hezkuntzako urteetan eskolan ez badabil edo ikastetxera justifikaziorik gabe denbora luzean ez badoa eta edozein pertsonak edo agintarik horren berri badu, herri agintari eskudunei jakinarazi behar die, eta agintariok beharrezko neurriak hartuko dituzte adingabea eskolara joan dadin.»

Arauen eremu orokor hori abiapuntutzat hartuta, eskolara joateko adina duten ikasleak eskolara doazela modu eraginkorrean bermatzeko konpromiso soziala eta politikoa dute herri administrazioek. Funtsean hiru dira eskolara ez agertzearen arazoan esku hartzen duten administrazioak: Hezkuntza Sailburutzak, Gizarte Gaietarako Sailburutzak eta Herri Administrazioak:

- Hezkuntza Sailburutza. Eskolara ez agertzearen kontrako programetan parte hartzea ezinbestekoa du, hezkuntza antolamenduko oinarritzko eskumenak eta hezkuntza eskubidearen eraginkortasuna bermatzeko oinarritzko eskumenak ezarrita baititu.
- Gizarte Gaiak. Gai honetan parte hartu beharra du, sustraiak eta ondorioak gizarte mailakoak baitira eta, gainera, gizarte mailako neurriak hartu behar dira eskolara ez agertzea eta eskola uztea prebenitzeko eta laguntza emateko.
- Herri administrazioa. Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2n artikuluan eskumen espezifiko hau ematen zaie udalerriei: *«derrigorrezko eskolaztea betetzen dela bermatzeko parte hartzea»*.

EAEko legeriaren garapena

EAEk, hezkuntzaren arloko bere eskumenen arabera, unibertsitatekoak ez diren ikastetxeen funtzionamendua eta antolaketa arautzen ditu, eta ondorengo araudian islatzen da:

1993ko otsailaren 19ko Euskal Eskola Publikoaren Legeak honelaxe definitzen du ikastetxea:

«askotarikoa, elebiduna, demokratikoa, euskal gizartearen zerbitzura, bere inguruan sustraitua gizartearen eta kulturaren aldetik, partehartzailea, desberdintasunak konpentsatzen dituena eta aniztasuna integratzen duena»

eta hauxe ezarri die EAEko herri botereei beren eskumenen eremuan:

«hezkuntza eskubidea eraginkortasunez erabiltzeko beharrezko neurriak hartzea» (5. art.)

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatekoak ez diren ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrari buruzko apirilaren 19ko 169/1994 Dekretuak (21. art.) ikastea ikasleen oinarritzko eskubidea dela ezarri du; betebeharrak orokor hori hainbat betebeharratan zehazten da, horien artean:

«klasera joatea, eskola egutegian adosturiko jardueretan parte hartzea eta ezarritako ordutegiak errespetatzea».

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 1998ko uztailaren 30eko Aginduak kaltetua den gizarte ingurunean dauden ikasleentzako hezkuntza-jarduna arautzen du eta hezkuntzako esku-har-

tzerako neurriak ematen ditu eskolan egokitze zailtasunak dituzten ikasleentzat. Agindu horren I. atalak (2. art.) honelako egoerak definitzen ditu, besteak beste:

«Eskolako ingurunera egokitzen ez diren egoerak, eskola porrotean eta hezkuntzako ingurunearekin lotutako zailtasunetan islatzen direnak, betiere gizarte-kulturako ingurune baztertuekin lotuak»

Agindu horren II. atalean jarduketak orokorrak definitzen dira, besteak beste:

«Tokiko administrazioekin batera, eta foru aldundien kasuan, eskolara ez agertzearen kontrako programak, osasuna, higiena, gizarte ohiturak... sustatzeko programak garatzea...»

Adingabeen arriskuko egoerek eta horien babesik ezak hainbat maila izan ditzakete, esku-hartze espezifikoa behar dituztenak. Hori dela-eta, 2001eko otsailaren 8an erakundeen arteko Akordio bat sinatu zuten Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta EUDELek¹⁴, ondorengo uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuaren oinarriak jarri zituena, non gizarte zerbitzuen arloko eginkizunak ezarri ziren. Dekretu horrek bi mailatan banatzen ditu herri zerbitzuen esku-hartzea:

1. Oinarrizko gizarte zerbitzuen oinarrizko mailako esku-hartzea babesik eza arina edo ertaina denean.
2. Babesik eza larria denean jarduteko espezializaturiko zerbitzuak; ahalmena emango zaie, «arrisku egoera txikitze egokiak diren jarduketak abiarazteko» edo, babesik eza eragiten bada, zaintza eta babesa beren gain hartzeko (Lege horren 17 eta 18. art.).

Ahalmen horiek foru aldundiei eratziki zaizkie alderdirik erabakigarrietan eta betearazleetan, Lurralde Historikoen Legea dela bide (azaroaren 25eko 27/1983 Legea).

Laburbilduz, hiru administrazioek esku hartzen dute eskolara ez agertzearen arazoaren inguruan:

- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, hezkuntza eskubidea eraginkortasunez eta osorik betetzen dela bermatzeko.
- Foru aldundiek, adingabearen babesaren arloan eskumena dutela-eta, absentismo egoeran dagoen ikaslearen banako egoeretan jarduten dutenak. Gainera, argi eta garbi gizartean sustraiak dituen arazoa da, gizarte ondorioak dituen eta gizarte arloko neurriak hartzeko eskatzen dituen.
- Tokiko administrazioen erakundeek, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak aginduta laguntza eman behar dutenak nahitaez. Lege horren 25.2n artikuluan haxe ezarri du, udalerrien eskumen espezifiko gisa: «*derrigorrezko eskolatzea betetzen dela zaintzeko lanetan parte hartzea*».

EAE-n garatutako hezkuntza programak

Ondoren aipatzen diren eta garapen bidean dauden programa guztien xedea da arrazoi pertsonal edo familia edo gizarte-kulturako arrazoiak direla-eta gerta daitezkeen deseskolarizazio eta eskola porroteko egoerak ekiditea, batez ere gizarte eta kulturako gune baztertuetan dauden ikastetxeetan. Programa horien bidez, curriculum egokituak garatzen dira, ohiko moduan antolatzen ez direnak eta ikasle ikasteko motibazioa errazteko direnak. Horiek guztiek, gainera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatua lortzeko baldintzak prestatzea dute helburu.

¹⁴ EUDEL: Euskadiko Udalen Elkarte.

Garaturiko programa nagusiak

1. Hezkuntza eskubidea bermatzeko programa: Eskolagabetzea eta eskolara ez agertzea ezabatzea Bizkaiko Lurraldean.
2. Hezkuntzako Esku-hartze Espezifikokoaren Proiektua gizarte ingurune baztertuak dagoen ikastetxeetan.
3. Eskolarizazioko programa osagarriak.
4. Curriculum-dibertsifikazioko programa.
5. Hezkuntza errefortzua.
6. Aniztasun eta bizikidetzaren programak.

1. Hezkuntza eskubidea bermatzeko programa: Eskolagabetzea eta eskolara ez agertzea ezabatzea

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Aldundien gizarte ekintza sailak eta Euskal Udalen Elkarteak (EUDEL) adosturiko akordioa da. Hezkuntza, gizarte eta epaileen arloen ahalgin profesionalak bildu nahi ditu akordioak. Prebentzio eta antolaketako neurriak dakartza, baita jarduteko adosturiko protokolo baten garapena ere.

Hauexek dira programaren helburuak:

- EAEko 6 eta 16 urte bitarteko adingabeek hezkuntza izateko duten eskubidea betetzen dela zain-tzea, adingabeak oinarrizko irakaskuntzako mailetan eskolaratuta.
- Gizarte ingurune baztertuak diren familien jokabidea piztuaraztea 3 eta 6 urte bitarteko adingabeak eskolaratzeko.
- Inplikaturiko profesionalak, gizarte oro har eta bereziki zuzenean inplikaturik daudenak gai honen larritasunaz jabetzeko.
- EAEren txosten orokorra ematea Hezkuntza Sailburuordetzari erabaki egokiak hartzeko.

2. Hezkuntzako Esku-hartze Espezifikoko Proiektua gizarte ingurune baztertuak

Hezkuntzako behar bereziak dituzten ikasleentzako proiektuak dira, gizarte edo kulturako ingurune batekoak direlako edo Esku-hartze Orokorreko Proiektua aurreikusi ez duten ikastetxeetan eskolara egokitzeko arazo larriak dituztelako.

Helburua ikasleen beharrei erantzuna ematea da, ikastetxearen curriculum-proiektuan oro har ezarritakoei dagokienez curriculum, antolaketa edota funtzionamenduko hainbat aldaketa dakartzaten jarduketak espezifikoen bidez.

Proiektua onesteko, ikastetxearen proiektu bat egin behar da, DBHko lehen zikloan ikasten duten 16 urtetik beherako ikasleentzat, eskolako jarreraren arazo larriak edota eskolako atzerapen larriak dituzten ikasleentzat. Proiektuak 2 ikasturterako indarraldia du, eta beste neurri batzuen artean, etaparen egituraren, etaparen curriculumean eta zikloaren antolaketan eragina duten jarduketak dakartza.

3. Eskolarizazioko programa osagarriak.

Programa hauen bidez, aldi batez egin daiteke DBH matrikulazioa egin den ikastetxetik kanpoko unitate espezifikoetan, betiere ikaslea ohiko sisteman berriz egokitzeko edo helduen bizitzan eta lan munduan sartzeko bidea errazteko baliagarriak diren alderdiak azpimarratuz; hala, haien beharretara egokituriko curriculumak izango dute, DBHko oinarrizko gaitasunei uko egin barik.

Banako programa da, aldi baterakoa, eskolako ohiko testuingurutik kanpo lantzen dena. Eskolara egokitzeko arazo larriak dituzten 14 eta 16 urte bitarteko ikasleentzat dira, betiere ikastetxean laguntza emateko ohiko eta aparteko neurriak nahikoak izan ez direnean.

4. Curriculum-dibertsifikazioa

DBHko bigarren zikloa egiteko modu ezberdina planteatzen dute programa hauek, eta 16 eta 18 urte bitarteko gazteentzat dira; izan ere, ebaluazio psikopedagogikoa egin ondoren, etapako helburu orokorrak lortzeko programa egokitua ezinbestekoa dutela baloratu delako. Ikasteko eta eskola ingurunean izateko jarrera positiboa duten ikasleak dira oro har.

Urtebete edo bi urteko programak dira taldea osatzen duten ikasleentzat, non ikasgai gehienak bi eremutan sartzan diren: linguistiko-soziala eta zientifiko-teknologikoa. Eremu horiek gutxienez 18 orduz eman behar ditu ikasle berak, eta gainerako irakasgaiak ohiko taldean ikasiko dira.

Ikastetxeek curriculum-dibertsifikazioko oinarrizko programa dute eta, biderapen zerbitzuak alde aurretik eginiko ebaluazio psikopedagogikoaren arabera, taldearen tutoretza ikasle bakoitzaren programan finkatzen da. Tutoretzaren prozesua programen oinarrizko elementua da eta banakoen eta taldeen ikaskuntza eta zailtasunak jarraitzeko balio du.

5. Hezkuntza errefortzua

Hezkuntzako ohiko, banako eta taldeko neurriak dira, irakasleak eginak eskolan ikasteko ohiko zailtasunak dituzten ikasleentzat. Bi neurri-mota bereizten dira:

- Taldeko hezkuntza errefortzua; prebentziokoa da taldeak zailtasun handienak dituen irakasgaientan.
- Banako hezkuntza errefortzua, irakasgai batean edo gehiagotan laguntza behar dutenentzat.

Ikastetxeek hezkuntza errefortzurako plana ezartzen dute, non ikastetxearen urteko planaren barruan sartuko diren antolaketa mailan neurriak finkatzen diren.

6. Aniztasun eta bizikidetzaren programa

Programa orokor honen barruan, ikasle ijitoak eskolaratzeko prozesua hobetzeko programa bat dago, ijitoekin lan egiten duten hezitzaileen talde espezifiko batek landua.

Horiekin neurri guztiekin batera, Hezkuntza sailburuordeak EAEko ikastetxe publikoentzat eta itunpeko ikastetxeetan eginiko jarraibideak doaz, hain zuzen ere ikasturte bakoitzean proiektuak garatzeko baimena eskatzeko.

Ikerketari buruzko galderak eta helburuak

Nahiz eta EAEko hezkuntza sistemako eskola-uzteen tasak txikiak izan, pertsona mailan duten garrantzia ikusita, azterlan honetan bi alderdi baieztatu nahi dira. Alde batetik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken mailatan (DBHko bigarren zikloa) dauden tasa txikiei eusten zaien, eta bestetik ikasleek hezkuntza sistema nahitaezko eskolatze-aldia titulua lortu arte ikasketak ez uzteko ikastetxeek abiarazten dituzten neurriak zein diren.

Ikerketa honen ardatza DBHko bigarren zikloa da, eta honelaxe definitu da eskola-uztea:

Ikastetxean matrikulatuta egon arren datuak bildu aurreko azken hilean eskolara egun batean ere joan ez diren eta ikasketak beste ikastetxe batean jarraitzeko espedienteak lekuz aldatzeko eskatu ez duten ikasleak.

Hezkuntzako administrazioak eskola-uztea ekiditeko ezarritako kontrol neurriak eta tokiko eta lurraldeko beste gizarte erakundeen edo zerbitzuen inplikazioa ezagututa, ikastetxeek neurriok betetzeari dagokionez dituzten mailak aztertzen dira ikerketa honetan, baita ikasleek eskola behar baino lehen ez uzteko antolaketaren arloko zenbait alderdi ere. Halaber, erakundeen kontrol neurrien eta aparteko esku-har-tzerako programen garapena aztertzen da, baita okerreko bidetik doazen eta eskola utz dezaketen ikas-leen jokabideak zuzentzeko taldeko edo banako errefortzurako neurriak ere.

Hauexek dira ikerketaren helburuak:

- Ikasleei dagokienez:
 - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako eskola uztea neurtzea, emandako defini-zioaren arabera.
- Ikastetxeei dagokienez:
 - Hezkuntza sistema kontrolatzeko neurriak deskribatzea.
 - Ikastetxeetako antolaketa-neurriak, neurri didaktiko prebentiboak eta neurri zuzentzaileak.

Azterlanaren helburua, azken batean, ondoren biltzen direnei erantzuna ematea da:

- Eskola-uztearen tasa txikiari eusten zaio derrigorrezko irakaskuntzako azken ikasturteetan.
- Hezkuntza Ikuskaritzak eskolara ez agertzea eta eskolagabetzea ekiditeko eta zuzentzeko planteatu-riko neurriak betetzen dira ikastetxeetan.
- Ikastetxeetan garaturiko banako laguntzarako programak edo neurriak baliagarriak dira eskola-uztea prebenitzeko eta derrigorrezko eskolatze-adina gainditu duten ikasleak hezkuntza sisteman manten-tzeko.
- Badago erlaziorik ikastetxeetako kontrol eta prebentzioko neurrien garapenaren eta ikastetxeetan eskola uzteko arriskuan dauden ikasleak izatearen artean.

Ezaugarri metodologikoak

Ikerketa honen oinarria ISEI-IVEIk eginiko galdetegian bildutako datuak dira; galdetegi hori PISA 2006 nazioarteko ebaluazioko lagineko ikastetxeetako zuzendaritza taldeentzat egin zuen.

Datuen azterketan konparaketak egiten dira, alde batetik galdetegia aplikatu den urtean hezkuntza sis-tema utzi duen ikasleren bat duten ikastetxeen eta eskola-uzterik ez duten ikastetxeen artean.

Gainera, bestelako azterketak ere egiten dira, non konparazioa egiten baita ikastetxeen artean: neurri ezberdinak daude ohiko ikasleak edo eskola uzteko arriskuan dauden ikasleak izan edo ez, eta eskola uzteko arriskuan daudenak hartzen dira erreferentziatzat eskola-uztea definitzeko.

- **Lagina**

Ikerketa honetako lagina PISA 2006 nazioarteko ebaluazioa egin zuten 137 ikastetxeek osatu zuten. EAEko hamabost urteko ikasleen lagin adierazgarria da.

Nahiz eta ikerketa honetarako beren beregi eginiko lagina ez izan, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen egoerari buruzko ikuspegi zabala ematen digu.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle guztiak 2005-06ko ikasturteko lagineko 137 ikastetxeri dagozkie. Informazioa Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak eman zuen, Hezkuntza Estatistika Zerbitzuaren bitartez.

Hauexek dira laginaren ezaugarriak:

Lagineko ikastetxeak lurraldeen arabera

Lurraldeak	Ikastetxeak
Araba	18
Bizkaia	70
Gipuzkoa	49
Orotara	137

Lagineko ikasleak orotara

Lurraldeak	3 eta 4. mailako ikasleak
Araba	2.561
Bizkaia	8.620
Gipuzkoa	5.516
Orotara	16.697

Lagineko ikastetxeak eta ikasleak sarearen arabera

Sarea	Ikastetxeak
Publikoa	58
Itunpekoa	79
Orotara	137

Sarea	3 eta 4. mailako ikasleak
Publikoa	7.026
Itunpekoa	9.671
Orotara	16.697

- **Informazioa biltzeko tresna**

Ikastetxeke zuzendariak betetako galdetegi baten bidez bildu da informazioa. Eskatu diren datuak DBHko bigarren zikloan ikasten duten ikasleei buruzkoak dira. Hainbat alderdiren inguruan informazio gehiago bildu zen. Hona hemen alderdi horiek:

- Gutxienez azken hilean ikastetxera justifikaziorik gabe azaldu ez diren eta ikasketak beste ikastetxe batean jarraitzeko espedienteak tokiz aldatzeko eskatu ez duten ikasleen kopurua.
- Eskola uzteko zio edo arrazoi nagusiak.
- Hezkuntza Sailak Eskolara ez agertzearen eta Eskolagabetzearen kontrolaren inguruan eskaturiko neurriak betetzea.
- DBHko bigarren zikloan ikasten duten ikasleek Bigarren Hezkuntzako titulua lortu baino lehen sistema ez uzteko ikastetxean landutako neurriak.

Bi alderdi horiek ikasleei dagokienez (ohikoa edo eskola uzteko arriskuan daudenak) zein ikastetxeei dagokienez aztertzen dira, hezkuntza sistema utzi duen ikasleren bat izan duten ala ez aintzat hartuta.

Aplikazioaren ezaugarriak

Galdetegia ikastetxe bakoitzeko zuzendaritzari aurkeztu zitzaion hura bete zezan. Horretarako, aplikatzailea erabili zen PISA 2006 nazioarteko ebaluazioaren aplikazioa antolatzeke egin zen bisitaldiaren egunean. Galdetegiarekin batera, ISEIren aurkeztapen-gutuna aurkeztu zen, non ikerketaren helburuak azaltzen ziren. Galdetegiak PISAren aplikazioen egun berean bildu ziren ikastetxe bakoitzean, 2006ko maiatzean.

Txostenaren antolaketa

Ikerketa honen txostenaren hasieran sarrera bat dugu, non azterlanak ulertzeko elementu teorikoak, laginaren ezaugarriak, aplikazioaren ezaugarriak, etab ematen diren, baita hainbat herrialde eta erkidegotan gai honen inguruan dagoen egoera ere.

Hurrengo atalean eskola uzteari buruzko datuen azterketa deskriptibo zehatza egiten da, baita ikastetxeetako zuzendaritzen ustetan eskola uztea gertatzeko eragile nagusiak izan direnen inguruan ere. Bestalde, ikastetxeen kontrol neurriak aztertzen eta konparatzen dira ohiko ikasleekin eta arriskuan dauden ikasleekin, baita eskola uztea gerta ez dadin garatu beharreko prebentzio neurriak edo programa espezifikokoak ere. Atalaren amaieran konparaziozko azterketa agertzen da, sistema utzi zuen ikasleren bat izan duten ikastetxeek eta arazo hori izan ez duten ikastetxeek harturiko neurrien artean.

Hirugarren atalean ikerlanak planteaturiko lau galderen erantzun-maila bildu da.

Ikerlanaren amaieran zenbait ondorio ematen dira, euskal hezkuntza sisteman eskola uzten dutenen inguruko ezaugarrien ideia edo egungo egoerara hurbildu nahian.

II. Azterketa deskriptiboa

Lagina azaltzean aipatu dugunez, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan lagina osatzen duten 137 ikastetxeetako zuzendaritzak beteriko galdetegia erabili da.

Aztertuko diren datuak hezkuntza-sistema utzi duten ikasleei buruzkoak dira. Honelaxe definitzen dira egoera horretan dauden ikasleak: *2005-06 ikasturte hasieran ikastetxean DBHko 3. edo 4. mailatan matriculaturik dauden eta gutxienez galdetegia egin aurreko azken hilean (2006ko maiatza) ikastetxera azaldu ez diren ikasleak. Jakina, ez dute eskatu espediente akademikoa lekuz aldatzerik ikasketak beste ikastetxe batean jarraitzeko.*

Ikastetxeetako zuzendaritzek beteriko galdetegietan bildu den informazioaren azterketa egingo da atal honetan; hala, honako hauek jakiteko modua izango dugu:

- EAEn eskola uzteari buruzko datu orokorrak.
- Lagineko ikastetxeetako ikasleen eskola uzteari buruzko datuak, ikasleen sexuaren, ikastetxeetako titularraren eta lurraldearen arabera.
- Eskola-uztea gertatzeko kausak edo arrazoiak.
- Ikastetxeetako kontrol neurriak eta horien gaineko konparazioa ohiko ikasleen eta eskola uzteko arriskuan dauden ikasleen artean.
- Prebentzioko programen eta neurrien deskribapena eta eragina.
- Kontrol eta prebentzio neurrien konparazioa eskola uzten duten ikasleak dituzten eta ez dituzten ikastetxeen artean.

Atala amaitzeko, azterketa deskriptiboaren sintesia agertzen da.

1. Euskal hezkuntza sisteman eskola uzteari buruzko datu orokorrak

2005-06 ikasturteko ikastetxeetako laginean, guztira, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 16.697 ikasle izan dira, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren Hezkuntzako Estatistika Zerbitzuaren informazioaren arabera.

**Lagineko ikastetxeen eta ikasleen kopurua
lurraldeen arabera**


Lurraldeak	Ikastetxeak	3 eta 4. mailako ikasleak
Araba	18	2.561
Bizkaia	70	8.620
Gipuzkoa	49	5.516
Orotara	137	16.697

Lagineko 137 ikastetxeetatik, grafikoan agertzen denez, 106 ikastetxek ez dute eskola utzi duen ikaslerik. 31 ikastetxetan nahitaezko heziketa utzi duen ikasleren bat dago.

Eskola utzi duten ikasleen ehunekoa, ikastetxeen arabera

Uzte-kopurua	Ikastetxe kopurua	Ehunekoa
Bat ere ez	106	77,4
Bat	18	13,1
Bi	9	6,6
Hiru edo gehiago	4	2,9

Eskola-uztea ikastetxeen arabera



Gainerako 31 ikastetxeetatik 18 ikastetxek (lagineko ikastetxeen %22,6k) eskola utzi duten ikasleren bat du. Bi ikastetxetan bost eta bederatzik ikasle daude, hurrenez hurren, 2005-06 ikasturtean nahitaezko eskolatze-aldia amaitu baino lehen sistema utzi dutenak.

Sistema utzi duten ikasleen kopurua

DBHko 3. eta 4. mailako ikasleak	Uzte-kopurua	Ehunekoa
16.697	56	0,34*

* errore tipikoa +/- 0,045.

m.a.s. duen azterketatik abiatuta kalkulatu dena.

2. Lagineko datuak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailako lagineko ikasle guztietatik (16.697) 56 ikaslek utzi zuten hezkuntza sistema, hots, lagineko ikasleen %0,34k.


Sistema utzi duten ikasleen sexua

Sexua	Eskola utzi duten ikasleen kopurua
Mutila	23
Neska	33

Derrigorrezko hezkuntza amaitu baino lehen 2005-06 ikasturtean hezkuntza sistema utzi duten nesken kopurua mutilena baino handiagoa da. Eskola utzi duten guztien %59 neska dira.

Lurraldeak	Ikastetxe kopurua	3. eta 4. mailako ikasleak	Eskola uzten duten ikasleak	Uzteen ehunekoa
Araba	18	2.561	13	0,51
Bizkaia	70	8.620	28	0,32
Gipuzkoa	49	5.516	15	0,27

Eskola-uztea lurraldeen arabera




%1etik beherako portzentajea denez, 0-1 bitarteko eskala batean irudikatuko da grafikoan.

Arabako lurraldean dago 2005-06 ikasturtean DBHko 3 eta 4. mailetan eskola utzi dutenen kopururik handiena; hiru lurraldeetako batezbestekotik gora dagoen bakarra da (0,34).

Eskola utzi dutenen ehunekoa ikastetxeen sarearen arabera

	3 eta 4. mailako ikasleak	Uzteak	Ehunekoak
Publikoa	7.026	28	0,40
Itunpekoa	9.671	28	0,29

Eskola-uztea ikastetxeen sarearen arabera



Herri ikastetxeetan eskola utzi duten ikasleen batezbesteko ehunekoak itunpeko ikastetxeena baino handiagoa da; izan ere, hiru lurraldeetako batezbesteko kopuru orokorraren azpitik dago.


Eskola utzi duten ikasleak dauden ikastetxeen ehunekoak

Sarea	Ikastetxe kopurua Lagina	Uzteak distuzten ikastetxeen kopurua	Ehunekoak
Publikoa	58	13	22,4
Itunpekoa	79	18	22,8

Lagineko ikastetxe publikoetatik %22,4k eskola-uzteren bat dute, eta arazo hori duten itunpeko ikastetxeei dagokien ehunekoak hauxe dugu: %22,8.

Eskola uzten duten ikasleen ehunekoak lurralde eta sarearen arabera

Lurraldea	Publikoa			Itunpekoa		
	Ikasleak orotara	Uzteen kopurua	%	Ikasleak orotara	Uzteen kopurua	%
Araba	1.008	6	0,60	1.553	7	0,45
Bizkaia	3.580	15	0,42	5.040	13	0,26
Gipuzkoa	2.438	7	0,29	3.078	8	0,26



Datuak lurraldeen eta ikastetxeen titularitatearen arabera aztertuta ikusiko ditugunez, Gipuzkoan eskola uzten dutenen ehunekoa bertsua da ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan, eta bi ehunekook EAEko hezkuntza sistemaren eskola-uzteen batezbestekoaren azpitik daude.

Bizkaian, berriz, ikastetxe publikoen eskola-uzteen ehunekoa handiagoa da, batezbestekoa baino 0,08 puntu gehiago; itunpeko ikastetxeetan 0,08 puntu gutxiago dugu batezbestekoaren azpitik.

Araban handiagoa da ikastetxe publikoen eskola-uzteen kopurua (0,60) handiagoa da itunpekoetan baino (0,45), baina bi sareotan eskola-uzteen batezbesteko maila EAEko batezbestekoa baino handiagoa da (0,34).

EAEko eskola-uzteen gaineko datu orokorrak ezagututa, ikastetxeen zuzendaritzen informazioa biltzen da, baina hezkuntza sistema utzi duen ikasleren bat izan duten ikastetxeei dagokiena —31 ikastetxeak—; izan ere, ikasleak eskola uztera bultzatu dituzten kausak edo arrazoiak ematen dira.

Eskola uztearen zioak ikastetxeetako zuzendaritzen arabera

Eskola-uzteari eta eskolara ez agertzeari buruzko eremu teoriko guztien ezaugarri nagusia izan da banakoa soilik hartzea aintzat, bestelako erreferentziak kontuan izan barik.

«Arrisku faktoreak deitu ohi direnak ezarri dira (...) Alde batetik gizarte arriskua aipatzen da, eta bestetik arrisku akademikoa.(...) Faktore horiekin lotutako gizarte arloko desabantailak zenbat eta handiagoak izan, orduan eta arrisku maila handiagoa izango da porrota gertatzeko (Lee eta Burkam 2001). Eskolako arazoekin lotutako alderdiak biltzen ditu arrisku akademikoaren kategoriak, hala nola kalifikazio txarrak, hezkuntzako igurikapen txarrak, oinarrizko mailetan ikasturtea errepikatzea, diziplina arazoak, etab. (...) Era horretako zailtasunak konpondu ezik, metatze-efektua izango dute; izan ere, ikaslearen eskolako ibilbidean oinarrizko mailetan izan dezakete eragina zailtasunok.»¹

Ildo berean, hauxe dio A. Marchesik:

«Azterlan eta ikerketa guztietan agerian gelditu denez, kausa anitz eta ondorio anitz ditu eskola-uztearen arazoak. Arazoa jakineko faktore kausal batera mugatutako azterketa, zalantzarik gabe, azterketa partziala da, aldez aurretik mugatua. Badira zenbait ikasle eskolako sistemaren eskakizunak arrakastaz betetzeko zailtasunak dituztenak, eta prozesu horretan banako faktoreak daude inplikaturata, oso eremu ezberdinei dagozkienak: psikologikoetatik hasita ingurukoetaraino. Hezkuntzako faktoreak ere inplikaturata daude, eskolako edukiekin eta eskakizunekin lotuta, baita ikasgelan lan egiteko moduarekin eta zenbait ikasleek izan ditzaketen zailtasunei erantzuna emateko moduarekin ere. Familiaren eta eskolaren arteko kultura kontrajarriak dei genitzakeenekin lotutako faktoreak ere inplikaturata daude (...) Gizarte eta kulturako faktore zabalagoak daude tartean: irakasleen trebakuntza, gizarte balioak eta jarrerak, telebistaren eginkizuna, etab.

Problema konplexu guztiekin gertatu ohi den bezala, sarri-sarri elkarri eragiten diote hainbat faktorek».²

Ikasle batzuek hezkuntza sistema uzteko arrazoiak ezagutzeko interesa dago, ikastetxeetako zuzendaritzaren arabera: ikastetxeei ikaskuntza bideak emango dizkieten elementuak lortzeko interesa dago, faktoreetan esku-hartze goiztiarra eskura izatea ahalbidetuko duten elementuak —arriskutsutzat jotzen

¹ REICE (Revista Electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación), 2006. 4. bol, 1. zk.

² Álvaro MARCHESI eta Carlos HERNÁNDEZ GIL (coords.): *El Eskola porrota. Una perspectiva internacional*. Madril. Alianza, 2003.

direnak—, baita neurriak abiarazteko ere. Hala, ahal den neurrian zenbait jokabide gertatzea saihestuko da, hain zuzen ikastetxeak ikasleei eskaintzen dieten guztiarekiko interesik eza erakusten duten jokabideak.

Ikastetxeetako zuzendariak bete duten galdetegian balizko zenbait arrazoi planteatzen dira, ikasleak eskola uztera bultzatu dituztenak. Gai honen inguruko erantzuna eman dute soilik galdetegia aplikatu den ikasturtean eskola-uzteren bat izan den hogeita hamaika ikastetxetan. Hortaz, berrogeita hamasei ikasleri dagokie soilik, eta ezin daiteke orokortu eskola utzi duten ikasle-multzo osora, baina biderapena emateko baliagarria izan daiteke.

1etik 5erako eskalan agertzen da arrazoi edo kausa bakoitzaren eragin-maila (eraginik ez egotetik eragin handia izatera). Azterketa egiteko, eskala txikiagoan taldekatu da; hala, 1ak eraginik eza adierazten du, 2k eta 3k eragin ertaina erakusten dute eta 4k, eta 5ek, berriz, eragin handia. Eskola uzteko arrazoi nagusi bakoitzaren eragin-maila agertzen da taulan:

Eskola uztea eragin duten zioen ehunekoa

	Eraginik ez	Eragin ertaina	Eragin handia
Arazo pertsonalak	25,8	9,7	64,5
Ikasteko motibaziorik eza	22,6	16,1	61,3
Familia desegituratua	29,0	12,9	58,1
Eskola porrota	35,5	25,8	38,7
Familiak ez ditu ikasketak baloratzen	35,5	29,0	35,5
Gizarte inguru kaltetuak	48,4	29,0	22,6
Gaitasunik eza	58,1	22,6	19,4
Programak eta beharrak bat ez etortzea	58,1	22,6	19,4
Ikastetxearekiko loturarik eza	51,6	32,3	16,1
Familiaren mugikortasuna	67,7	19,4	12,9
Ikaskideekin erlazionatzeko arazoak	61,3	29,0	9,7
Eskola ingurunea ez da batere erakargarria	61,3	32,3	6,5
Zigorrak pilatzea	83,9	9,7	6,5
Ez da tutoretzarik egiten	64,5	32,3	3,2
Irakasleen itxaropen txikiak	67,7	32,3	—
Irakasleekin erlazionatzeko arazoak	74,2	25,8	—

Eragin handiaren mailaren arabera ordenatua.

Taulan ikus daitekeenez, eragin handiena duten arrazoiak ikasleen arazoekin eta familiekin daude lotuta. Azterketa sakonagoa egiteko, honako ingurune hauekin lotu dira eskola uzteko azaldu diren arrazoi edo kausa guztiak:

- ikasleen arazo pertsonala,
- gizarte-familia
- eskola.

Honen bidez jakin nahi da ea lagineko ikastetxeetako zuzendarien iritziz ingurune horietako bati lotutako arrazoiak diren ikasleek eskola uzteko erabakigarrienak. Azterketa hori egin ahal izateko, eragin handiaren indizea hartu da kontuan. Honelako sailkapen hau egin da:

Ikasleen ingurunea: arrazoi pertsonalak	Eragin handia
Arazo pertsonalak	64,5
Ikasteko motibaziorik eza	61,3
Eskola porrota	38,7
Gaitasunik eza	19,4
Ikastetxearekiko loturarik eza	16,1
Ikaskideekin erlazionatzeko arazoak	9,7
Zigorak pilatzea	6,5
Irakasleekin erlazionatzeko arazoak	0,0

Arrazoi pertsonalen artean, ikasteko motibaziorik eza eta arazo pertsonalak daude lehen tokietan, ondoren eskola porrota dago, eta askoz neurri txikiagoan gaitasunik eza dugu.

Ikasteko motibaziorik eza, sarritan, eskola porrotarekin lotzen da eta eskola porrota, era berean, motibaziorik ezaren ondorioa izan daiteke. Porrotarekin zuzenean lotuta egon litekeen gaitasunik eza askoz gutxiago hartzen da aintzat ondorioen gaineko ehunekoetan.

Izan ere, nahiz eta ikastetxeetako zuzendaritzak lehen tokietan aipatu dituzten bi faktoreak ikasleen arrazoi pertsonalen barruan sartu diren eta, beraz, barne faktoretzat hartu diren, interesa pizten duen giroa oinarri ona da motibaziorako. Hala ere, motibazioak kanpoko osagai bat du. Ildo horretako planteamen-
duak, beraz, ikastetxeari ere badagozkio: giroa aldatzeko posibilitatea, ikastetxekoa izateko sentimendua eta lotura handitzea ikastetxearen erantzukizuna dira eta irakasle guztien partaidetza behar dute.

Gizarte-familiaren ingurunea	Eragin handia
Familia desegituratua	58,1
Familiak ez ditu ikasketak baloratzen	35,5
Gizarte ingurune kaltetua	22,6
Familiaren mugikortasuna	12,9

Lagineko ikastetxeetako zuzendaritzen arabera, gizarte-familiako inguruneak ere eragin handia izan du ikasleek eskola behar baino lehen uzteko prozesuan, eta arrazoi horien artean ehunekorik altuena duena familiaren desegituraketari dagokio; ondoren, familiak ikasketak ez baloratzea, taula orokorrean hirugarren eta bosgarren tokian dagoena ehuneko altuak dituelako.

Familiak seme-alaben ikasketei ematen dieten balioak eragin handia du; izan ere, DBHko lau mailetan familiaren igurikapenen eta errendimendu akademikoaren arteko erlazioari buruz eginiko ikerlan longitu-

dinalaren arabera (Marchesi eta Martín 2002)³, eragin handia du ikasturte guztietako arlo guztietan, eta eutsi egiten zaio hezkuntzako testuinguruaren eta ikasleak azterturiko arlo guztietan lorturiko emaitzen eragina kontrolatzen denean.

Eskolako ingurunea	Eragin handia
Programak eta beharrak bat ez etortzea	19,4
Eskolako ingurunea ez da bat ere pizgarria	6,5
Ez da tutoretzarik egiten	3,2
Irakasleen itzaropen txikiak	—

Eskolako ingurunearekin lotutako arrazoen ehunekoetan jaitsiera nabaria dago. Hala, lehenbizikoak zortzigarren tokia du taula orokorrean. Gogoratu beharra dago eskola utzi duten 56 ikasleei buruzkoa dela eskola uzteko arrazoen gaineko azterketa.

Dagoeneko esana dugunez, azterketa egiteko errealitatearekiko konparaketa egin behar bada ere, interpretazioa egiterakoan beti hartu behar da kontuan ezin azaldu daitekeela hezkuntza bezain fenomeno konplexua faktore bakar baten bitartez. Azaldutako faktore guztiek sistema bat osatzen dute eta aipaturiko ingurune guztiek elkarri eragiten diote halako moldez non ikasleek faktore horiek ikastetxeko bizitza errazten edo galarazten duten hezkuntza ingurunetzat hartzen baitituzte. Hala, bada, gizarte inguruneak, familiako bizitzak eta hezkuntza esperientziak eragin erabakigarria dute ikasleek ikasteko duten motibazioan. Hezkuntzako esperientziarekin batera, arrakasta edo porrota izan deneko esperientziak daude, neurri batean gaitasunekin lotuak, baina banakoei emandako errefortzuko laguntzekin ere zailtasunak izan direnean. Ikasleen gaitasunari hainbat faktorek eragiten diote: gaitasunetan beretan dagoen konfiantza edo mesfidantza, barne-estimua, etab. Horiek guztiek ikasle bakoitzak hezkuntzan izan duen esperientziaren arabera eboluzionatzen dute eta ez daude nahitaez maila intelektualak baldintzatuta. Azken batean, eskola uztea azken emaitza da, ikasleak egindakoak gizartearen onarpena lortzen dueneko bestelako jarduerak eta inguruneak bilatu nahian.

Eskola uzteko zioak agertzen dira grafikoan, eragin handiena duten ehunekoen arabera antolatuta, eskola utzi duten ikasleren bat duten ikastetxeetako zuzendaritzen balorazioaren arabera.


Gizarte-familiaren ingurunea Eskolako ingurunea Ikaslearen ingurunea.

Ikus daitekeenez, erantzun-profila oso antzekoa da; lagineko ikastetxeetako zuzendaritzen ustez, ikasleen arrazoi pertsonalak eta ikasleen gizarte-familiaren inguruneko arrazoiak dira eragin handia izan dutenak ikasleek hezkuntza sistema uzterako orduan, DBHko 3 eta 4. mailetan hain zuzen.

Arrazoen artean, eskolako ingurunea aipatzen duen lehenak (%19,4) ikasleen beharren eta haiei eskaintzen zaizkien programen edo curriculumen arteko ezberdintasunarekin du lotura. Beste atal batean, desoreka hori konpontzeko hezkuntza sistemak abiarazten dituen neurriak aztertuko dira; hala, 16 urtetik gorako ikasleek hezkuntza sistema behar baino lehen ez uztea lortu nahi da.

³ MARCHESI, A. eta MARTÍN, E. (2002): *Evaluación de educación secundaria. Fotografía de una etapa polémica*. Madrid.

Eskola uzteko arrazoiak



Eskola uzteko zergatiak edo zioei buruzko balorazio hori, neurri batean, bat dator Ikuskaritzak 2005/06 ikasturteari buruz eginiko txostenak dakarren iritziarekin. Izan ere, zuzendaritzen %52,1en arabera, «*familiak ikastetxean jasotzen den hezkuntza baloratzea da arazoa, sustapena eta etorkizunean laneratzeko baliabidea den aldetik*»⁴

Nahiz eta ikerketa honetan ikastetxeetako zuzendaritzek, antza denez, ikasleek eskola uzteko arrazoi nagusiak aztertzean eskola inguruko arrazoiak garrantzirik ematen ez dieten, programa espezifikoak eta ikastetxeetako prebentzio neurriak buruzko atalean aztertzen denez (54. or.), ahalegin handiak egiten dituzte curriculumen inguruko neurriak hartzeko eta beste arlo batzuetan eragina izateko. Ikuskaritzaren txosten horrek dakarrenez:

«*ikastetxeetako zuzendaritza taldeen %34k diote ikastetxeak Eskolara ez agertzearen gainean duen kontrola hobetu litekeela, irakasleen inplikazioa hobetu (batez ere tutoreena), ezarritako epeak errespetatuz, arazoa antzeman eta berehala jardunez, familiarekiko eta ijitoen elkarteekiko harremanak indartzuz, ikastetxe batetik bestera pasatzen diren ikaslearen gaineko kontrol hobea eraman ez...*»

3. Kontrol neurriak ikastetxeetan

Ikastetxeek neurriak ezartzen dituzte ohiko ikasleekin zein eskolara ez agertzean edo hezkuntza sistema uzteko arriskuan dauden ikasleekin, eskola utz ez dezaten. Kontrol neurriak eta prebentzio neurriak dira, eta batzuetan huts-egiteak behin eta berriz gertatu direnean jartzen dira abian.

Prebentziorako zein arazoa zuzentzeko modu bat behaketa sistematikoa da, egoeraren eboluzio-diagnostikoa ahalbidetuko duena; horretarako, ikasleak ikasgelara egunero joaten diren ala ez jakiteko modua ematen duen edozein sistema erabil daiteke.

⁴ HEZKUNTZAKO IKUSKARITZA: *Plan Orokorra. Ikasleriaren absentismo-kontrola*. 2005/06 ikasturtea. EAEren txostena.


Atal honen hasieran, ikastetxeek ikasleen huts-egiteak biltzen diren ala ez aztertzen da, baita ikastetxeetako zuzendaritzei zein aldizkakotasunekin jakinarazten zaizkien ere. Jarraian, ikaslearen huts-egitea ikusi ondoren ezarri beharreko kontrol neurriak aztertuko dira.

- **Huts-egiteak biltzeko aldizkakotasuna**

Ikasleen asistentziaren kontrolari dagokionez ikastetxeetan sistematizaziorik dagoen ala ez jakin nahi da, baita kontrol horren aldizkakotasuna ere.

Huts-egiteak biltzen dira


	Ikastetxeak	Ehunekoa
Egunero	118	86,1
Astero	17	12,4
Ez dira biltzen	1	0,7
ED/EE	1	0,7
Orotara	137	100,0



Ikastetxeen %98,5ean huts-egiteak egunero edo astero biltzen dira, eta ikastetxe bakarrak esan du ez dituela biltzen.

Ikastetxeen %75ek —publikoek zein itunpekoek— egunero biltzen dituzte huts-egiteak, itunpeko ikastetxeen sareko ehunekoa ikastetxe publikoena baino askoz handiagoa bada ere (93,7); izan ere, %22k esan du huts-egiteak astero biltzen dituela.

Huts-egiteak biltzen dira



- Huts-egiteak ikastetxeko zuzendaritzari jakinarazten zaizkio**

Ikastetxean asistentziari buruzko kontrol sistematikoari esker, garaiz jakin daiteke klasera ez doan ikasleren bat dagoen ala ez eta, beraz, eskola uzteko arriskurako prozesuan murgiltzen dena. Ezinezkoa da neurriak abiaraztea horiek gomendatzen dituzten datuen berri ez badago.

Huts-egiteak zuzendaritzari jakinarazten zaizkio

	Ikastetxeak	Ehunekoak
Egunero	33	24,1
Astero	72	52,6
Ez dira jakinarazten	21	15,3
ED/EE	11	8,0
Orotara	137	100,0

Nahiz eta huts-egiteen bilketa ikastetxeen %100ean egiten den, ikastetxeen %15ek ez dizkio jakinarazten zuzendaritzari. Gerta liteke kontrol horren ardura duena zuzendaritza ez izatea eskolaren antolaketa dela-eta, etapako koordinatzailea edo beste pertsona bat baino. %77k gehienez astebeteko epean jakinarazten ditu huts-egiteak.

Ehunekoak por titularidad de los Ikastetxeak

	Egunero	Astero	Ez dira jakinarazten
Publikoak	17,2	65,5	8,6
Itunpekoak	29,1	43,0	20,3

Ikastetxeen titularren araberako azterketan ikus daitekeenez, zuzendaritzari huts-egiteak jakinarazteko epe-rik ohikoena astebetekoa da, eta ehuneko hori askoz handiagoa da irakaskuntza publikoan. Itunpeko ikaste-

txeetan egunero jakinarazten dira; publikoan baino hamabi puntu gehiagoko ehunekoa dago. Eguneroko jakinarazpena egiten ez duten itunpeko ikastetxeen portzentaia %20koa da, eta %7,6k ez du erantzuten. Publikoetan soilik %8,6k dio ez direla huts-egiteak jakinarazten eta ehuneko berak ez du erantzunik ematen.

Ikasleak kontrolatzeko neurriak

Ikastetxeak hartzen dituen neurrien gaineko azterketa deskriptiboa egin da, eskolara ez agertzea gertatzen denean edo eskolara ez agertzea hasten denean hartzen diren neurriei buruzkoa. Lagineko ikastetxe guztiek hartzen duten proposaturiko neurriren bat edo hainbat neurri.

Halako moldez egin dira galdetegiko galderak non ohikotzat jotzen dugun ikasleriaren eta ikastetxearen arabera hezkuntza sistema uzteko arriskuan egon litekeen ikaslearen arteko azterketa bereizia egiteko modua ematen baitute.

Bereizketa horren xedea ikastetxeek estrategia espezifikoak ezartzen dituzten ala ez egiaztatzea da, uneko huts-egite bat dela baloratzen bada, edo huts-egiteak metatuta egoera larriagoak izan daitezkeela pentsa daitekeenean.


• Zer egiten da ikasleek huts-egiteak justifikatzen ez dituztenean

Ikastetxeek huts-egite bati edo huts-egiteak behin eta berriz gertatzen diren egoera bati erantzuna emateko hartzen dituzten neurriak konparatuta ikus daitekeenez, hazkunde orokorra dago jarduketaren guztietan egoera errepikatzen denean, baina ehunekoen diferentziarik handiena arazoa beste zerbitzu eta erakunde batzuetara bideratzen denean ematen da, eta banakoa bideratzeko lana egiten da ikasleak behin eta berriz errepikatzen baditu huts-egiteak. Espezifikatu gabeko beste neurri batzuk abiarazteari buruzko ehunekoa ere nahikoa handiagoa da.

Ikastetxeek hartzen dituzten neurrien konparaketa egiten bada ikastetxe publikoaren edo itunpeko ikaslearen artean, joera bera ikusten da eta diferentziarik handiena (ehuneko handiagoa ikastetxe publikoan) arazoa beste zerbitzu eta erakundeetara bideratzea erabakitzean eta banako biderapena egitean ematen da ikaslearen jokabidea behin eta berriz gertatzen denean. Ehuneko handiagoa da ere itunpeko ikastetxeetan espezifikatu gabeko beste neurriak abiarazteari dagokionez.

Lurraldeen araberako azterketan ikus daitekeenez, ikastetxe-sarearen araberako azterketako joera bera dago, hots, eskolara ez agertzea behin eta berriz agertzen denean, asko egiten du gora arazoa beste

Konparazio grafikoa. Ikastetxearen neurriak




zerbitzu batzuetara bideratzen duten, ikaslearekin banako biderapena egiten duten eta zenbait neurri hartzen duten ikastetxeen ehunekoak, Araban zein Bizkaian eta Gipuzkoan.

- **Ikaslearekin elkarrizketa egiteko huts-egiteen kopurua**

Garrantzitsua da jakitea zenbait neurri abiarazteko izan behar diren huts-egiteen kopurua. Huts-egiteen kopurua txikia bada, neurri prebentiboak erabiliko dira seguru asko, baina hutsegiteen kopurua handia bada, nahikoa izango da alarma pizteko eta esku-hartzeak erreakzio izaera izango du, eta oro har irtenbide konplexuagoa izango da, zeren eta eskolara huts egiten duen ikasleak finkatuta duen jokabideari aurre egin beharrean egongo baita ikastetxea.

Ikaslearekin elkarrizketa egiteko huts-egiteen kopurua

1etik 3ra	83,9
4tik 6 ra	9,6
7 edo gehiago	2,8
ED/EE	3,6



Ikastetxeen %84k nahikoa irizten dio huts-egite bat edo bizpahiru huts-egite izatea irakasleak huts egin duen ikaslearekin elkarrizketa izateko. Gehienetan erantzun azkarra ematen da justifikatu gabeko huts-egiteen aurrean.

Datu horiek ikastetxeen titularitatearen arabera aztertuta ikus daitekeenez, itunpeko ikastetxeetan elkarrizketa gehiago egiten da huts-egite bat edo bizpahiru huts-egite izan dituen ikaslearekin (%88,6) sare publikoko ikastetxeetan baino (%77,5).

Lurraldeen arabera, Gipuzkoan ehunekorik altuena dugu huts-egite bat edo bizpahiru huts-egite dituen ikaslearekin elkarrizketak egiteari dagokionez (%87,8); ondoren Araban (%83,3) eta Bizkaian ikastetxeen %81,5ek egiten ditu elkarrizketak.


- **Nork egiten du elkarrizketa ikaslearekin**

Ikasleen absentismo kasuetarako ezarritako protokolo bat izatea lagungarria izango da ikastetxearentzat eta hainbat profesionalentzat, eta esku-hartzeko jardunerako eta «noraezean» ibiltzea eta denbora eta ahaleginak ez galtzea saihestuko du; izan ere, horrelakoak galdu egiten dira kasu bakoitzean esku hartu behar

duena zein den argituta egon ezik. Azterketa honetan bereiztu egiten dira ohiko ikasleak eta eskola uzteko arriskuan dauden ikasleak, eta kasu bateko eta besteko neurrien ehunekoaren arteko konparaketa egiten da.

	Edozein irakasle	Tutorea	Arduradun espezifiko	Zuzendaria	Orientatzailea	Kanpoko pertsona
Ohiko ikaslea	19,7	96,4	10,9	15,3	20,4	1,5
Arriskuan dauden ikasleak	6,6	67,9	16,1	53,3	54,7	10,2

Ikasleekin elkarrizketa egiten duena



Gehienbat tutoreak egiten du berba ohiko ikasleekin zein hezkuntza sistema uzteko arriskuan dagoen ikaslearekin. Ondoren, ohiko ikasleen kasuan, bideratzailea eta edozein irakasle agertzen da antzeko ehunekoekin; hezkuntza sistema uzteko arriskuan dauden ikasleen kasuan, berriz, bideratzailea eta zuzendaria dira portzentaiaren kasuen %50etan baino gehiagotan kasu bietan.

Ohiko ikasleekin elkarrizketa egiteko erantzukizuna batez ere tutoreei dagokie, baina eskolara ez agertzean edo eskola uzteko arriskuan dauden ikasleak direnean, erantzukizuna gehienbat ikastetxeen zuzendaritzetara eta biderapen-zerbitzuetara bideratzen da; azken horietara batez ere ikastetxe publikoetan.

Itxura guztien arabera, ikastetxea mobilizatu egiten da (tutorea, zuzendaritza, biderapen departamendua) ikasleak hezkuntza sistema uzteko arriskuan daudenean. Horrek guztiak adierazten duenez, prozesu bat hasten da, CIDEK⁵ eginiko agirian aipatzen denaren ildotik: «Eskola uzteko arriskuan dauden ikasleak ikasgelako arazotzat hartu beharrean, taldearen erantzukizuntzat hartzen dira hobetzeko posibilitateak izanik».

Kontrol neurriak familiarekin

Ikastetxeak Eskolara ez agertzean izan diren ikasleekin zuzenean abiarazten dituen neurriak aipatu berri dira. Familiak funtsezko faktorea dira eta, beraz, ikastetxeak aztergai dugun arazoaren inguruan garatuko duen edozein ekintzatan sartu beharko dira. Hori dela-eta, hezkuntza sistema uzteko arriskuan

⁵ CENTRO DE INVESTIGACIÓN Y DOCUMENTACIÓN EDUCATIVA (CIDE) (2005): «El absentismo escolar como reto para la calidad educativa». Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa. Madril.

dauden ikasleen familiekin hartzen diren neurrien azterketa deskriptiboa egiten da atal honetan, hezkuntza sistemaren nahitaezko eskolatze-aldia amaitu barik daudenak, eta neurri horiek ohiko ikasleen familiekin hartzen diren neurriekin konparatzen dira ikasleek justifikatu gabeko huts-egiteak dituztenean.


• ***Ikastetxeak huts-egitea familiari jakinarazteko behar duen denbora***

Absentismo jokabiderik gerta ez dadin, garrantzitsua dela dirudi ikastetxeak, berehala abiarazten dituen neurriez gain, familien laguntza bilatzea, familiak arazoaz jabeaz daitezen eta hasita dagoen egoera errotik aldatzeko erantzukizuna har dezaten.

Ikastetxeak huts-egitea familiari jakinarazteko behar duen denbora

	Ohiko ikaslea	Arriskuan dauden ikasleak
Egun 1	43,1	73,0
2 egun	27,0	13,1
3 egun	14,6	2,9
4 egun	11,7	2,9
5 edo gehiago	2,2	0,7
ED/EE	1,5	7,3

Huts-egitea familiari jakinarazteko denbora



Ohiko ikasleen familiei zein eskola uzteko arriskuan dauden ikasleen familiei gehienez hiru eguneko epean ematen zaie berria kasuen %85ean baino gehiagotan. Hala eta guztiz ere, Eskolara ez agertzean edo eskola uzteko arriskuan dauden ikasleen %73an egun bateko epean jartzen da familia jakinaren gainean. Horrek agerian uzten du bizkorrago esku hartzen dela ikasketak uzteko arriskuan dauden ikasleak direnean. Ikasle horien kasuan, *ez daki-ez du erantzuten* atalari dagokion ehunekorik altuena, seguru asko arazo hori ez duten ikastetxeena izango da.

Joera berari eusten zaio ohiko ikasleekin eta eskola uzteko arriskuan dauden ikasleekin, baina azken ikasle horien kasuan familiekiko komunikazioa askoz gehiagotan izaten da egun bateko epean, eta haxe gertatzen da itunpeko sareko ikastetxeetan zein herri ikastetxeetan.


Hiru lurraldeetako ikastetxeen funtzionamendua aztertzen badugu seme-alabak eskola huts egin izana familiari jakinarazteko behar izaten diren egunei dagokienez, antzeko funtzionamendua ikusten da batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan ohiko ikasleekin. Eskola uzteko arriskuan dauden ikasleekin antzeko datu horiek Arabara ere hedatzen dira, eta harremanik gehienak huts-egitea izan den lehen egunean izaten dira.

• **Familiarekin harremanetan izateko moduak**

Zein bitarteko erabiltzen du ikastetxeak familiari Eskolara ez agertzearen berri emateko? Bitarteko bat edo beste bat erabiltzen da ikasleak eskola uzteko arriskuan badaude? Bi egoera horien arteko konparaziozko azterketa egingo dugu.

Familiarekin komunikatzeko moduak. Ehunekoa

	Telefonoa	Eskutitza, hori jaso izanari buruzko agiriarekin	Elkarrizketa
Ohiko ikaslea	96,4	21,2	47,4
Arriskuan dauden ikasleak	70,1	42,3	75,2



Ehuneko altuak direla ikusita, ikastetxeek garrantzi handia ematen diote familiekin harremanak izateari seme-alabek ikastetxean izandako huts-egiteak jakinarazteko.

Telefonoa da ohiko ikasleen familiekin harremanetan izateko bitartekorik ohikoena. Eskola uzteko arriskuan dauden seme-alabak dituzten familien kasuan, gehien erabiltzen den komunikazio-mota elkarrizketa da, eta ondoren telefono bidezko informazioa. Gutuna jaso izanaren egiaztagiaren bidezko jakinarazpenaren ehunekoa bikoiztu egiten da eskola uzteko arriskuan dauden ikasleen kasuan, eta batez ere sare publikoko ikastetxeetan (%59, eta itunpeko ikastetxeetan, berriz, %30).

Hiru lurraldeetan gora egiten dute nabarmen elkarrizketa-kopuruak eta gutuna jaso izanaren egiaztagiaren bidezko jakinarazpen-kopuruak familiekin eskola uzteko arriskuan dauden ikasleak direnean, eta behera egiten du telefonoa erabiltzen dutenen ehunekoak.

Ikastetxeen %70,8k zehaztuta ditu ikasleen huts-egiteak justifikatzen dituzten arrazoiak (lagineko 137 ikastetxeetatik 97k). Kasuen %62an (85 ikastetxe), familiak emandako justifikazioek bat etorri behar dute ikastetxeak ezarritakoekin huts-egitearen justifikazio gisa onartzeko.

Ikastetxeak zehaztuta ditu huts-egiteak justifikatzeko arrazoiak

	Kop.	Ehunekoa
Bai	97	70,8
Ez	36	26,3
ED/EE	4	2,9

Familiaren arrazoiak bat etorri behar dute ikastetxeak zehazturikoekin


	Kop.	Ehunekoa
Bai	85	62,0
Ez	35	25,5
ED/EE	17	12,4

- Nork jakinarazten dio ikaslearen huts-egitea familiari**

Ikasleekiko kontrol neurrien atalean bezala, informazioa bildu da ikaslearekin egin beharreko elkarrizketa egin behar duenari buruz; atal honetan familiarekin harremanetan jartzen diren profesionalak zein diren azaltzen dira huts-egiteak gertatzen direnean. Azterketa egiteko, eskola uzteko arriskuan dauden ikasleak eta ohiko ikasleak konparatuko ditugu.

Huts-egiteak familiari jakinarazten dizkion profesionalak. Ehunekoa

	Edozein irakasle	Tutorea	Arduradun espezifikoa	Zuzendaria	Orientatzailea	Kanpoko pertsona
Ohiko ikaslea	9,5	94,9	13,1	12,4	9,5	1,5
Arriskuan dauden ikasleak	3,6	86,1	18,2	43,8	25,5	5,8



Ikasleekin eginiko elkarrizketarekin gertatzen den bezala, gehienbat tutoreak dira familiarekin harremanetan jartzen direnak, bai ohiko ikasleei dagokienez, bai hezkuntza sistema uzteko arriskuan dauden ikasleei dagokienez. Azken ikasle horiek direnean, gaia beste profesional batzuek jorrazteko joera ikusten da hala nola ikastetxeko zuzendaritzak, orientatzaileak edo ikastetxe-mailan gai horiekin arduratzen den pertsona batek.

Eskola uzteko arriskuan dauden familiarekin zein egoera horretan dauden ikasleekin izaten diren harremanen eremuak ikastetxearekin lotura handiagoa du ikasgelarekin baino.

Ez da ikusten ezberdintasun handirik ikastetxeen sarea aztertzean; ezberdintasunik handiena orientatzailearen esku-hartzean ikusten da; izan ere, ikastetxe publikoetan bikoiztu egiten da itunpeko ikastetxeekiko ikasleak eskola uzteko arriskuan daudenean.

Lurraldeka aztertzen baditugu datuak, Bizkaian bideratzaileen esku-hartzean ehuneko txikiagoa da, ohiko ikasleen zein arriskuan dauden familiei huts-egiteak jakinarazteari dagokionez.


Arabako ikastetxeetako zuzendaritzen esku-hartzea handiagoa da beste bi lurraldeetako baino Eskolara ez agertzean edo eskola uzteko arriskuan dauden ikasleen familiak badira.

- **Familiarekin harremanetan jartzeko helburua**

Ikastetxeak eskolara huts egiten duten edo justifikatu gabeko huts-egiteak dituzten ikasleen familiekin harremanetan jartzeko duen xedea ezagutu nahi da, baita ohiko ikasleen edo hezkuntza sistema uzteko arriskuan dauden ikasleen arabera ezberdintasunak dauden jakitea ere.

Familiarekin elkarrizketa egiteko helburua. Ehunekoa

	Egoeraren berri ematea	Baterako neurriak ezartzea	Neurriak hartzeko eskatzea	Beste zerbitzuetara bideratzearen berri ematea
Ohiko ikaslea	94,2	68,6	49,6	14,6
Arriskuan dauden ikasleak	82,5	84,7	70,1	59,1



Eskola uzteko arriskuan dauden ikasleen kasuen %50 baino gehiagotan familiari jakinarazten zaio beste zerbitzu eta erakunde batzuetara bideratu izana, esku har dezaten, zeren seguru asko ikastetxearen neurriek lehenago porrot egin baitute. Familiei laguntzeko eskaeren ehunekoak ere askoz altuagoak dira ikasle horiekin.

Ikastetxeen funtzionamendua antzekoa da ohiko ikasleekin edo eskola uzteko arriskuan dauden ikasleekin; hala eta guztiz ere, ehuneko handiagoak dira hezkuntza sistema uzteko arriskuan dauden ikasleak direnean, salbu eta egoeraren berri familiari emateko bileren kasuan. Nabarmentzekoa da ikastetxe publikoen %71k kasuak beste zerbitzu edo erakunde batzuetara bideratzeari buruzko informazioa ematen dutela; itunpeko ikastetxeetan, berriz %51k. Arazo larriagoaren ondorioz izan daiteke, ikastetxetik soilik eta familiarekin kontrolatzeko zailagoa.

Ohiko ikasleekin hiru lurraldeetan gehien erabiltzen den estrategia familiar informazioa ematea da seme-alaben huts-egiteei dagokienez. Ikasleak eskola uzteko arriskua dagoenean, eutsi egiten zaio estrategia horri baina gora egiten du harremanen kopuruak ikastetxeak eta familiak baterako neurriak bilatzeko.


- **Egoera zuzentzeko epea**

Eskolara ez agertzea antzeman ondoren eta ikastetxeak jokabide hori zuzentzeko prozesua hasi ostean, data jartzen da jokabidearen jarraipena egiteko eta, beharrezkoa bada, ezarritako planaren aldaketaren bat abiarazteko.

Neurriak jarraitzeko epea ezartzen da. Ehunekoak

	Ohiko ikaslea	Arriskuan dauden ikasleak
Aste 1	38,7	39,4
2 aste	4,4	8,0
3 aste	0,7	0,7
Hilabetea	3,6	1,5
Eperik ez	46,0	38,0
ED/EE	6,6	12,4

Egoera berrikusteko ezarritako epea



Epe bat ezarri da eskola uztearen edo Eskolara ez agertzearen arazoa jarraitzeko. Epe hori batez ere hamabost egunekoa da kasuen %43,1ean ohiko ikasleekin. Arriskuan dauden ikasleak badira, neurriak hartu dira epe horretan kasuen %47,4an.

Eskola-uzteak dituzten eta eskola-uzterik ez duten ikastetxeen arteko diferentzia konparatzen badugu, bi puntukoa dela ikusiko dugu eta %50aren ingurukoa da, bai ohiko ikasleei dagokienez, bai arriskuan dauden ikasleei dagokienez. Gehieneko epea hilabetekoa da bi ikastetxe-motetan.

Oso altua da jarraipen aldirik finkatzen ez duten ikastetxeen ehunekoa (ohiko ikasleen kasuan %46 eta arriskuan dauden ikasleen kasuan %38).

Ez dakiten edo erantzuten ez duten ikastetxeen ehunekoa beste batzuetan baino altuagoa da, seguru asko egoera horretan ez daudela uste dutelako.

Eskola-uztea duten eta eskola-uzterik ez duten ikastetxeetan hilabetean ezarritako jarraipenaren ehunekoa

	Ohiko ikaslea	Arriskuan dauden ikasleak
Ikastetxeak eskola-uztearekin	48,4	51,6
Ikastetxeak eskola-uzterik gabe	47,1	49,0

Eskola-uzteak dauden eta ez dauden ikastetxeen arteko konparaketa eginez, eta ohiko ikasleen eta eskola uzteko arriskuan dauden ikasleen artean ezberdintasunak badaude, ia ez dago ezberdintasunik. Eskola utzi duen ikasleren bat duten ikastetxeetan, gehienez hilabeteko epean egiten zaie jarraipena arazorik ez duten ikasleen %48,4ri, eta arazoak dituzten ikasleen kasuan, jarraipena %51,6koa da. Alde bera gertatzen da bi ikasle-moten artean eskola uzterik ez duten ikastetxeetan.

Apenas dago diferentziarik ikastetxeko titularraren arabera azterketan, zeren eta, kasu bietan ikus baitaiteke ezen, ikasleak eskola uzteko arriskuan daudenean, txikiagoa dela eperik jartzen ez denekoen ehunekoa.

Ikastetxearen neurrien konparaketari buruzko laburpen-taula, ohiko ikasleen edo eskola-uzteko arriskuan dauden ikasleen arabera. Ehunekoa

	Ohiko ikasleak	Eskola-uzteko arriskuan dauden ikasleak
Ikaslearekin elkarrizketa egitea	Tutorea 96	Tutorea 68
	Zuzendaria 15	Zuzendaria 53
	Orientatzailea 20	Orientatzailea 55
Familia lehen egunean jartzen da jakinaren gainean	Ikastetxeen %43	Ikastetxeen %73
Familia jakinarazi beharreko huts-egiteen kop. (1-3 huts-egite)	Ikastetxeen %87	Ikastetxeen %87
Harremanetarako bideak	Telefonoa 96	Telefonoa 70
	Elkarrizketa 47	Elkarrizketa 75
	Jaso izana duen eskutitza . . . 21	Jaso izana duen eskutitza . . . 42
Familiarekin harremanetan jartzea	Tutorea 95	Tutorea 86
	Zuzendaria 12	Zuzendaria 44
	Orientatzailea 12	Orientatzailea 26
Harremanen helburua	Egoeraren berri ematea 94	Egoeraren berri ematea 83
	Baterako neurriak 69	Baterako neurriak 85
	Familiari neurriak eskatzea . . . 50	Familiari neurriak eskatzea . . . 70
	Deribazioaren berri ematea . . . 15	Deribazioaren berri ematea . . . 59
Jarraipen-epea (gehienez hilabete)	Ikastetxeen %47	Ikastetxeen %50

Oro har, honako ondorio hau atera daiteke ikastetxeen arteko konparaketatik, ohiko ikasleak edo sistema uzteko arriskuan dauden ikasleak direnean:

- Neurriak indartu eta epeak laburtu egiten dira eskola sistema uzteko arriskuan dauden ikasleak direnean.

- Esku-hartzeak ikastetxeko beste profesional batzuk gehiago inplikatzeko dituzte, betiere tutoreari erantzukizunik kendu barik.
- Neurri formalagoak dira eta familien inplikazio handiagoa eskatzen dute.
- Baliteke punturik ahulenetako bat hauxe izatea: neurriak hartu ondoren, neurri jarraipena egitea planteatzen duten ikastetxeen ehunekoa %50ekoa izatea gehienez.

Beste zerbitzu eta erakunde batzuekiko lankidetzan aritzeko neurriak

Ikastetxeek ikasleen huts-egiteak nola kudeatzen dituzten eta kanpoko beste zerbitzu batzuekiko koordinazio-mota aztertzen da. Arazoa konpontzeko, batera esku hartu beharra dute erakundeek, justifikatu gabeko huts-egiteak dituzten ikasleekin edo haien ibilbidea ikusita eskolako sistema uzteko arriskuan dauden ikasleekin neurri zuzentzaileak hartze aldera.

Baldin eta ikastetxeak uste badu ikasleak justifikatu gabeko huts-egiteak dituela, egoera asko gertatzen dira⁶. Ikastetxeek zirkular bat jasotzen dute ikasturtearen hasieran, non egoeraren larritasunaren arabera jarduketara ezberdinak adierazten diren eta ikasleen huts-egiteen aurrean jarduteko protokolo bat ezartzen den. Ikastetxetik kanpoko prozesua hasiko da arazoa Hezkuntza Ikuskaritzari eta udalei jakinarazten zaienean (Bizkaia eta Gipuzkoa).

Hezkuntza Ikuskaritza eta udalekiko komunikazioa Eskolara ez agertzea behin eta berriz gertatzen den egiten da, hots, ikasleen huts-egiteak hilean %20tik gorakoak direnean. Ikastetxetik kanpoko neurriak eta esku hartzeko neurriak ezartzea da helburua, noiz-eta ikastetxean jarritako neurriak egoera konpontzeko nahikoak izan ez direla uste denean.

• **Arazoa Hezkuntza Ikuskaritzari jakinaraztea**

Justifikatu gabeko huts-egiteak Ikuskaritzari bidaltzea	Kop.	%
Hilaren 5a baino lehen	55	40,0
Hilaren barruan	18	13,0
Ez dira bidaltzen	57	42,0
ED/EE	7	5,1
Orotara	137	100,0


Ikastetxeek huts-egiteak nahitaez bildu eta erregistratzen dituzte, eta lagineko ikastetxeen erdiak baino gehiagok (%53k zehazki) hileko lehen 5 egunen barruan edo hilearen barruan bidaltzen dituzte. Hala eta guztiz ere, lagineko ikastetxeetako zuzendarien %42k dio ez dutela bidaltzen Ikuskaritzara justifikatu gabeko huts-egiteen partea. Ehuneko horren zati bat gerta liteke absentismo egoeran dauden ikasle batzuek 16 urte beteta dituztelako eta ikastetxeek ez dutelako nahitaez Hezkuntza Ikuskaritzara bidaltzen diren erregistro-orrietan huts-egiteak bildu beharrik.

2006-07 ikasturte honetan, hileko kontrolen neurri osagarri gisa, ekintza zuzentzailea abiarazi du Ikuskaritzak. Horren arabera, Ikuskaritzak hiru hilero egin behar du sintesi edo laburpen bat ikastetxeen Eskolara ez agertzeari eta Eskolara ez agertzea errotik desagerrarazteko egiten diren jarduketei buruz.

⁶ Hiru lurretan ikasleen huts-egiteen 2 erregistro-orri daude, horiek bete eta Hezkuntza Ikuskaritzara eta Udalera bidali behar dira (Bizkaia y Gipuzkoa) hilaren 5a baino lehen. Bata deseskolariotziko hileko erregistroa da; bestea %20tik gorako Eskolara ez agertzea duten ikasleen hileko erregistroa da.

Ikastetxe guztiek bete behar dute Eskolara ez agertzeari eta Eskolagabetzeari buruzko laburpen hori, egin beharreko erregistrorik ez badute ere.

Justifikatu gabeko huts-egiteak Ikuskaritzari bidaltzea. Ehunekoa



Ikastetxe publikoen erdiak baino gehiagok hileko 5 egunen barruan bidaltzen du huts-egiteen parteak; itunpeko sareko ikastetxeen %30ek, berriz, epe horretan bidaltzen du.

Lurraldean arabera, Arabako ikastetxeak dira huts-egiteen parteak Ikuskaritzara gehien bidaltzen dituztenak. Ikastetxeen %89k hilearen lehen 5 egunen barruan edo hilean bidaltzen dute. Bizkaian ikastetxeen %55,7k epe horretan bidaltzen ditu huts-egiteak; Gipuzkoan, berriz, lagineko ikastetxeen %36,8k bakarrik bidaltzen ditu huts-egiteak hilearen lehen 5 egunen barruan edo hilean.

• **Ikastetxearen eta beste erakundeen arteko komunikazioa**


Ikastetxeek uste badute arazoak bere horretan jarraitzen duela, egoeraren berri ematen diete hainbat erakunderi, hainbat bide eta modu erabiliz, sarritan kasua beste erakunde edo zerbitzu batera bideratzeko, bertan esku har dezaten.

Harremanak gehienbat udaleko gizarte zerbitzuekin⁷ eta Hezkuntza Ordezkaritzako pertsonalarekin izaten dira; Arabako kasuan, arazoan esku hartzeko Ordezkaritzako pertsonal espezifikoa dago (gizarte langileak). Aldundiak eta horietako gizarte zerbitzuak gutxiago erabiltzen dira, seguru asko muturreko jarduketara delako eta halakoak absentismo eta deseskolazio kasu larriagoetarako uzten direlako. Kasu horiek, jakina, urriagoak dira.

Norekin jartzen dira harremanetan arazoak bere horretan dirauen artean	Kop.	%
Udala (Gizarte Zerbitzuak)	98	71,5
Ordezkaritzako pertsonal espezifikoa	87	63,5
Aldundia (Gizarte Zerbitzuak)	20	14,6
Ez zaio inongo zerbitzuri jakinarazten	8	5,8

⁷ Bizkaia eta Gipuzkoan Udaletako Gizarte zerbitzuetara baita Hezkuntza Ikuskaritzara ere bidaltzen dira.

Absentismo kasuak beste zerbitzuei jakinaraztea



Arazoa beste erakunde batzuei jakinarazten dieten herri ikastetxeen ehunekoa handiagoa da kasu hone tan itunpeko ikastetxeena baino, bereziki udaleko gizarte zerbitzuekin edo Hezkuntzako Ordezkaritzako pertsonalarekin diren harremanetan.

Lurraldeen arabera ere ezberdintasunen bat badago. Araban, adibidez, kasu horiek Hezkuntzako pertsonal espezifikoarengana bideratzen dituzte ikastetxeek gehiago udaletara baino (%77,8k lehen kasuan eta %50ek bigarrean). Hala gertatzen da zeren eta lurralde horretan, ikasturtearen hasierako zirkularraren arabera, huts-egiteen parteak Ordezkaritzara baino ez dira bidaltzen (ikus eranskinak).

Bizkaian komunikazio handiagoa dago udaleko gizarte zerbitzuekin (ikastetxeen %77,1ek) Hezkuntza Ordezkaritzarekin baino (ikastetxeen %54,3k). Hala eta guztiz ere, Gipuzkoako ikastetxe asko berdin jartzen dira harremanetan bi erakundeekin: Ikastetxeen %71,4 udaleko gizarte zerbitzuekin eta Hezkuntza Ordezkaritzarekin jartzen da harremanetan.

	Udala Gizarte Zerbitzuak	Ordezkaritza	Aldundia Gizarte Zerbitzuak	Jakinarazi ez
Araba	50,0	77,8	11,1	5,6
Bizkaia	77,1	54,3	14,3	10,0
Gipuzkoa	71,4	71,4	16,3	12,2


Ikastetxetik kanpoko beste zerbitzu batzuekin harremanetan jartzerakoan, eta absentismo arazoak dituzten ikasleekin esku hartu beharra dagoenean, lagineko ikastetxeen %59,1ek txosten tipo bat erabiltzen du kasuak kanpoko erakundeetara edo zerbitzuetara bideratzeko. Ikastetxe publikoetan gehiago erabiltzen dira (%65,5) itunpeko ikastetxeetan baino (%54,4). Lurraldeen artean ez dago ia ezberdintasunik.

- **Beste erakunde batzuetara bideratutako kasuei buruz erakundeei emandako informazioa**

Kanpoko zerbitzuek eta erakundeek ere beren esku-hartzearen berri ematen diote ikastetxeari beste erakunde batzuetara bideraturiko ikasleen kasuan. Ondoko taulan agertzen da zerbitzu edo erakunde horien aldetik informazioa jasotzen duten laginako DBHko ikastetxeen ehunekoa.

Erakundeen aldetik informazioa jasotzen duten ikastetxeen ehunekoa

	Ikastetxe kopurua	%
Udala	91	81,9
Ikuskaritza eta Ordezkaritza	79	71,1
Aldundia	30	27,0



Udaleko gizarte zerbitzuak dira, Hezkuntza Sailarekin batera (Hezkuntza Ikuskaritza edo Ordezkaritzako pertsonal espezifikoak), ikastetxeetara informazioa gehiagotan bidaltzen dutenak, eragina duten absentismo kasuei buruzko informazioa. Seguru asko bi erakundeetan garatzen diren programekin⁸ dute erlaziorik handiena portzentaia altuenok; izan ere, programok ikasleen Eskolara ez agertzea murrizteko garatzen dira eta lankidetzarako eta jarduketara zehatzerako protokoloak dituzte kasu zehatz horietan, bai jarraitzen den prozesuaren berri emateko, bai baterako neurriak hartzeko.

Informazioa Ikuskaritzaren aldetik zein udaleko gizarte zerbitzuen eta aldundien aldetik jasotzen duten ikastetxe publikoen ehuneko altua nabarmentzen da, seguru asko ikastetxe publikoek harreman gehiago dituztelako erakunde horiekin ikastetxeetan agertzen diren absentismo kasuak bideratzeko.

Lurraldeen arabera aztertzen baditugu ikusiko dugunez, Arabako ikastetxeak dira Ikuskaritzaren eta Ordezkaritzaren aldetik informazio gehien jasotzen dutenak. Lurralde horretan pertsonal espezifikoak dago (gizarte langileak) Hezkuntza Ordezkaritzan arazoa ekiditeko; hala gertatzen da beharbada zerbitzu horrekiko harremanak handiagoak direlako beste lurraldeekin konparatuta; udaleko gizarte zerbitzuekikoak, berriz, txikiagoak dira. Esan daiteke, beraz, Arabako Ordezkaritzako gizarte langileek bere gain hartzen dutela neurri batean beste lurraldeetan udaleko gizarte zerbitzuetan egiten duten lana.

- **Ikastetxeak eta beste erakundeak komunikatzeko moduak**


Erakundeen eta ikastetxeen artean prozesuari buruzko informazioa emateko komunikazio nagusia telefono bidezkoa da gehienbat, baita aparteko bileren bidez ere udalen eta Hezkuntza Ikuskaritzaren kasuetan.

⁸ Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko programa: eskolagabetzea eta Eskolara ez agertzea ezabatzea Bizkaiko Lurraldean. EUD-DEL, Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia.

Informazio jasotzen duten ikastetxeen ehunekoa eta komunikatzeko moduak

	Txosten idatzia	Telefonoa	Uneko bilera	Aldizkako bilerak
Udala	17,5	32,1	30,7	19,0
Ikuskaritza eta Ordezkaritza	18,9	40,8	37,2	7,2
Aldundia	3,6	11,7	14,6	2,2

Modos de comunicación de las Instituciones con los centros



Telefono bidezko komunikazioa eta uneko bilerak nahiago izaten dira garatzen ari den prozesuari buruzko informazioa emateko. Hori dela-eta, arazoren bat dagoenean berehala esku hartzea ahalbidetzen duten mekanismoak datozkigu burura, zeren erantzuna azkarra eta berehala emateko komunikabide malguagoak baitira.

Udaleko gizarte zerbitzuei dagokienez, nabarmentzekoa da Eskolara ez agertzean dauden ikasleekin esku hartzeko ikastetxeekin egiten diren aldizkako bileren erabilera. Ikastetxeen ehuneko altu batek dio zerbitzu horrekin aldizkako bilera sistematikoak dituztela, eta horrek adierazi nahi du prebentziorako baterako lana dagoela eta garatzen den esku-hartzearen jarraikortasuna eta egonkortasuna bermatzen dela.

4. DBHko ikastetxeetako prebentzio neurriak

Ikaslearen banako laguntzarako eta errefortzurako DBHko ikastetxeetan garatzen diren neurriek eragin handia dute nahitaezko eskolatze-aldiko ikasleen Eskolara ez agertzearen prebentziorako. Atzerapen handia, eskola porrota edo zailtasun pertsonalak dituzten ikasleentzako programa espezifikoak dira, baita kaltetua den gizarte ingurunean dauden ikastetxeentzat ere. Araututa eta legetan xedaturiko neurri horietako batzuk garatzeak berekin dakarte curriculuma egokitu beharra, bai ikasle jakin batentzat, bai talde edo ikasgelarako, eta garapenerako baliabide bereziak behar dituzte. Halaber, hezkuntza administrazioak onetsi beharreko hezkuntza plana edo proiektua eskatzen du.

Gainera, zikloaren eta ikastetxearen antolakuntza eskatzen duten bestelako errefortzu neurriak daude, irakaskuntza ikaslearen egoerara egokitzeko. Neurri horiek, hezkuntza errefortzuak edo ikasgelaren aniztasunaren trataerak adibidez, ez dute ikastetxeak eginiko proiekturik eta onespenez ofizialik behar, xede hori beren beregi ezarri beharra dago ikastetxearen planetan.

Neurri batzuk zein besteak ez dira eskolara ez agertzearen arazoa duten ikasleekin zuzenean esku hartzeko; hala ere, banako laguntza emateko modu bat dira, eskola uzteko arriskuan dauden ikasleek hezkuntza sistema behar baino lehen ez uzteko baliagarriak direnak. Eskola porroten bat duten ikasleekin zuzenean esku hartzeko neurriak izanik, era berean ikasleek eskola behar baino lehen uztearen kontrako lanean zeharka esku hartzeko modu bat dira.

Ikastetxeetan garaturiko banako laguntzarako programak

Programa eta neurri ohikoenen ezaugarriak laburbilduko dira ondoren. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi sarrera (20. or.).

- **Hezkuntzako esku-hartze espezifikoko proiektuak (EEP)**
DBHko lehen zikloan ikasten duten eta eskolako atzerapen larria edota eskolako jarrera arazo larriak dituzten 16 urtetik beherako ikasleentzako ikastetxeko proiektua. Bi ikasturteko indarraldia du eta, beste neurri batzuen artean, etaparen egituraren, etaparen curriculumean eta zikloaren antolakuntzan eragina duten jarduketak dakartza.
- **Eskolarizazio osagarriko programa**
Banako programa da, aldi baterako aplikatzen dena eta eskolako ohiko ingurunetik kanpo lantzen dena. Eskolan egokitzeko arazo larriak dituzten 14-16 urteko ikasleentzat da, betiere ikastetxeak aplikaturiko ohiko eta aparteko neurriak nahikoak ez direnean.
- **Curriculum-dibertsifikazioko programa**
DBHko 2. zikloa egiteko modu ezberdina planteatzen du eta 16-18 urteko ikasleentzat da; izan ere, irakasle taldeak ebaluazioa egin ondoren, ikasle horiek etaparen helburuak lortzeko nahitaez programa egokitua behar dutela baloratzen da. Urtebete edo bi urteko programak dira, non arloak bi eremutan biltzen baitira: gizarte-hizkuntza eta zientzia-teknologia.
- **Hezkuntza errefortzua**
Ikasleek eskolan dituzten eguneroko zailtasunetan laguntza emateko ohiko hezkuntzako neurriak dira. Banako errefortzua —ikasleak arlo jakin bat indartu behar duenean— edo taldeko errefortzua izan daiteke -talde osoak prebentzioko errefortzua behar duenean.
- **Aniztasunaren trataera ikasgelan**
Ikasleen aniztasunak berekin dakar irakasleek eguneko lana talde bakoitzak dituen ezaugarrien arabera antolatu beharra. Aniztasunaren trataerak neurri zabalak hartzen ditu didaktikaren, antolakuntzaren, metodologiaren, etab. aldetik, eta horien xedea da irakaskuntza ikasgelako taldea osatzen duten ikasle guztien ezaugarrietara moldatzea.
- **Aniztasun eta bizikidetzako programa**
Ikasleen aniztasuna abiapuntutzat hartuz, programa hau ikastetxeetan abiarazita berdinen arteko bizikidetzaren ikaskuntza sustatzen da. Jarduteko ildoan artean, ikasgelako bizikidetzaren kudeaketa nabarmentzen da: gaitasunak, ahalmen pertsonalak eta sozialak, partaidetza, tutoretza, etab. lantzea, baita jokabide desegokiak geldiaraztea eta hobetzea eta gatazkak gainditzea.

Curriculum-dibertsifikazioko programa, hezkuntza errefortzua eta ikasgelan aniztasuna tratatzea dira gehien garaturiko neurriak. Ikastetxeen erdiak baino gehiagok curriculum-dibertsifikazioko programak lan-

tzen dituzte eta ia %75ek abiarazita ditu ikasgelatik kanpora ikaslearekin hezkuntza errefortzua emateko neurriak zein ikasgelaren barruan aniztasuna tratatzeko neurriak. Aipaturiko bi neurriak dira normalizatuak, ez baitute curriculumaren egokitzapen handirik eta aparteko baliabide materialik eskatzen.

DBHko ikastetxeetan garaturiko banakako laguntzarako programak


	Garapen bidean		Proiektuan	
	Ikastetxe kopurua	%	Ikastetxe kopurua	%
Hezkuntzako esku-hartze espezifikoko proiektua	44	32	1	0,7
Eskolarizazio osagarriko programa	54	39	3	2,2
Aniztasun eta bizikidetzako programa	25	18	8	6,0
Curriculum-dibertsifikazioko programa	72	53	4	3,0
Hezkuntza errefortzua (ohiko ikasgelatik kanpora)	106	77	3	2,0
Aniztasunaren trataera ikasgelan	97	71	8	6,0

Ikastetxeak orotara: 137.

ED/EE: 5 ikastetxeak.

Ikastetxeen %32k ditu abiarazita Hezkuntza Esku-hartze Espezifikoko Proiektuak. Neurri horrek ikastetxearen proiektua eskatzen du; egoera jakin bat behar da ikaslearekiko harremanetan eta ikastetxearen antolaketan. Horretarako, baliabide espezifikoak behar dira, eta ikastetxean erabakiak hartzeko Ordezkaritza-organo gorenaren eta Delegaritzaren onospena behar da.

DBHko ikastetxeen ehunekoa eta garatzen diren banako laguntzarako programak




Arruntenak diren neurriak neurri berean erabiltzen dire bi sareetan eta arazo gehien dituzten ikasleentzako neurriak, baliabide bereziak eta ikastetxearen plangintza berezia behar dituztenak, proportzio handiagoan ditugu sare publikoko ikastetxeetan (Hezkuntzako esku-hartze espezifikoko proiektua, Eskolarizazio osagarriko programa, Curriculum-dibertsifikazioko programa).

Hauxe ikusten da lurraldeari dagokionez:

- Araba da hezkuntzako esku-hartze espezifikoko proiektu gehien garatzen duen lurraldea: lagineko ikastetxeen %50.
- Arabako ikastetxeak dira, Gipuzkoakoekin batera, ikasgelatik kanpora ikasleen hezkuntzako errefortzu gehien garatzen dutenak; Arabako ikastetxeen %94, Gipuzkoakoen %90 eta Bizkai-koen %64.
- Curriculum-dibertsifikazioko programak antzera garatzen dira hiru lurraldeetan.

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Ikastetxe kopurua	%	Ikastetxe kopurua	%	Ikastetxe kopurua	%
Hezkuntzako esku-hartze espezifikoko proiektua	9	50	19	27	16	33
Eskolarizazio osagarriko programa	5	28	23	33	26	53
Aniztasun eta bizikidetzako programa	2	11	10	14	13	27
Curriculum-dibertsifikazioko programa	9	50	36	51	27	55
Hezkuntza errefortzua (ohiko ikasgelatik kanpora)	17	94	45	64	44	90
Aniztasunaren tratamendua ikasgelan	16	89	42	60	39	80

Banakako laguntzarako programak lurraldeka



Jarraian, zehatzago aztertuko da ikastetxeek aipaturiko neurri batzuk nola erabiltzen dituzten, bereziki maizago egiten direnak eta hezkuntza-mailako baliabide handiak eskatzen dituztenak. Ikastetxeek gehien erabiltzen dituzten neurriak dira ikasleari banako laguntza emango zaiela bermatzen dutenak, antolakuntzaren eta plangintzaren aldetik zein behar diren baliabide pertsonalen aldetik.

Programa bakoitzean dagoen ikasgela kopurua eta programen erabiltzaileak diren ikasleen kopurua aztertzen dira, ondoko programetan laguntza jasotzen duten 16 urtetik gorako ikasleak barne direla:

- Hezkuntzako esku-hartzeko espezifikoko proiektua,
- Eskolarizazioko programa osagarriak,
- Curriculum-dibertsifikazioko programak eta
- Hezkuntza errefortzua ikasgelatik kanpora

• **Hezkuntzako esku-hartze espezifikoko proiektua**

Programa lagineko 44 ikastetxetan aplikatzen da. Ikastetxeotan 62 ikasgela daude, lurraldearen arabera banatzen direnak, ondoko tauletan agertzen denez:

Lurraldeak	Ikasgelen kop.	%
Araba	9	14,5
Bizkaia	25	40,3
Gipuzkoa	28	45,1
Orotara	62	100,0

Esku-hartze Espezifikoko Proiektua garatzen duten ikasgelen ia %80 sare publikoko ikastetxeetan dago; logikoa da hala izatea, zeren proiektu horiek gizarte ingurune baztertuko ikastetxe publikoentzat baitira. Gainerakoak, ikasgela horien %21 itunpeko ikastetxeetan daude eta benetan proiektu bereziak direla esan daiteke, eta horien bidez arazoari aurre egiteko dirulaguntzak jasotzen dituzte itunpeko ikastetxeek.

Horien %80 baino gehiago Bizkaiari eta Gipuzkoari dagokie, nahiz eta proiektua garatzen duten lagineko ikastetxeen erdiak Araban egon.

44 ikastetxetako 62 ikasgela horiek 395 ikaslerekin egiten dute hezkuntza lana. Ikasle horien %90ek sare publikoko ikastetxeetan ikasten dute, eta erdia baino gehiago Bizkaiko lurraldekoa da.

Hots, lagineko DBHko 3 eta 4. mailetakako ikasleen %2,4 Hezkuntzako Esku-hartzeko Espezifikoko proiektu bat duen ikasgelan dago. Programa horien ikasle onuradunen %2,5ek (10 ikasle) 16 urte baino gehiago ditu eta sare publikoko 5 ikastetxetan ikasten dute.

Lurraldea	EPPn dauden ikasleak		16 urtetik gorako ikasleak*	
	Kop.	%	Kop.	%
Araba	64	16,2	5	7,80
Bizkaia	233	59,0	4	1,70
Gipuzkoa	98	24,8	1	1,00
Orotara	395		10	2,53

* Lurralde bakoitzeko EPPn dauden ikasleen gainean kalkulaturiko ehunekoa.

Arabak ehunekorik altuena du programa honetan 16 urteko ikasleei dagokienez, zeren EEP dagoen ikasgela bateko ikasleen %7,8 adin horretakoak baitira.

- **Eskolarizazioko programa osagarriak**

Azterturiko laginetik, 54 ikastetxetan aldi batean beste ikastetxe batekin eskolatze osagarriko programa konpartitzen duten ikasleak daude.

Programa horietan 110 ikasle hartzen dute parte, hots, DBHko lagineko 3 eta 4. mailetako ikasleen %0,6k; honelaxe banatzen da lurraldearen arabera:

Lurraldea	Eskolarizazio osagarriko ikasleak		16 urtetik gorako ikasleak*	
	Kop.	%	Kop.	%
Araba	15	13,6	0	0,0
Bizkaia	60	54,4	13	21,6
Gipuzkoa	35	31,8	13	37,1
Orotara	110		26	

* Lurralde bakoitzeko eskolarizazio osagarriko ikasleen gain kalkulaturiko ehunekoa.

Eskolatze osagarriko programetan parte hartzen duten %75i baino gehiago ematen zaio laguntza, eta ikasle horien erdia baino gehiago (%54,4) Bizkaiko lurraldeko DBHko ikastetxeetakoak dira. Ikasle horietatik %23,6k 16 urte baino gehiago ditu; zehazki eskolan dabilzan 26 ikasle dira, gehienbat itunpeko ikastetxeetan eta antzeko ehunekoak daude Bizkaiko eta Gipuzkoako lurraldeetan.

- **Curriculum-dibertsifikazioko programak**

Neurririk hedatuena da baldin eta kontuan hartzen bada lagineko ikastetxeen erdiak baino gehiagok programa horiek garatzen dituztela. Azterturiko laginean, curriculum-dibertsifikazioko 89 ikasgela daude, eta guztira 738 ikasleri ematen zaio laguntza; programa egokituaren bidez DBHko helburuak lortzea da xedea. Hots, curriculum-dibertsifikazioko programen bidez, azterturiko lagineko DBHko 3 eta 4. mailetako ikasleen %4,42ri ematen zaio laguntza.

Curriculum-dibertsifikazioko ikasgelak eta derrigorrezko hezkuntzako etapa hori ikasgelotan ikasten duten ikasleak honelaxe banatzen dira lurraldeen arabera:

Lurraldea	Curriculum-dibertsifikazioko ikasgelen kopurua	%
Araba	16	18,0
Bizkaia	46	51,7
Gipuzkoa	27	30,3
Orotara	89	100,0

Sare publikoko ikastetxeetan curriculum-dibertsifikazioko ikasgela gehiago dago, %68,5, hots, itunpeko sareko ikastetxeen bi halako baino gehiago. Lurraldeen arabera, Bizkaian dago azterturiko lagineko ikasgelen erdia baino gehiago.

89 ikasgela horietako ikasleei dagokienez (738 ikasle), gehienbat Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeetan biltzen dira, eta %70ek baino gehitxoagok programa horiek sare publikoko ikastetxeetan egiten dituzte.

Curriculum-dibertsifikazioko programetan parte hartzen duten ikasle guztietatik ia hiru laurdenak (%72,5 zehazki) 16 urte baino gehiago ditu, eta gehienbat sare publikoko ikastetxeetan daude matriculatuta. Curriculum-dibertsifikazioan ikasten duten adin horretako neska-mutilen ehuneko altua ulerzekoa da, zeren eta programa hori bereziki 16-18 urteko ikasleentzat baita.

Lurraldea	Curriculum-dibertsifikazioko ikasleak		16 urtetik gorako ikasleak*	
	Kop.	%	Kop.	%
Araba	159	21,5	125	78,6
Bizkaia	330	44,7	240	72,7
Gipuzkoa	249	33,7	170	68,3
Orotara	738		535	

* Lurralde bakoitzeko curriculum-dibertsifikazioko ikasleen gainean kalkulatutako ehunekoak.

Egiaztatu ahal izan denez, neurri hori garrantzitsua da eskola porrotaren prebentzioan, ikasketak behar baino lehen uzteko prozesuan eta derrigorrezko etaparen helburuak lortzeko ematen duen posibilitatean, zeren eta aukera horren bidez laguntza ematen baitzaie DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleen %4,42ri.

• **Ikastetxeko hezkuntza errefortzua ikasgelan**

DBHko ikastetxean bertan egiten den banako arretarako neurria da, baina ikasleek ikasten duten ohiko ikasgelatik kanpoko denboran. Errefortzua emateko tokia laguntza gelak izan daitezke, edo bestela ziklotan antolatutako arretarako taldeak ikasleen beharrei erantzuteko.

Lagineko ikastetxeen %77k dio neurri hori lantzen duela. Horietan hezkuntza errefortzuko 247 ikasgela edo talde daude DBHko 3. eta 4. mailako ikasleentzat; guztira 1.029 ikasleri ematen zaie errefortzua, hots, DBHko bigarren zikloko ikasleen %6,16k jasotzen du banako hezkuntza errefortzua ikasgelatik kanpora.

Horietako 123 ikaslek 16 urte edo gehiago dituzte, hots, ikasgelatik kanpora zenbait curriculum-arlotan banako errefortzua jasotzen duen ikasle-taldearen %12. Lurraldearen arabera banatzen dira hezkuntza errefortzuko taldeak, honela:

Lurraldea	Hezkuntza errefortzuko taldeen kop.	%
Araba	39	15,8
Bizkaia	133	54,8
Gipuzkoa	75	30,4
Orotara	247	

Bizkaia concentra algo más de la mitad de las aulas o grupos de refuerzo educativo.

Talde horietan laguntza ematen zaie DBHko 3. eta 4. mailtako 1.029 ikasleri, gehienbat Arabako lurraldean, non 100 ikastetxetik ia 10ek jasotzen baitu laguntza hori (%9,5).

Lurraldea	Hezkuntza errefortzua duten ikasleak		16 urtetik gorako ikasleak*	
	Kop.	%*	Kop.	%
Araba	244	9,5	43	17,6
Bizkaia	416	4,8	51	12,3
Gipuzkoa	369	6,6	29	7,9
Orotara	1.029	6,16	123	

* Lurralde bakoitzeko ikasleen gain kalkulaturiko ehunekoa.


Garatutako banako arretazko neurriei buruzko laburpena

Neurri horiek ikastetxeetan garatzearen inguruko laburpen gisa, eta lagineko ikasleen guztizko kopurua aintzat hartuz —16.697 ikasle—, ikasleen %13,5, hots, DBHko bigarren zikloan dabilzan 100 ikasletatik 13 gutxi gorabehera banako hezkuntzako laguntzarako neurri-motaren baten onuradunak dira.

Banako laguntzarako neurri horien xedea derrigorrezko etaparen helburuak lortzea da eta, zeharka, ikasleen eskolatzea bermatuz garatzen dira. Hala eta guztiz ere, aldaketa-sorta zabala hartzen dute: curriculumaren egokitzapen txikiagoa edo handiagoa, neurriak garatzeko baliabide ezberdinak ematea... Hori dela-eta, normalizaziora bideratuta neurriak dira baina maila ezberdinetan.

Ohikoenak curriculum-aldaketa gutxien dakartenak dira, nahiz eta ikastetxearen antolaketan aldaketa handiak behar izan. Banako hezkuntza errefortzua da ohikoena eta etapako ikasleen %6,1 eragiten die. Curriculumeko alde jakin batzuk ikaslearekin indartzea da helburua, baina curriculumaren antolaketari eta etaparen helburuei eutsita.

Programa bakoitzeko DBHko bigarren zikloko ikasleen %



Curriculum-dibertsifikazioko programak ikasleen %4,4rekin garatzen dira eta, curriculumaren antolaketan aldaketak badakartzate ere, etaparen helburuak lortzeko xedeari eusten diote. Bereziki pentsatuta daude ikasleek derrigorrezko oinarrizko hezkuntzan jarraitu ahal izan dezaten, 16 urterekin nahitaezko eskolatzeko-aldia gainditu badute ere.

Proporzio txikiagoa da Hezkuntzako Esku-hartze Espezifikoko programetan zein eskolatzeko osagarriko programetan: ikasleen %2,4 lehen kasuan, eta ez da ikasleen ehuneko 1era iristen bigarren kasuan (%0,6). Kasu bietan ez dira horrenbeste normalizazio neurriak, ikasleen eskolatzeko bermatzen dutenak baizik, baina ikasleen arazoa dela-eta, curriculumean aldaketa handiak dakartza berekin.


16 urtetik gorako ikasleentzako hezkuntza arreta

Lehenago aipaturiko neurriek 16 urtetik gorako ikasleen eskolarizazioan duten eragina aztertzen da, betiere neurri horiek Eskolara ez agertzearen prebentziorako edo ikasleek eskola uztearen prebentziorako duten garrantzia kontuan izanik.

Programa horien onuradunak diren 16 urtetik gorako ikasleak

	Kop.	%*
Curriculum-dibertsifikazioa	535	72,5
Eskolarizazio programa osagarria	26	23,6
Errefortzua ikasgelatik kanpora	123	12,0
Esku-hartze espezifikoko programa (EEP)	10	2,5

* Programa bakoitzaren ikasle onuradun guztien ehunekoa.



Curriculum-dibertsifikazioko programak oso neurri indartsuak dira eskolatzeko zailtasunak dituzten ikasleek, hots, hezkuntza sisteman derrigorrezko bigarren hezkuntzako etapa uzteko arrisku handiena duten ikasleek eskolan jarraitu ahal izateko. Ez da ahaztu behar, gainera, curriculum-dibertsifikazioko programaren helburuetako bat hauxe dela: eskolako arazo jakin batzuk dituzten ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etaparen helburuak bete ahal izatea.

Hortaz, programa horren bidez ikasketak jarraitzen dituzten ikasleen %72,5ek 16 urte baino gehiago ditu; horrek agerian uzten du berriz ere ikasle horiek eskola behar baino lehen uztearen kontrako prebentziorako neurri egokia eta eraginkorra dela.

Bestelako neurrien ehunekoak txikiagoak dira, hala nola eskolatze osagarria edo ikasgelatik kanpoko laguntzarako errefortzua. Hori normala da 16-18 urteko ikasleentzako bereziki prestatuturiko programak ez direla kontuan hartzen bada; aitzitik, hezkuntza sistema uzteko arrisku handiagoa duten ikasleak sistemaren barruan atxikitze lagungarriak ere badira.

Ikastetxeetan Eskolara ez agertzeari buruzko lan-taldeak

Azterturiko laginean agertzen denez, lan-taldea osatu duten DBHko ikastetxeen kopuru bat dago, ikasleen Eskolara ez agertzea prebenitzeko eta horrelako egoerak gertatzen direnean neurriak hartzeko. 17 ikastetxe dira, lagineko ikastetxeen %12,4, honelaxe banatzen direnak.


Eskolara ez agertzeari buruzko lan-talde egonkorra duten DBHko ikastetxeak

	Kop.	%
Orotara	17	12,4


Sarea	Kop.	%
Publikoa	10	17,2
Itunpekoa	7	8,9

Lurraldea	Kop.	%
Araba	3	16,7
Bizkaia	7	10,0
Gipuzkoa	7	14,3

Absentismoko lan-taldea duten DBHko ikastetxeak



Absentismoko lan-taldea duten DBHko ikastetxeak



5. Eskola-uzteak dituzten eta ez dituzten ikastetxeen arabera azterketa

Ikastetxeen hainbat ezaugarri aztertzen dira eskola uzten duten edo ez duten ikasleak dituzten ikastetxeen arabera. Lagineko bi bloketan sailkatzen dira ikastetxeak:

- **Eskola-uzterik ez dagoen ikastetxeak:** ikasleen artean eskola-uzterik ez duten 106 ikastetxe dira laginean.
- **Eskola-uzteak dituzten ikastetxeak:** matrikulatuta egon arren ikasketak utzi dituen ikasleren bat duten DBHko 31 ikastetxe daude.

Ikastetxeen bi blokeon artean ezberdintasunik dagoen ala ez egiaztatzea da kontua. Hauxe da abiapuntuko hipotesia: Eskolara ez agertzearekin edo eskola behar baino lehen uzten duten ikastetxeetan ezaugarri ezberdinak daude eta esku hartzeko estrategia ezberdinak garatzen dira; honako hauetan agertzen dira estrategia horiek:

- Ezberdintasunik daude eskolara ez agertzearen gainean ikastetxean landutako kontrol neurrietan.
- Ikastetxetik kanpoko beste erakundeekin eta gizarte zein hezkuntzako zerbitzuekin dituzten erlazioak ezberdinak dira.
- Ezartzen dituzten prebentzioko neurriak, hala nola banako laguntza emateko programak edo ikasleen eskolara ez agertzeari buruz ikastetxeak egindako lana: ezberdinak izango dira ikasleen eskolara ez agertzea izatearen edo ez izatearen arabera.

Jarraian, eskola-uzterik ez duten eta eskola-uzteren bat duten ikastetxeen ehunekoa agertzen da aipaturiko alderdiei dagokienez.

Eskola-uztearen gaineko kontrol neurriak ikastetxean

Egiazta daitekeenez, oro har eta salbuespenen bat izanik, eskola uzten duten ikasleak dauden ikastetxeek ekintza gehiago burutzen dituzte ikasleak kontrolatzearekin lotuta daudenak.

	Ikastetxeak eskola-uztearekin	Ikastetxeak eskola-uzterik gabe
	%	%
Huts-egiteak justifikatzen dituzten arrazoiakak zehazten dituzte	64,5	72,6
Huts-egiteak egunero biltzen dituzte	96,8	83,0
Egunero jakinarazten dizkiote huts-egiteakak zuzendaritzari	32,3	21,7
Justifikatu gabeko huts-egiteak Ikuskaritzarara bidaltzea	64,5	50,0
— hilaren 5a baino lehen	41,9	39,6
— hilaren barruan	22,6	10,4
— ED/EE	3,2	5,7
Ikastetxeak orotara	Kop.: 31	Kop.: 106

Ikasleen huts-egiteak justifikatzen dituzten arrazoiak zehaztuta dituzten eskola-uzterik gabeko ikastetxeen ehunekoa altuagoa da eskola-uzteak dituzten ikastetxeen kasuan baino. Hala ere, azken ikastetxe horiek huts-egiteak bildu eta eskola-uzterik gabeko ikastetxeek baino maizago jakinarazten dituzte huts-egiteak.

Eskola uzten duten ikasleak dauden ikasleen ehunekoa altuagoa da justifikatu gabeko huts-egiteak Ikuskaritzara bidaltzen dituzten ikastetxeen artean. Eskola uzten dutenen kasuak dauden ikastetxeen %64,5ek, berriz, Ikuskaritzara bidaltzen ditu hileko lehen 5 egunetan edo hilean zehar; eskola uzten dutenen kasurik ez duten ikastetxeen %50ek soilik bidaltzen dute orria epe horietan.

Egoera hori zuzentzeko neurri gisa, Hezkuntza Ikuskaritzak 2006/07 ikasturtean hiruhileroko sintesi bat egitea proposatu du eskolara huts egiten duten eta eskolatu gabe dauden ikasleekin hartutako neurriari eta esku-hartzeari buruz. Sintesi hori erregistro-orri batean agerraraziko da eta orri hori ikastetxe guztiek bidali behar dute Ikuskaritzara; horrelako egoeran dagoen ikaslerik ez duten kasuetan ere bai. Neurri horrek ikastetxe guztiek informazioa bilduko dutela bermatuko du, eskolara huts egiten duten ikasleak izan zein ez, eta erregistro-orriak hilerok bidaltzen ez dituzten ikastetxeen ehunekoa arindu dezake.

Ikastetxeek beste erakunde batzuekin dituzten harremanak

Ezberdintasunak ikusten dira bi ikastetxe-talde horien artean arazoak bere horretan dirauenean eta arazoa ikastetxetik kanpoko beste erakunde batzuei jakinarazi behar zaienean, erakundeok esku har dezaten. Hala denean, taulak erakusten duen bezala, eskola-uztea duten ikastetxeek harreman gehiago izaten dituzte aipaturiko erakunde horiekin guztiekin eskola-uzterik ez duten ikastetxeek baino.

	Ikastetxeak eskola-uztearekin	Ikastetxeak eskola-uzterik gabe
	%	%
Udalera (Gizarte zerbitzuak)	90,3	66,0
Ordezkaritzara	64,5	63,2
Aldundira (Gizarte zerbitzuak)	19,4	13,2
Ez dute zerbitzu batera ere bideratzen	3,2	6,6
Ikastetxeak orotara	31,0	106,0

Nabarmentzekoa da eskola-uztea duten ikastetxe ia guztiek udaleko gizarte zerbitzuekin harremanak izatea. Kasuen %90,3k egoera horren berri ematen die zerbitzu horiei esku hartze aldera; ikasketak uzten dituzten ikasleak ez dauden ikastetxeen kasuan, berriz, %66k. Hala gertatzen da, seguru asko, Bizkaian eta Gipuzkoan egoera horren berri udaleko gizarte zerbitzuei ematea eskakizuna delako, ikastetxeetara ikasturtearen hasieran bidaltzen diren zirkularretan jasota utzitako eskakizuna.

Kasuak beste toki batera bideratzeari buruzko txostenak erabiltzea

Eskola-uztea duten ikastetxeek sarriago erabiltzen dituzte txostenak kasuak kanpoko beste erakunde eta zerbitzu batzuetara bideratzeko. Logikoa da hala izatea, kasu honetan batera jarduten baitute hainbat erakundek.

	Ikastetxeak eskola-uztearekin	Ikastetxeak eskola-uzterik gabe
Txosten tipoak erabiltzen dituzte kasuak beste erakunde batzuetara bideratzeko	71	55,7
Ikastetxeak orotara	31	106,0

Erakundeen eta ikastetxeen arteko komunikazioa

Udaleko gizarte zerbitzuak maizago izaten dira harremanetan ikastetxeekin eskola-uzteak gertatzen direnean. Hori kontuan izanik, komunikazio-modua lehenestea aztertuko da. Eskola-uztea duten ikastetxeetan, txosten idatzien eta telefono bidez izaten dira harremanetan udaleko gizarte zerbitzuak. Eskola-uzterik ez duten ikastetxeen kasuan, berriz, uneko batzarrak eta batzar sistematikoak egiten dira maizago. Beraz, honako hau ondoriozta liteke: eskola-uztea duten ikastetxeekin aldi berean izaten dira prebentzioko esku-hartzea eta «a posteriori» jarduteko esku-hartzea arazoa sortuta dagoenean. Eskola-uzterik gabeko ikastetxeetan, dirudienez, prebentzioko jarduketara lehenesten da batzar sistematikoak eta uneko batzarrak eginez.

Udaleko gizarte zerbitzuak eta ikastetxeak elkarrekin komunikatzeko bideak

	Txosten idatzia	Telefonoa	Uneko bilera	Aldizkako bilerak
Ikastetxeak eskola-uztearekin	38,7	45,2	25,8	9,7
Ikastetxeak eskola-uzterik gabe	11,3	28,3	32,1	21,7

Ikastetxeko banako arretarako programa eskola-uztearen kontrako prebentzioa errazteko

Ikasleei era indibidualdu baten laguntzeko programak garatzearen xedea da eskola porrota prebenitzea eta, zeharka, eskola behar baino lehen uzteko prebentzio modu bat dira. Hori dela-eta, interesgarria da programa horiek erabiltzean bi ikastetxe-talde horien artean dauden ezberdintasunak aztertzea.

	Ikastetxeak eskola-uztearekin	Ikastetxeak eskola-uzterik gabe
Hezkuntzako esku-hartze espezifikoko proiekt.	35,5	31,1
Eskolarizazio osagarriko programa	45,2	37,7
Curriculum-dibertsifikazioa	64,5	49,1
Hezkuntza errefortzua (ikasgelatik kanpo)	83,9	75,5
Aniztasuna eta bizikidetzatza ikastetxean	25,8	16,0
Ikasgelako aniztasunaren trataera	83,9	67,0
Ikastetxeak orotara	31,0	106,0

Taulako datuek aditzera ematen dutenez, eskola uzten duten ikasleak dauden ikastetxeek, kasu guztietan, banakoari laguntzeko neurri gehiago dituzte ezarriak eskola-uzterik ez dutenek baino. Honako hau ere azpimarratu behar da: ikasgelako aniztasuna tratatzeko neurriak ditu eskola uzten duten ikasleak dauden ikastetxeen %83,9k. Eskola-uzterik gabeko ikastetxeen %67k, berriz, ez dute neurri hori erabiltzen. Bi ikastetxe-motetan ezberdintasunak daude curriculum-dibertsifikazioko programak abiarazteari dagokionez: eskola-uztea duten ikastetxeen %64,5ek neurri hori du ezarrita; eskola-uzterik gabeko ikastetxeen kasuan, berriz, %49,1ek.

Aztertu diren zenbait neurriren ezaugarri nagusia gehienbat banakoari zuzendutako curriculum-antolaketa handiagoa behar izatea eta ikastetxea antolatzeko aparteko neurri handiagoak izatea dela esan daiteke. Hori dela-eta, eskola-uztea duten eta horrelakorik ez duten ikastetxeen neurrien kopurua aztertuko da. Honako hauek aztertuko dira :

- Hezkuntzako esku-hartze espezifikoko proiektua.
- Eskolarizazio osagarriko programa.
- Curriculum-dibertsifikazioa.

Hiru neurriak lantzen dituzten ikastetxeak

	Kop.	%
Ikastetxeak eskola-uztearekin	5	16,1
Ikastetxeak eskola-uzterik gabe	19	17,9
Ikastetxeak orotara	24	17,5


* Ikastetxe guztien ehunekoa (eskola-uzteekin eta eskola-uzterik gabe).

Datu horiek erakusten dutenez, ikastetxean eskola uzten duten ikasleak egoteak ez du eraginik banako laguntzarako neurriak pilatzerakoan: antzera pilatzen dira neurri horiek eskola uzten duten ikasleak eta uzten ez duten ikasleak dauden ikastetxeetan. Horren ondorioz, neurriok eskola-uzterik gabeko ikastetxeetan pilatzeak neurriek betetzen duten prebentzio eginkizuna uzten dute agerian.

Hauex ikus daiteke neurri bat edo bi abiarazten dituzten ikastetxeak aztertzean:

- Eskola-uztea duten ikastetxeek bi neurri biltzen dituzte batez ere.
- Eskola-uzterik ez duten ikastetxeek aipaturiko hiru neurrietako bat aplikatzen dute soilik.

Banako laguntzarako neurriak ikastetxeetan



6. Azterketa deskriptiboaren laburpena

Eskola-uzteei buruzko datuak

- Lagineko ikastetxeen %77k, DBHko 3. eta 4. mailetan, ez dute izan 2005-06 ikasturtean eskola utzi duen ikaslerik.
 - Ikastetxeen %23k (31) eskola utzi duen norbaiten kasua du. Horietatik %58k (18) ikasle bakarra du.
- DBHko 3 eta 4. mailetan matrikulatu diren eta laginean agertzen diren ikasle guztietatik (16.697) 56 ikaslek eskola utzi dute, hots, %0,34k.
 - Eskola utzi duten nesken kopurua (33) mutilena baino handiagoa da (23).
- Arabako lurraldea da eskola utzi dutenen ehunekorik handiena duena. Bizkaia eta Gipuzkoa lagineko batezbestekoaren azpitik daude.

Eskola-uzteko arrazoiak

- Hezkuntza sistema 2005/06 ikasturtean (56 guztira) utzi duen ikasleren bat izan duten ikastetxeetako zuzendariak uste dute eskola uzteko arrazoi nagusiak arrazoi pertsonalak direla; arazo pertsonalak, ikasteko motibaziorik eza, eskola porrota, ...
 - Ondoren gizarte-familiako ingurunearekin lotutako arrazoiak daude; familia desegituratua, familiak ikasketak ez baloratzea, gizarte ingurune baztertua, ...
 - Azkenik eskolako ingurunearekin lotutako arrazoiak dute eragina: programak eta ikasleen beharrrak bat ez etortzea.

Ikastetxeetako kontrol neurriak

- Ikastetxeen %99k biltzen ditu huts-egiteak. Horietako %86k egunero egiten du eta %12k astero.
 - Ikastetxeen %77ren kasuan kontrola zuzendaritzari jakinarazten zaio.
 - Jakinarazpena hiru lurraldeetan egiten da, batez ere asteroko aldizkakotasunarekin.

Ikasleekiko kontrol neurriak

- Justifikatu gabeko huts-egitea dagoenean, kasuen %93tan familia jartzen da jakinaren gainean, betiere %80k huts-egitea egin duen ikaslearekin elkarrizketa egiteari kalterik egin gabe gainera.
- Justifikatu gabeko hainbat huts-egite gertatzen direnean eta, beraz, hezkuntza sistema uzteko arriskuan dagoen ikasleekin, antzeko ehunekoa dugu (%96) familiari jakinarazten zaizkion huts-egiteei dagokienez, baina
 - Ikasleekin elkarrizketa gehiago egiten dira, kasuen %91n, eta gainera
 - Gora egiten dute nabarmen bestelako neurrien ehunekoek hala nola ikasleak beste zerbitzu batzuetara bideratzea (%59) eta banako biderapena (%64).

- Elkarrizketak egiten dira kasuen %84an justifikatu gabeko huts-egite bat eta hiru huts-egite bitartean daudenean.
 - Tutoreak egiten ditu ohiko ikasleak direnean baina ikaslea eskola uzteko arriskuan dagoenean kasuen erdian baino gehiagotan zuzendaritzak edo ikastetxeko orientatzaileak esku hartzen du. Esku hartzeko eremua ikasgelaz gaindikoa da, tutoreak bere erantzukizuna betetzen jarraitzen badu ere.

Kontrola familiarekin egiteko neurriak

- Lagineko ikastetxeen %85etik gora familiari jakinarazten dizkie justifikatu gabeko huts-egiteak gehenez hiru eguneko epean.
 - Ikasleak eskola uzteko arriskuan daudenean, ikastetxeen %73k lehen egunean jakinarazten die familiei eta halaxe gertatzen da hiru lurraldeetako ikastetxe publikoetan zein itunpeko ikastetxeetan.
- Ikasleen familiarekin harremanetan izateko ohiko bidea telefonoa da.
 - Ikasleak eskola uzteko arriskuan daudenean, elkarrizketa egiten da.
- Tutorea da, kasuen %95ean, familiarekin harremanetan jartzen den pertsona.
 - Ikasleak eskola uzteko arriskuan daudenean, tutoreaz gain (%86) zuzendariak egiten du elkarrizketa kasuen %44an eta orientatzaileak kasuen %26an.
- Ohiko ikasleen familiarekin zein eskola uzteko arriskuan dauden seme-alabak dituzten familiarekin harremanetan jartzeko helburuak honako hurrenkera hau du: egoeraren berri ematea, baterako neurriak ezartzea eta familiari neurriak hartzeko eskatzea. Ehunekoak nabarmen aldatzen dira. Ikus 45. orrialdea.
- Ezarritako zuzenketa-neurrien jarraipena egiteko, kasuen %47an bakarrik finkatzen da epea.
 - Ikasleak eskola uzteko arriskuan daudenean, ikastetxeen %50ek finkatzen du horretarako epea.

Ikastetxeetan Eskolara ez agertzearen prebentziorako garatutako neurriak

- Curriculum-dibertsifikazioko programak eta Hezkuntzako Errefortzua dira DBHko ikastetxeetan gehien erabiltzen diren neurriak.
 - Lagineko ikastetxeen erdiak baino gehiagok curriculum-dibertsifikazioko programak garatzen ditu
 - Lagineko ikastetxeen %75ek abiarazita ditu hezkuntzako errefortzurako neurriak ohiko ikasgelaren barruan eta kanpoan.
- Bereziagotzat jotzen diren bestelako neurriak garatzea, ikastetxeak aurretik onetsi behar duen plana behar dutelako hala nola Hezkuntzako Esku-hartze Espezifikoko Programak, baztertutako gizarte-kulturako ingurunean dauden ikastetxeekin lotuta, eta lagineko ikastetxeen %32tan garatzen dira programa horiek.
- Gehienbat normalizaziorakoak diren hezkuntza laguntzarako neurriak sarri-sarri erabiltzen dira bi sareetan eta proportzio berean. Arazo handienak dituzten ikasleei erantzuna emateko neurriak, berriz, baliabide bereziak eta ikastetxean plangintza espezifikokoak behar dituztenak, gehiago dira sare publikoko ikastetxeetan.
 - Banakoarentzat zuzendutako hezkuntza laguntzarako neurriak ezartzen dituzten programak, hala nola Hezkuntzako Esku-hartze Espezifikoko Programak, Curriculum-Dibertsifikazioa eta Eskolarizazio-ko Programa Osagarriak, gehiago lantzen dira ikastetxe publikoetan (bikoiztu egiten da ehuneko ia).

—Gehienbat normalizaziorako hezkuntza laguntzarako neurriak aplikatzen direnean, antzeko ehunekoak dugu ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan. Bi sareotako lagineko ikastetxeen %70ek baino gehiagok hezkuntza errefortzuko neurriak edo ikasgelaren aniztasuna lantzeko programak aplikatzen dituzte.

Hezkuntza laguntzarako neurri espezifikoaren onuradunak diren DBHko ikasleak

- DBHko ikastetxeetan ikasten duten ikasleen %13,5ek laguntza indibidualdua jasotzen du aipaturiko programaren baten bidez. Zehazkiago, honako hauek:
 - DBHko ikasleen %6,1ek banako hezkuntza errefortzua jasotzen du ikasgelatik kanpo curriculumeko zenbait irakasgaitan.
 - Lagineko DBHko ikastetxeetako ikasleen %4,4k curriculum-dibertsifikazioko programaren bidez jarraitzen du eskolan.
 - Ikasleen %2,4 ikasle talde txiki bati hezkuntzako esku-hartze espezifikoaren proiektu bat aplikatzen zaion ikasgelan dago.
 - Ikasleen %0,6k (100 ikasletatik 1ek ere ez) 2 ikastetxe konpartitzen ditu eskolatze osagarriko programa batean.
- Programa horiek ikasleak hezkuntza sistemaren barruan mantentzeko eginkizuna betetzen dute; izan ere, programa horiek barik eskola utz lezakete. 16 urte edo gehiago dituzten ikasleen kasua da, hainbat programaren bidez laguntza jasotzen dutenak.
 - Curriculum-dibertsifikazioko programaren barruan laguntza jasotzen duten ikasleek %72,5ek 16 urte edo gehiago ditu. Programa oso eraginkorra da, laguntza jasotzen duten adin horietako ikasleen ehuneko altuari erreparatuz gero. Hori logikoa da, zeren eta programaren helburua, adin hori gaintu arren, programa egokitu baten bidez derrigorrezko etaparen helburuak betetzeko moduan dauden ikasleei erantzuna ematea baita.
 - Beste programek ere hezkuntza-mailako erantzuna ematen die adin horietako ikasleei, baina neurri txikiagoan. Eskolarizazioko programa osagarria jarraitzen duten ikasleen %23,6k 16 urte baino gehiago ditu; hala, ikasgelatik kanpoko hezkuntza errefortzua jasotzen duten ikasleen %12 hezkuntzako esku-hartze espezifikoaren proiektua duen ikasgelan da; 16 urte edo gehiago izaten dituzte.

Eskola-uzteak dituzten eta horrelakorik ez duten ikastetxeen ezaugarriak

- Eskola uzten duten ikasleak dauden ikastetxeek kontrol neurri gehiago burutzen dituzte eskola-uzterik ez dagoen ikastetxeek baino. Zehazkiago, honako hauek:
 - Ikasketak utzi dituzten ikasleak dauden ikastetxeen %64,5ek justifikatu gabeko huts-egiteak bidaltzen dizkio ikuskaritzari; eskola-uzterik gabeko ikastetxeen kasuan, berriz, %50ek bidaltzen dizkio.
 - Eskola-uztea duten ikastetxeen %22,6k hilean egiten du bidalketa; eskola-uzterik gabeko ikastetxeen kasuan, berriz, %10ek egiten du aldi horretan.
- Kasu problematikoak beste erakunde batzuetara bideratzeko eta horietan esku hartzeko ezartzen diren erlazioak handiagoak dira eskola uzten duten ikasleak dauden ikastetxeekin.
 - Eskola-uztea duten ikastetxeen %90ak egoera horren berri ematen dio udaleko gizarte zerbitzuei; eskola-uzterik ez dutenen kasuan, berriz, %66k.
 - Eskola-uztea duten ikastetxeen %71ek txosten ereduak ditu kasuak beste erakunde batzuetara bideratzeko; eskola-uzterik gabekoen kasuan, berriz, %55,7k.
- Ikasketak uzten dituzten ikasleak dauden ikastetxeek banako errefortzurako neurri gehiago jartzen dituzte. Eskola-uztea duten ikastetxeen %84k ikasgelako aniztasunari erantzuna emateko ekintzak burutu zituen, baita eskola-uzterik ez duten ikastetxeen %67k ere bai.

III. Ikerketari buruzko galderak

1. Eskola-uztearen tasa txikiari eusten zaio DBHko azken bi ikasturteetan?

Herrialde garatuak izeneko herrialde guztietan, hezkuntza eta heziketa haur guztien eskubidea da nerabegaroko adin jakin bat bete arte, eta herri administrazioak eta familiak dira eskubide hori betetzeko bermeak. Hezkuntza sistemak eskubide hori betetzen dela kontrolatzeko, Euskadiko ikastetxeek hezkuntza eskubideari buruzko idazki bat jasotzen dute ikasturtearen hasieran, lurralde ordezkarietzek bidalia. Idazki horretan, derrigorrezko irakaskuntzarako adinean dauden ikasle guztiek eskolara joan beharra dutela gogorarazten da eta baliabideak ematen dira horretarako.

Hezkuntza Ikuskaritzak azken urteotan eginiko neurketetan islatzen denez, hezkuntza sistemaren eskola-uztearen tasa txikia dago derrigorrezko eskolatze-aldian. Atal honetan konparaziozko azterketa bat egin da eskola-uztearen tasa txikiari eusten zaion denborarekin. Horretarako, Ikuskaritzak hiru lurraldeei buruz eginiko «Ikasleriaren absentismo-kontrola» izeneko txosteneko datuak erabili dira, 2004/05 eta 2005/06 ikasturtekoak, eta Eskola-uzteari buruzko ikerlan honetan bildutakoak ere bai, 2005/06 ikasturtekoak.

Azterlan honetako datuekin konparaketa egiteko datuak Hezkuntza Ikuskaritzak, erregistro-orrien bidez, 2003/04 ikasturtetik hona bildutakoak dira. Ikastetxeek eskualdeko ikuskaritzara bidali behar dituzte erregistro-orri horiek hileko 5. eguna baino lehen, lurralde ordezkarietzek ikasturtearen hasieran bidaltzen dieten gutun baten eskatzen zaienez. EAEko Hezkuntza Ikuskaritzak, 2004/05 ikasturtean, lehen txostena egin zuen ikastetxeek bidalitako datuak oinarritzat hartuta. txosten honek eta 2005/06 ikasturtean eginikoak eremu zabala hartzen dute hezkuntzako etapei (Lehen hezkuntza eta Bigarren hezkuntza) dagokien zehin Eskolara ez agertzea terminoaren edukiari dagokionez; izan ere, kontzeptu horren barruan, hilean justifikatu gabeko huts-egiteen %20tik hasita deseskolarizaziora edo %100eko absentismora.

Bi txostenetan bildutako datu guztietatik, soilik %99,9ko Eskolara ez agertzeari eta Eskolagabetzeari buruzkoak hartuko dira kontuan konparazioa egiteko; datu horiek batuta, eskola-uztearen definizioarekin berdinsten dira. Jarraian, Hezkuntza Ikuskaritzaren urteko txostenetan eta ikerlan honetako eskola-uzteari buruz ematen diren definizioak azalduko dira.

Eskolagabetzearen definizioa:

Derrigorrezko eskolatze-adinean dauden adingabeen egoera da (6-16urte) ikastetxe batean matrikulatuta ez daudenean. Kontzeptu honetan sartuko da adingabeen egoera ere, matrikulatuta egon arren justifikatu gabe dauden huts-egiteen %100 dagoenean.

%99,9ko absentismoa definizioa:

Justifikaziorik gabe ikastetxera modu iraunkorrean huts egitea, familiak baimenduta edo bultzatuta edo ikasleak hala nahi izan duelako aurrenerabeen edo nerabeen kasuan. Hauxe da tartea kasu honetan: egunen %75 eta %99,9 bitartean (%100 aurreko definizioan ezarri baita) eskolara joan barik.

Komenigarria da gogoraraztea honelaxe definitzen dela ikerlan honetan eskola-uztea:

Eskola-uztearen definizioa:

Ikasturtearen hasieran matrikulatuta egon arren datuak bildu aurreko azken hilean egun batean ere eskolara joan ez diren eta ikasketak beste ikastetxe batean jarraitzeko espediente akademikoa lekuz aldatzeko eskatu ez duten ikasleei dagokie.

Datuak konparatzeko, eskola-uztearen eta honako hauen batuketa parekatzen dira: Ikuskaritzaren txostenean Eskolagabetzea deritzona gehi Eskolara ez agertzearen %99,9.

Ikuskaritza eta ikerketaren txostenei buruzko datu orokorrak

Hauexek dira Ikuskaritzaren txosteneko datuak eta ikerlan honetan bildutakoak:

DBHri buruz Hezkuntza Ikuskaritzak eginiko txostena, 2004-05

DBHko ikasleak, orotara	Publikoa, orotara	Itunpekoa, orotara
70.503	29.810	40.693

Eskola-uzteak orotara, DBHn (%99,9 absentismo + Eskolagabetzea)	
Ikasle kopurua	Ehunekoa
194	0,28

DBHri buruz Hezkuntza Ikuskaritzak eginiko txostena, 2005-06

DBHko ikasleak, orotara	Publikoa, orotara	Itunpekoa, orotara
69.839	29.879	39.960

Eskola-uzteak orotara, DBHn (%99,9 absentismo + Eskolagabetzea)	
Ikasle kopurua	Ehunekoa
145	0,21

Eskola-uztearen gaineko ikerketa, DBHko 3. eta 4. mailak. 2005-06 ikasturtea

DBHko 3. eta 4.eko ikasleak, orotara	Publikoa, orotara	Itunpekoa, orotara
16.697	7.026	9.671

Lagineko eskola-uzteak, orotara	
Ikasle kopurua	Ehunekoa
56	0,34

Konparaziozko azterketa

Esan dugun moduan, konparaziozko azterketa honetarako parekatu egiten dugu eskola-uztea terminoa %99,9 absentismo-maila duten ikasleekin gehi Hezkuntza Ikuskaritzaren txostenetan agertzen diren eskolatu gabeko ikasleekin. txosten honetan eskola-uzte izendapena erabiliko dugu kontzeptu guztietan.


Halaber, kontuan izan behar da hemen aztertzen diren Hezkuntza Ikuskaritzak emandako datuak Euskadiko DBHko herritar guztiei buruzkoak direla eta ikerlaneko datuek 3 eta 4. mailetako lagin bat biltzen dutela.

Txostenetan biztanle guztien eskola-uztea bildu da DBHko lau mailetan, eta horrexegatik izan daiteke ikasturte bereko datuen ehunekoen arteko diferentzia; izan ere, ikerlan honetan bigarren zikloari dagokion eskola-uztea bildu da bakarrik. Ildo horretan, Asturiasko Printzerrian 2000-01 ikasturtean eginiko DBHko eta DBHoko Eskolara ez agertzeari eta bizikidetzari buruzko txostenean mailaz mailako sekuentzia ikus daiteke: mailak gora egin ahala, derrigorrezko eskolatze aldiaren hezkuntza sistema uzten duten ikasleen aurrerapena igo egiten da (ikus sarrera). Halaber, bat dator Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza estatistikan eskola porrotari buruz agertzen diren datuekin. Hiru lurraldeetako 50 ikastetxeko lagina izan da, 13 eta 17 urte bitarteko ikasleekin: 3. eta 4. mailakoak dira eskola uzten duten tasarik handiena dutenak.

Eskola-uzteen ehunekoa

Hezkuntza Ikuskaritzaren txostenak		Ikerketa
2004/05	2005/06	2005/06
0,28	0,21	0,34

Eskola-uzteen ehunekoa



Bestalde, Hezkuntza Ikuskaritzari informazioa bidaltzen dioten ikastetxeak soilik kontuan hartuz egiten bada ehunekoa, ehuneko hori bat dator 2005/06 ikasturteari buruzko txostenean agertzen denarekin, hots, %0,21.

Eskola utzi dutenen kopurua eta ehunekoa, ikastetxeetako sarearen arabera

	PUBLIKOA		ITUNPEKOA	
	Kop.	%	Kop.	%
Ikuskaritzaren txost., 2004/05	141	0,47	53	0,13
Ikuskaritzaren txost., 2005/06	116	0,39	22	0,07
Ikerketa, 2005/06	28	0,40	28	0,29

Eskola-uzteen ehunekoei dagokienez hiru azterlanen arteko diferentzia txikiagoa da ikastetxe publikoetan itunpeko ikastetxeetan baino.

Gipuzkoa da eskola-uzteen kasu gutxien duen lurraldea eginiko hiru neurketetan. Ikerlan honetako datuak Ikuskaritzak eginiko lehen txostenetik hurbilago daude ikasturte berean eginikotik baino.

Eskola utzi dutenen ehunekoa lurraldeen arabera

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Ikuskaritzaren txost., 2004/05	0,49	0,30	0,14
Ikuskaritzaren txost., 2005/06	0,12	0,30	0,10
Ikerketa, 2005/06	0,51	0,33	0,27

Emaitzen artean ezberdintasunak izan arren, datuek behin eta berriz adierazten dute derrigorrezko hezkuntza aldia amaitu baino lehen eskola uzten dutenen tasa txikia dela Euskadin, baina eskola uzten dutenen maila baxu horrek ez du neurriak arindu beharra inplikitzen, zeren eta hauxe esaten baita Hezkuntza Ikuskaritzaren 2005/06ko txostenean¹

«... arazo honen dimentsioa txikia da hezkuntza sistemaren ikuspuntutik, baina ez da hala banakoaren ikuspegitik, zeren eta eskola porrotak dakarren egoera hori pertsona horien gizarte bazterketaren kausetako bat da». Hala, J. Delors (1996) buru zela xxi. menderako hezkuntzari buruz eginiko Nazioarteko Batzordean UNESCOk planteatu zuena biltzen da txosten horretan: «Herrialde askotan, batez ere herrialde garatuetan, oso fenomeno nahasgarria jasaten ari dira hezkuntza politikentzat: paradoxikoki, eskolatze-aldia luzatzeak hobetu barik larriagotu egin du gizartean baztertuta dauden edo eskola porrota duten gazteen egoera. Hezkuntza gasturik handienak dituzten herrialdeetan ere, eskola porrotak eta eskola uzteak ikasle asko ukitzen ditu. Gazteak bi kategoriatan banatzea dakar, eta are larriagoa da lanaren munduan irauten duen neurrian. (...) Eskola porrotak bazterkeria dakar, eta kasu askotan zenbait indarkeria-motaren edo banakoen galbidearen sorburua da. Gizarte-kohe-sioa hausten duten prozesu horien ondorioz, eskola salatzen da gizarte bazterketaren faktore gisa, eta aldi berean behin eta berriz esaten da gizarteratzeko edo bergizarteratzeko erakunde gakoa dela. Hezkuntza politikei planteatzen zaizkien arazoak bereziki zailak dira; eskola porrotaren kontrako borrorak gizartearen ezinbesteko beharra izan behar du» (61. or.).

¹ HEZKUNTZAKO IKUSKARITZA: *Plan Orokorra. Ikasleariaren absentismo-kontrola*. 2005/06 ikasturtea. EAren txostena.

Hauexek egiaztatu dira galdera horri dagokionez:

- Derrigorrezko eskolatzeko adinean dauden ikasleen artean hezkuntza sistema uzten dutenen tasa txikia. %0,35ekoa baino txikiagoa da aztertu diren hiru txostenetan.
- Hezkuntzako Ikuskaritzak ondoz ondoko urteetako bi txosten egin ditu, biztanleria bera erreferentziatzat hartuta datuak aztertzen dituztenak (DBHko lau mailetako maila batean ikasten duten Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle guztiak). Bi txostenok konparatuz gero, eskola-uztearen ehuneko txikitu egiten da, baina antzekoa da sarearen zein lurraldeen arabera.
- Ikerlaneko datuak Ikuskaritzak ikasturte berean (2005/06) eginiko txostenean lorturiko emaitzen berdinak dira. Baldin eta ikerlaneko eskola-uzteen ehunekoari (%0,34) kendu egiten bazaio eskola-uztea izan arren erregistro-orriak Hezkuntza Ikuskaritzara bidaltzen ez duten ikastetxeen ehunekoak. Kasu honetan, ikerlaneko eskola-uzteen ehunekoak ere %0,21ekoa da.

2. Betetzen al dira ikastetxeetan Ikuskaritzak Eskolara ez agertzea eta Eskolagabetzea ekiditeko edo zuzentzeko planteatu dituen neurriak?

Aurreko atalean esan denez, hiru lurraldeetako ikastetxeek «hezkuntza eskubideari» buruzko zirkular bat jasotzen dute ikasturtearen hasieran, eta bertan gogorarazten da 6 eta 16 urte bitarteko ikasle guztiak klasera joan beharra dutela nahitaez, hots, derrigorrezko irakaskuntzaren aldiaren dauden ikasle guztiak. Ikastetxeetako zuzendariak hileroko bete eta lurralde ikuskaritzetara bidali behar dituzten bi protokolo edo erregistro-orri daude; batean eskolatu gabeko ikasleak agertzen dira (matrikulazioa egiten ez dutenak) edota justifikatu gabeko huts-egiteen %100 dutenak, eta bestean, orriak eskualdeko ikuskaritzara bidali aurreko hilean justifikatu gabeko huts-egiteen %20ko edo handiagoko Eskolara ez agertzea duten ikasleak agertzen dira.

Lagineko ikastetxeak eta protokoloak Ikuskaritzari bidaltzea

Bidaltzen dute		Ez dute bidaltzen		ED/EE	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
73	53	57	42	7	5,1

Lagineko ikastetxeen (137) %50ek baino gehiagok bidaltzen dizkiote Ikuskaritzari protokoloak edo erregistro-orriak, baina ikastetxeen %23k bakarrik (31 ikastetxe) du eskola-uzteren bat (ikus 49. or.). Kontuan izan behar da protokoloetako batek azken hilean ehuneko hogeiko edo handiagoko Eskolara ez agertzea biltzeko balio duela; ez da guztizko eskola-uzterik aipatzen.

Eskola-uztea duten eta ez duten ikastetxeak eta protokoloak Ikuskaritzari bidaltzea

	Bidaltzen dute		Ez dute bidaltzen		ED/EE	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Eskola-uzterik gabe	53	50,0	47	44,3	6	5,7
Eskola-uztearekin	20	64,5	10	32,3	1	3,2

Esana dugunez, lagineko ikastetxe guztien %53k erregistro-orriak bidaltzen ditu Ikuskaritzara, baina ehuneko hori handiagoa da, %65ekoa, hezkuntza sistema utzi duten ikasleak dituzten ikastetxeen kasuan.

Eskola-uzteen kopurua ikastetxeen arabera eta protokoloak Ikuskaritzari bidaltzea

Uzte-kopurua	Bidaltzen dute		Ez dute bidaltzen		ED/EE	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Eskola-uzte 1	13	72,2	5	27,8		
2 uzteak	6	66,6	2	22,2	1	11,1
3 uzteak	2	100,0				
5 eskola-uzte edo gehiago	2	100,0				

Absentismo egoera horretako 3 ikasle edo gehiago dituzten lau ikastetxeetatik %100ek bidaltzen dituzte eskolara ez agertzearen edota eskolagabetzearen erregistro-orriak; kontuan izan behar da lau ikastetxe baino ez direla. Bi eskola-uzte dituzten bederatzietatik %67k bidaltzen dituzte protokoloak ikuskaritzara, eta handiagoa da portzentaia (%72) eskola-uzte bat duten hamabi ikastetxeetan.

Ondoriozta daiteke, jakinekoea denez, protokoloak edo erregistroak gehiago bidaltzen direla eskola-uztea duten ikastetxeetan arazo hori ez duten ikastetxeetan baino.

Lurraldeen araberako azterketa eginda ikus daitekeenez, ikastetxeen %89k bidaltzen dizkie huts-egiteak Ikuskaritzari Araban, lurralde ordezkariak ikasturtearen hasierako kartan eskatzen duen bezala. Bestalde, eskola-uztearen ehunekorik altuena duen lurraldea da. Baliteke neurriak gehiago betetzea arazo handiagoekin erlazionatuta egotea, edo beharbada datu gehien biltzen dituen lurraldea delako izan daiteke hala.

Ikastetxeen ehunekoa lurraldeen arabera eta protokoloak Ikuskaritzara bidaltzea

Lurraldea	Bidaltzen dute		Ez dute bidaltzen		ED/EE	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Araba	16	88,9	2	11,1		
Bizkaia	39	55,7	28	40,0	3	4,3
Gipuzkoa	18	36,8	27	55,1	4	8,2

Ikuskaritzako lurralde buruek Bizkaian eta Gipuzkoan ikasturtearen hasieran bidalitako jarraibideetan erregistro-orriak bidaltzeko eskatzen da, ez bakarrik eskualdeko ikuskariei, udalei ere bai.

Lagineko ikastetxeen ehunekoa eta protokoloak udalera bidaltzea

Bidaltzen dute		Ez dute bidaltzen		ED/EE	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
98	71,5	26	19	13	9,5

Lagineko ikastetxeen %72k bidaltzen dizkiete udalei erregistro-orriak, Ikuskaritzari erregistro-orriak bidaltzen dizkieten ikastetxeena baino hamaika puntu gehiago, baina Araban ez du betetzen eskakizun hori Hezkuntza Ordezkaritzak.

Eskola-uzteak dituzten eta ez dituzten ikastetxeen azterketa eginda ikus daitekeenez, eskola-uztea duten ikastetxeen %90ek erregistro-orriak bidaltzen dizkiete udalei. Ikuskaritzara bidaltzen dituztenak baino %25 gehiago dira.

Eskola-uzteak dituzten ikastetxeak eta protokoloak udalei bidaltzea

Uzte-kopurua	Bidaltzen dute		Ez dute bidaltzen	
	Kop.	%	Kop.	%
Eskola-uzte 1	17	94,4	1	5,6
2 eskola-uzte	8	88,9	1	11,1
3 eskola-uzte	1	50,0	1	50,0
5 eskola-uzte edo gehiago	2	100,0		

Hezkuntza Ikuskaritzarentzako jakinarazpenarekin gertatzen den bezalaxe, udalentsako eskolara ez agertzearen jakinarazpenaren ehunekoa altuagoa da eskola-uzte kasuren bat dagoen ikastetxeetan. Hala, ikastetxeen %72k protokoloak bidaltzen ditu, baina ehuneko hori handitu egiten da DBHko 3 edo 4. maila utzi duen ikasle baten arazoa dagoenean. 3 eskola-uzte dituzten ikastetxeen %50 bi ikastetxeri dagokie soilik.

Arabian altua da udalari eginiko jakinarazpen-kopurua (%50), baina kontuan izan behar da ez dela Hezkuntza Ordezkaritzaren eskakizuna; hala ere, oso urrun dago Ikuskaritzari huts-egiteen berri ematen diotenen %89tik.

Ikastetxeen ehunekoa lurraldeen arabera eta protokoloak udalei bidaltzea

Lurraldea	Bidaltzen dira		ED/EE	
	Kop.	%	Kop.	%
Araba	9	50,0	1	5,6
Bizkaia	54	77,1	6	8,6
Gipuzkoa	35	71,4	6	12,2

Bizkaiko ikastetxeen %56k erregistro-orriak bidaltzen dizkio Ikuskaritzari eta %77k udalari.

Gipuzkoan, %71k huts-egiteak jakinarazten dizkio udalari; %37k, berriz, Ikuskaritzari jakinarazten dizkio.

Ikastetxeek erakundeekin edo zerbitzuekin harremanak izateko moduak aztertu direnean egiaztatu denez, batzar sistematikoen ehunekorik altuena udaletan gertatzen da.

Ondoriozta daitekeenez, era berean, gehiago dira erregistro-orriak udalei bidaltzen dizkieten ikastetxeak eskualdeko ikuskaritzari bidaltzen dizkietenak baino, Araban izan ezik; kontuan hartu behar da soilik Bizkaian eta Gipuzkoan eskatzen dela bi erakundeei aldi berean bidaltzeko: hezkuntza erakundeari eta udal erakundeari.

Galdera horri dagokionez, hauxe ondoriozta daiteke:

- Ikastetxeen erdiak baino gehiagok betetzen du lurralde ordezkartzek justifikaziorik gabeko huts-egiteen kontrolari buruz eginiko eskakizuna.
 - Lagineko ikastetxeen %53k erregistro-orriak bidali dizkiote Eskualdeko Ikuskaritzari; ehuneko hori %64ra handitzen da sistema utzi duen ikasleren bat duten ikastetxeetan.
 - Eskola utzi duen ikasleren bat duten ikastetxeen %28k ez du informazioa bidaltzen, ezta ikasturtean bi eskola-uzte izan dituzten ikastetxeen %22k ere.
- Protokoloak udalari bidaltzeko eskakizunaren betetze-maila are handiagoa da. Ikastetxeen %71,5ek protokoloak bidaltzen ditu, eta are handiagoa da eskola 2005/06 ikasturtean utzi duen ikasleren bat duten ikastetxeen ehunekoak, %90ekoa hain zuzen ere.
 - Baliteke udalantzako jakinarazpenen ehunekoak eta Ikuskaritzarentzako jakinarazpenen ehunekoak artean dagoen diferentzia arazoa antzeman ondoren gara daitezkeen eginkizun ezberdinetatik izatea. Udalen jarduketa esku-hartze zuzenago eta bizkorrago batekin egon daiteke lotuta gizarte zerbitzuen bitartez. Hezkuntza Ikuskaritza da inplikaturiko erakundeak eta zerbitzuen arteko lankidetzak eta koordinazio prozesua zuzentzen duena.

3. Ba al dago erlaziozko ikastetxeetan garaturiko kontrol eta prebentzioko neurrien eta hezkuntza sistema uzteko arriskuan dauden ikasleentzako tasen artean?

Ikuspegi teorikotik, logikoa ematen du hezkuntza sistema uzteko arriskuan dauden ikasleak dituzten ikastetxeek absentismoa kontrolatzeko neurri gehiago garatzea eta horren kontrako prebentzio neurriak indartzea, ikasleentzako laguntzarako programak adibidez.

Kontrol neurriek dagokienez egiaztatu ahal izan denez, **eskola-uzteak dituzten ikastetxeak:**

Maizago biltzen dituzte ikasleentzako huts-egiteak

— %96,8k egunero biltzen du...	Eskola-uzterik ez duten ikastetxeen %83k.
--------------------------------	---

Maizago jakinarazten dio ikastetxeko zuzendaritzari huts-egiteen parteak

— %32,3k egunero jakinarazten du...	Eskola-uzterik ez duten ikastetxeen %21,7k.
— %9,7k ez du jakinarazten...	Eskola-uzterik ez duten ikastetxeen %17k.

Bizkor jartzen da harremanetan familiarekin

— %77,4 familiarekin jartzen da harremanetan ohiko ikasleentzako justifikatu gabeko huts-egite bat dagoenean...	Gauza bera egiten du eskola-uzterik ez duten ikastetxeen %62,3k.
— %84 familiarekin jartzen da harremanetan arriskuan dagoen ikasleentzako justifikatu gabeko huts-egite bat dagoenean...	Eskola-uzterik ez duten ikastetxeen %76,4k huts-egite bat dagoenean jakinarazten du.


Huts-egiteak denbora laburrean bidaltzen dituzte Hezkuntza Ikuskaritzara

— %64,5k huts-egiteen parteak bidaltzen du Ikuskar...	Eskola-uzterik gabeko ikast. %50.
— %41,9k hileko 5. eguna baino lehen bidaltzen du...	Eskola-uzterik gabeko ikast. %39,6.
— %22,6k hilaren barruan bidaltzen du...	Eskola-uzterik gabeko ikast. %10,4.

Ehunekoen arteko diferentzia horiek pixka bat altuagoak dira eskola-uztea duten ikastetxeen kasuan. Azterturiko gainerako kontrol neurrietan ez da diferentzia nabarmenik ikusten ikastetxe talde baten eta beste talde baten ehunekoetan. Ondorio gisa esan daiteke ez dagoela oso jarduketa bereizirik eskola-uztea duten ikastetxeen eta eskola-uzterik gabeko ikastetxeen artean; batzuek eta besteek antzeko kontrol estrategiak erabiltzen dituzte, hots, ikastetxeek antzera betetzen dituzte eskola uztearen prebentzioko programako protokoloak.


Ikasleren batek eskola uzten duenean ikastetxeek kanpoko erakundeekin dituzten erlazioei dagokienez egiaztatuenez, ezberdintasun handiak daude. Eskola uzten duten ikasleak dituzten ikastetxeek harreman gehiago dituzte udaleko gizarte zerbitzuekin eskola-uzterik ez duten ikastetxe-taldekoek baino. Eskola uzten duten ikasleak dituzten ikastetxeen %90,3k harremanak dituzte udalekin; eskola uzten dutenen kasurik gabeko ikastetxeek, berriz, %66k.

Beste erakundeekiko harremanak. Ikastetxeen %



Eginkizun prebentiboa izan dezakeen banako laguntzarako neurriei dagokienez egiaztatuenez, programa horiek garatzen dituzten ikastetxeen ehunekoa (eskola-uztea dutenak) altuagoa da kasu guztietan eskola-uzterik ez duten ikastetxeetan baino (ikus 68. or.).

Banako laguntzarako programak eskola-uztearekin eta eskola-uzterik gabe



Diferentzia handiagoak ikusten dira ikastetxeen jarduketa aztertzen denean, eskola uzten duten ikasleak dituzten zein ez dituzten ikastetxeen jarduketa, bi egoera zehatzetan: ohiko ikasleen huts-egiteen eta hezkuntza sistema uzteko arriskuan dauden ikasleen huts-egiteen kontrako jarduketak. Ikus dezagun ikastetxeek jokabide ezberdina dutela horrelako egoeretan.

Ikastetxeen jarduerak	Ohiko ikasleak	Arriskuan dauden ikasleak
Familiari jakinaraztea egunean bertan	%43,0	%73,00
Familiari jakinaraztea huts-egite bat gertatzen denean	%65,7	%78,10
Tutoreak elkarrizketa egitea ikaslearekin	%96,4	%67,90
Zuzendariak elkarrizketa egitea ikaslearekin	%15,3	%53,30
Orientatzaileak elkarrizketa egitea ikaslearekin	%20,4	%54,70
Hauexek dira familiarekin harremanetan jartzeko xedeak:		
— Baterako neurriak ezartzea	%68,6	%84,70
— Familiak neurriak hartzea	%49,6	%70,10
— Beste zerbitzuetara bideratzeari buruzko informazioa ematea	%14,6	%59,15

Ikastetxeek kontrol neurri bereziak ezartzen dituzte ohiko ikasleen egoerei erantzuna eman behar zaizkionean, inoiz justifikaziorik gabeko huts-egitea izan dutelako, eta sarri justifikatu gabeko huts-egiteak eta eskolara ez agertzea izan dutela-eta eskola uzteko arriskuan dauden ikasleak direnean.

Bi kasuetan, neurri zuzenak eta oso bizkorrak dira (ikastetxeen %60 baino gehiago familiarekin harremanetan jartzen da seme-alabaren justifikatu gabeko huts-egite bat dagoenean), baina ohiko ikasleen kasuan ikastetxeen %65,7k jakinarazpena egiten duen bitartean, arriskuan dauden ikasleen kasuan halaxe egiten du ikastetxeen %78,1ek.

Era berean, eskola uzteko arriskuan dauden ikasleekin egiaztatzen denez, ikastetxean esku hartzen dutenek lotura txikiagoa dute ikasgelaren ohiko jarduerarekin. Adibidez: ohiko ikasleekin gehienbat tutoreak egiten badu banako elkarrizketa (%96,4), arriskuan dauden ikasleekin esku hartze handiagoa dute ikastetxeko zuzendaritzak (%53,3) eta orientatzaileak (%54,7). Datu horiek agerian uzten dute ere ezen, hezkuntza sistema uzteko arriskuan dauden ikasleen kasuan, egoerak ikasgelaren uneko arazoa izateari uzten diola eta ikastetxearen arazo bihurtzen dela.

Nahiz eta ikastetxeetan aplikaturiko kontrol neurrien eta eskola uzten duten ikasleen tasaren arteko estatistika erlazioa dagoela esaterik ez badago ere, datuek agerian uzten dituzte zenbait kointzidentzia, esate baterako, ikasle-motaren arabera ikastetxeetan aplikatzen diren kontrol neurri bereziak. Ildo horretan esan daiteke ikastetxeek beren estrategiak egoeretara egokitzen dituztela, estrategia horiei prebentzio izaera emanaz: ikastetxerik gehienek eskola uzteko arriskuan dauden ikasleen egoeretan hartzen duten erantzunik bizkorrena eta espezializatuena eskola uztea prebenitzeko modu bat baizik ez da.

Hauxe esan daiteke planteatu den galderaren ondorio gisa:

- Agerikoa da ikastetxeek ikasleen egoera ezberdinetarako egokitzen dituztela haien estrategiak: erantzun bizkorragoa eta espezializatuagoa ematen dute eskola uzteko arriskuan dauden ikasleen egoeretan, eta hori eskola behar baino lehen uztea prebenitzeko modu bat da.
- Ezin froga daiteke banako laguntzarako programek eragin zuzena dutenik derrigorrezko eskolatzeko aldia hezkuntza sistema uzten duten ikasleen tasa txikian; hala eta guztiz ere, egiaztatuta dago eskola uzten duten ikasleak dituzten ikastetxe-taldean banako laguntzarako programen aplikazio handiagoa dagoela.
- Erlazio horrek lehenago planteaturiko tesia berretsiko luke: ikastetxeek banako laguntzarako neurri gehiago abiatzen dituzte haien errealitatean arazo bat dutenean; neurri horiek, zuzentzeko eginkizuna betetzeaz gain, ikasleek eskola uzteko prebentzio eginkizuna dute.

4. Baliagarriak al dira derrigorrezko eskolatzeko-adina gainditu duten ikasleen eskola uztea prebenitzeko eta hezkuntza sisteman mantentzeko ikastetxeetan garatzen diren banako laguntzarako programak edo neurriak?

Hauxe da abiapuntua ikuspegi teorikotik: eskola uztea eskolatik pixkanaka aldentzeko prozesua da, ikasleak hezkuntzaren eremuan «*atxikitzearekin edo aldentzearekin*» lotura duena; beste ikerlan eta ebaluazio batzuetan «*ikasleak ikastetxekoa dela sentitzea*»² deitu izan zaio.

Ikuspegi horretatik, garrantzitsua da aztertzea ikastetxeak eskola uztea gertatzearekin edo ez gertatzearekin duen eginkizuna. Ikastetxeak aintzat hartu beharreko faktorea dira, zeren eskola uztea eragin baitezakete edo, alderantziz, eskola uztea bideratzeko eta zuzentzeko lagungarria izan daitezke. Ildo horretan, ez da ahaztu behar ikastetxeen hezkuntzako testuinguruak, antolaketaren egoerak, curriculum-alderdiek, politikak eta hezkuntza jardunek eskola uztea prebenitzeko eta ikasleak hezkuntza sisteman mantentzeko duten eginkizuna.


Aurreko atalean (55. or.) ikasleen aniztasunari banaka erantzuteko ikastetxeetan gehien erabiltzen diren neurrien ezaugarriak azaldu dira. Programa edo neurri berezi horien eginkizuna eskola porrotaren kontrako prebentzioa da; aitzitik, eskola behar baino lehen uztearen kontrako eta ikasleak hezkuntza sisteman barruan mantentzeko prebentzio eginkizuna ere ezar dakieke.

Eginkizun hori agerian gelditzen zaigu baldin eta, alde batetik banako laguntzarako programen bidez ikasten ari diren ikasleak aztertzen badira, eta bestetik, kontuan hartzen badira derrigorrezko heziketan eta ohiko hezkuntza sisteman jarraitzen duten 16 urtetik gorako ikasleak, irakaskuntzan egoteko nahitaezko adina gainditu badute ere.

Lehenik eta behin, ikus dezakegunez, lagineko ikastetxeetako DBHko 3 eta 4. mailetako ikasleen %13,5ek banako laguntza-motaren bat jasotzen du, espezifikoa nolabait, irakaskuntza bere egoerara hobeto egokitzea ahalbidetzen duena. Ildo horretan esan daiteke 100 ikasleetatik 13k gutxi gorabehera jarrai dezakeela derrigorrezko eskolatzeko programa eta aparteko baliabideak abiarazteari esker. Ikasle talde horren (%13,5) eskolatzeko arriskuan jar daiteke irakaskuntza haien berezitasunetara egokitzea ahalbidetuko duten programa berezi horiek ez badaude.

² PISA (2003): Adierazlea: «*ikastetxearekiko pertenezki sentimendua*».

Programa bakoitzean lagundutako lagineko ikasleen %




Gainera, aztertuta dugu dagoeneko hezkuntza sisteman jarraitzen duen ikasle talde bat dagoela, nahitaezko eskolatze-aldiaren adina gainditu badute ere. Ondoko taulak nahitaezko oinarrizko heziketan banako arretako programen edo neurrien bidez jarraitzen duten 16 urtetik gorako ikasleak erakusten ditu.

Programa hauen onuradunak diren 16 urtetik gorako ikasleak

	Kop.	%*
Curriculum-dibertsifikazioa	535	72,5
Eskolarizazio programa osagarria	26	23,6
ikasgelatik kanpoko errefortzua	123	12,0
Esku-hartze Espezifikoko Proiektua	10	2,5

* Programa bakoitzaren ikasle onuradun guztien ehunekoa.


16 urtetik gorako ikasleak. Programa bakoitzeko ehunekoa



Ikus daitekeenez, curriculum-dibertsifikazioa da 16 urte beteta dituzten ikasleekin gehien erabiltzen den programa. Programa hori jarraitzen duten ikasleen %72,5ek 16 urte edo gehiago ditu. Ildo horretan esan daiteke ahalmen handiena duen banako laguntzarako neurria dela derrigorrezko eskolatzeko adina gainditu duten ikasleak ohiko eskola sisteman mantentzeko eta, beraz, programa sortzeko eginkizuna betetzen du.

Talde hori ikusita, hezkuntza sisteman dauden lagineko ikasle guztien %4,15ek 16 urte edo gehiago ditu eta oinarrizko heziketan jarraitzen dute programa berezien bidez; izan ere, programa horietan ikasle bakoitzaren berezitasun akademikoak eta pertsonalak hartzen dira kontuan. Datu horren bidez baieztatu daiteke ezen 100 ikasletatik 4k eskola uzteko arriskua izan lezakeela programa horien bidez banako laguntza jaso dutenak. Ondorengo grafikoan agertzen denez, curriculum-dibertsifikazioa nabarmentzen da; izan ere, programa horren bidez ikasle guztien %3,2k jarraitzen du oinarrizko heziketa.

16 urtetik gorako ikasle onuradunak lagineko ikasle guztien %



Planteatu den galderaren ondorio gisa, hauxe esan daiteke:

- Hezkuntza sisteman abiarazitako banako arretarako programek ikasleen ehuneko handi bati ematen diote erantzuna (%13,5); izan ere, programa horiek ezean, seguru asko hezkuntza-sistema utziko zuketena ikasle horiek.
- Agerian gelditzen da programa hauen eraginkortasuna 16 urte bete eta programoi esker oinarrizko heziketan jarraitzen duten ikasleen ehunekoa ikusita. DBHko ikasle guztietatik %4,15ek 16 urte edo gehiago ditu eta, derrigorrezko adina gainditu arren, eskolan jarraitzen du oinarrizko heziketa lan-tzen.
- Programa horien artean, curriculum-dibertsifikaziokoa nabarmentzen da, ohiko hezkuntza-sisteman barruan 16 urteko edo gehiagoko ikasleen ehunekorik handienari ematen baitio erantzuna; programa horren ezean, eskola utzi zezaketen eskolatzeko nahitaezko adina gainditu ondoren.

IV. Azken ondorioak

Ikerketaren laburpen orokor gisa, jarraian eginiko azterketen gaineko alderdirik esanguratsuenak bildu dira, euskal hezkuntza-sistemaren ezaugarri nagusiak azaltzen baitituzte eskola-uzteari dagokionez:

- **Derrigorrezko eskolatzearen aldian eskola uzten duten ikasleen tasa txikia.** Nahiz eta eskola-uztearen tasa baxua izan daitekeen, ezein ikaslek oinarrizko heziketa ez uzteko joera izan behar du. Ondorioen agiriaren sarreran aipatzen denez, eskola-sistema behar baino lehen uztearen ondorioek izugarri murrizten baitituzte maila guztietan garapena lortzeko positibitateak: garapen pertsonala eta gizarte eta lan arloko garapena.
- **Ezarritako neurriak jokabide onaren ereduak izan daitezke, ikasle batzuk hezkuntza sisteman mantentzeko baliagarriak baitira;** izan ere, neurri horiek barik, seguru asko, eskola utziko zuketena gutxieneko titulazioa eskuratu baino lehen. Neurri horien artean, DBHko ikastetxeetan lantzen diren curriculum-dibertsifikazioko programak nabarmentzen dira, zeren gaitasun eta eraginkortasun handikoak baitira zenbait ikasle sisteman atxikitzeko; bestela, ikasle horiek sistema utziko zuketena, 16 urte bete izanagatik eta derrigorrezko eskolatzearen aldiaren gorengo maila gainditu izanagatik.
- **Ikastetxeen ehuneko batek ez du hezkuntza izateko eskubiderako Ikuskaritzaren programa betetzen,** ez baititu erregistro-orriak hilerok bidaltzen. Horren ondorioz, Hezkuntza Ikuskaritzak hobekuntzarako neurri bat ezarri du 2006/07 ikasturterako, «Eskolara ez agertzearen sintesia» deritzona eta kasuak hiruhilero jarraitzea eta bidaltzea bermatzen duena ikastetxe guztietan, egoera horretako ikaslerik ez badago ere. Ikasleei dagokienez, eskolara joatearen gaineko kontrol eraginkorra indartzea da neurriaren xedea, baita klasera ez doazenen bilakaera aztertzea ere; irakasleei dagokienez, inplikaturiko erakundeen arteko koordinazio eta komunikazio lana indartzea.
- **Ez da ziurtatzen ikaslearekin esku-hartzeko neurrien jarraipena.** Eskolara ez agertzea zuzentzeko ikasleekin eurekin eta familiarekin dagoen erlazioa da ikastetxeak eskatuta hartzen diren neurri nagusienetakoa. Aitzitik, ez da jarraipena egiteko, abiarazitako prozesua aztertzeko eta nahi ez den jarrera bideratzeko hartutako neurrien sendotasuna ikusteko eperik ziurtatzen.

Bibliografía

- AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO (2005): *Programa municipal de absentismo. Informe final enero-junio 2005*. Comisión Técnica de Seguimiento del Programa de Absentismo.
- CENTRO DE INVESTIGACIÓN Y DOCUMENTACIÓN EDUCATIVA (CIDE) (2005): *El absentismo escolar como reto para la calidad educativa*. Ministerio de Educación y Ciencia. Madrid.
- DEFENSOR DEL PUEBLO ANDALUZ (1998): *El absentismo escolar. Un problema educativo y social*.
- E. GREGORY WOODS: *School Improvement Research Series (SIRS) Reducing the Dropout Rate*, NWREL (en línea), www.nwrel.org (consultado: 26-12-06).
- Eemer EIVERS, Eoin RYAN y Aoife BRINKLEY (2000): *Characteristics of early school leavers: results of the research strand of the 8 to 15- years old early school leavers initiative*. Dublin. St Patricks College. Educational Research Center.
- Ernesto ESPÍNDOLA y Arturo LEÓN: *Educación y conocimiento: una nueva mirada*. «La deserción escolar en América Latina: un tema prioritario para la agenda regional». *Revista Ibero-Americana*, n.º 30, septiembre-diciembre de 2002.
- *España a la cabeza de la UE en abandono escolar*. Mediatico. Com (en línea), www.mediatico.com (consultado: 1-12-2005).
- GALLARDO, Lourdes: «Sobresaliente» para España en abandono escolar. A+aprendemas (en línea), www.aprendemas.com (consultado: 8-11-2006).
- GARCÍA GRACIA, M. (2004): *L'absentisme escolar en zones socialment desfavorides. El cas de la ciutat de Barcelona*. Tesis Doctoral, Universitat Autònoma de Barcelona.
- GONZÁLEZ GONZÁLEZ, M. Teresa (2006): «Absentismo y abandono escolar: una situación singular de la exclusión educativa». *REICE: Revista Electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, vol. 4, n.º 1.
- GRUPO DE ESTUDIOS CBG: COLECTIVO BALTASAR GRACIÁN (2002): *Estructura social del fracaso escolar en la ESO dentro de la Comunidad de Madrid*. Comunicación a la IX Conferencia de Sociología de la Educación. Palma de Mallorca, septiembre de 2002.
- INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA (ISEI-IVEI) (2005): *Sistema Vasco de Indicadores Educativos. Porcentaje de la población de 18-24 años cuyo máximo nivel de estudios es el de Graduado en ESO (C2) y no recibe enseñanza o formación posteriores, de cualquier tipo*.
- INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA (ISEI-IVEI) (2005): *Sistema Vasco de Indicadores Educativos. Porcentaje de la población entre 20-24 años que ha conseguido, al menos, finalizar los estudios de Secundaria Postobligatoria (CINE3)*.
- INSPECCIÓN EDUCATIVA Y DE SERVICIOS. GOBIERNO DEL PRINCIPADO DE ASTURIAS (curso 200-01): *Informe sobre el absentismo y la convivencia en la Educación Secundaria de Asturias (obligatoria y post-obligatoria)*.
- INSPECCIÓN DE EDUCACIÓN DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DEL GOBIERNO VASCO: *Control del absentismo escolar*. Informe del curso 2004/2005.
- INSPECCIÓN DE EDUCACIÓN DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DEL GOBIERNO VASCO: *Control del absentismo escolar*. Informe del curso 2005/2006.
- *La tasa de abandono escolar de jóvenes españoles en secundaria es «muy preocupante», según Educación* (en línea), www.consumer.es (consultado: 8.11.2006).
- «Las alternativas contra el fracaso escolar. Rutas para llegar a buen puerto», *El País*, 30.1.06.
- MARCHESI, Álvaro y Carlos HERNÁNDEZ GIL (2003): *El fracaso escolar. Una perspectiva internacional*. Madrid. Alianza Editorial.

- MARCHESI, A. y MARTÍN, E. (2002) *Evaluación de educación secundaria. Fotografía de una etapa polémica*. Madrid.
- MARTÍNEZ ESCUDERO, J.M.; GONZÁLEZ, M.T.; GARCÍA, R. y otros (2004): *Alumnos en situación de riesgo y abandono escolar en la educación secundaria obligatoria: Hacia un mapa de la situación en la Región de Murcia y propuestas de futuro*. Proyecto financiado por la Fundación Séneca. Murcia.
- OCDE (2005): *Education at a Glance. OECD indicators 2005*. Paris.
- OCDE (2006): *Education at a Glance 2006. Cap. A The output of Educational Institutions and the impact of learning*. Paris.
- PROGRAMA PARA GARANTIZAR EL DERECHO A LA EDUCACIÓN: ERRADICACIÓN DE LA DESESCOLARIZACIÓN Y DEL ABSENTISMO ESCOLAR EN EL TERRITORIO DE BIZKAIA (2003): Asociación de Municipios Vascos (EUDEL), Diputación Foral de Bizkaia y Dpto. de Educación del Gobierno Vasco.
- PROYECTO FONDECYT: «Tras las claves psicológicas de la deserción escolar». Investigación y desarrollo en la Universidad de Concepción. *Revista I+D*, n.º 10, septiembre de 2005.
- RUE DOMINGO, Joan (2005): *El absentismo escolar como reto para la calidad educativa*. CIDE: Centro de Investigación y Documentación Educativa. Madrid. Ministerio de Educación y Ciencia.
- SAUCEDO RAMOS, Claudia L.: *El abandono escolar desde la perspectiva de los propios alumnos*, Espacio Logopédico (en línea), www.espaciologopedico.com (consultado en noviembre de 2006).
- U.S. DEPARTMENT OF COMERSE, Census Bureau, Current Population Survey, octubre de 2001. National Center for Education Statistics (NCES) (2004) *Dropout Rates in the United States: 2001*.
- U.S DEPARTMENT OF EDUCATION. Office of Educational Research and Improvement. National Center for Education Statistics (NCES) *Dropout Rates in the United States: 2000*.

ERANSKINAK

- I. Laginako Ikastetxeen zuzendariak erantzuteko eskola-uzteari buruzko galdera-sorta.
- II. Ikasturte hasierako jarraibideak Delegaritzetatik ikastetxetarako.
- III. Eskola-uzte eta eskolagabetezari buruzko erregistro-orriak.


I. eranskina. Eskola-uzteari buruzko galdera-sorta

--	--	--	--	--

Ikastetxearen zk.

ESKOLA-UZTEARI BURUZKO IKERKETA

Ikastetxeko zuzendariarentzako galdera-sorta



ISEI·IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA

INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen (ISEI-IVEI-ren) bidez, eskola-uztea zein neurritakoa den eta nola saihesta daitekeen iker-tzeko proiektua bideratu du. Proiektuaren helburua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatu baino lehen hezkuntza-sistema uzten duten ikasleen kopurua zein den eta eskola-uztea saihesteko ikastetxeek zein neurri hartzen dituzten jakitea da.

Galdera-sorta hau ikastetxeko zuzendariarentzat da. Galdera-sortaren xedea, *bidezko arrazoirik gabe, azken hilabetean gutxienez, eskolara ageri ez diren eta beste ikastetxeren batean ikasketak jarraitzeko espedientearen lekualdaketa eskatu ez duten ikasleen* kopuruari buruzko datuak jasotzea da. Horrez gain, galdera-sorta honen bidez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek, bigarren hezkuntzako graduatu-titulua lortu baino lehen, eskola utzi ez dezaten, ikastetxean garatzen diren neurriei buruzko informazioa ere jaso nahi da.

Mesedez, galdera-sorta hau betetzeko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (DBH-ko 3. eta 4. mailetan) ari diren ikasleei dagozkien datuak baino ez erabili.

JARRAIBIDEAK

- Galdera-sorta hau zuzendariak bete behar du, eta DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleei dagozkien datuak baino ez dira adierazi behar.
- Galdera-sorta honetan biltzen diren datuak erabat konfidentzialak dira eta ikerketa honetarako baino ez dira erabiliko.
- Galdera askok erantzun bakarra dute; horrelakoetan, gurutze bat idatzi dagokion laukian. Beste galdera batzuek, ordea, erantzun bat baino gehiago izan ditzakete; horrelakoetan, berariaz adierazten da behar beste gurutze idazteko. Beste galdera batzuei erantzuteko, zenbakia idazteko eskatzen da.

Adibideak:

Bai ₁

Ez ₂

Zenbat ikasle...?

Ikasleen kopurua

0	0	2
---	---	---

A. Porrot akademikoa

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

A. Ikaslearekin hitz egiten da

Bai	Ez
X	

Ondoren, zuen ikastetxean DBHko 3. eta 4. mailan ari diren ikasleei buruzko galderak egingo dizkizuegu.

1. Azken hilabetean, gutxienez, ikastetxeko zenbat ikaslek huts egin dute eskolara egunero, justifikaziorik gabe eta espedientearen lekualdaketarik eskatu gabe?

Zenbat neska

Zenbat mutil

Bat ere ez badago 3. galderara jo

2. Zure iritziz, zein dira ikasle horiek eskola uzteko izan dituzten arrazoi nagusiak?

Baloratu 1etik 5era, eraginaren arabera (1: ez du eraginik, 5: eragin handia du), zure ustez eskola uzteko izan dituzten arrazoiak. Inguratu dagokion zenbakia biribil batez.

A. Porrot akademikoa	1	2	3	4	5
B. Gaitasun falta	1	2	3	4	5
C. Arazo pertsonalak	1	2	3	4	5
D. Ikasteko motibazioa	1	2	3	4	5
E. Harreman-arazoak ikaskideekin	1	2	3	4	5
F. Harreman-arazoak irakasleekin	1	2	3	4	5
G. Ez du loturarik ikastetxearekin	1	2	3	4	5
H. Familiakoek ez dituzte ikasketak baloratzen.	1	2	3	4	5
I. Familia desegituratua	1	2	3	4	5
J. Gizarte-egoera Kaltetua	1	2	3	4	5
K. Familia, sarri, tokiz aldatzen da	1	2	3	4	5
L. Eskola-ingurunea ez da sustagarria	1	2	3	4	5
M. Irakasleek ez dute itxaropen onik berarengan	1	2	3	4	5
N. Programak eta beharrak bat ez etortzea	1	2	3	4	5
O. Tutoretza-jarduerak garatzeko arazoak	1	2	3	4	5
P. Zigor asko jasotzea	1	2	3	4	5

Ondorengo galderak, eskola-uztea saihesteko edo artezteko, ikastetxean hartzen diren kontrol-neurriei buruzkoak dira. Erantzuteko, galderetan adierazten den legez, alde batetik, ikasleak orokorrean kontuan hartuko dira, eta, bestetik, ikastetxearen iritziz, hezkuntza-sistema uzteko arriskurik handiena duten ikasleak kontuan hartuko dira.

3. Zenbat alditik behin jasotzen dira eskola-hutsegiteak?

	Egunero	Astero	Ez zaizkio jakinarazten
Hutsegiteak jasotzen dira	1	2	3

4. Hutsegiteak jakinarazten al zaizkio ikastetxeko zuzendaritzari?

Egunero	Astero	Ez dira jakinarazten
1	2	3

5. Ikasleren batek *hutsegite bat* justifikatzen ez duenean, zein neurri hartzen du ikastetxeak?

	Bai	Ez
A. Ikaslearekin hitz egiten da	1	2
B. Familiari jakinarazten zaio	1	2
C. Beste zerbitzu edo erakunderen baten esku uzten da	1	2
D. Orientazio-plan berezia egiten zaio ikasleari	1	2
E. Bestelako neurriren bat hartzen da	1	2

6. Ikasleren batek justifikatu gabeko *zenbait hutsegite* dituzenean eta *eskola uzteko arriskuan dagoela pentsatzen denean*, zein neurri hartzen du ikastetxeak?

	Bai	Ez
A. Ikaslearekin hitz egiten da	1	2
B. Familiari jakinarazten zaio	1	2
C. Beste zerbitzu edo erakunderen baten esku uzten da	1	2
D. Orientazio-plan berezia egiten zaio ikasleari	1	2
E. Bestelako neurriren bat hartzen da	1	2

7. Adierazi ikasleak zenbat hutsegite egin behar dituen, berarekin bilera bat egiteko.

--	--

8. Normalean, nork hitz egiten du ikaslearekin?

Behar beste lauki bete

	Ikasle arruntak	Eskola uzteko arriskuan dauden ikasleak
A. Edozein irakaslek.	1	1
B. Taldearen tutoreak	1	1
C. Auzi horretarako berariazko arduraduna dago ikastetxean	1	1
D. Ikastetxeko zuzendariak	1	1
E. Orientatzaileak	1	1
F. Ikastetxetik kanpoko beste pertsona batek	1	1

9. Familiari arazoaren berri ematen zaionean, zenbat denbora pasatzen da ikaslearen hutsegitea izaten denetik familiari esaten zaionera arte?

	Egun berean	Egun 1	2 egun	Astebete	Astebete baino gehiago
Ikasle arruntak	1	2	3	4	5
Arriskuan dauden ikasleak	1	2	3	4	5

10. Justifikatu gabeko zenbat hutsegite egin behar ditu ikasleak familiari horren berri emateko?

Ikasle arruntak

Arriskuan dauden ikasleak

11. Nola jartzen da ikastetxea familiarekin harremanetan?

Behar beste lauki bete

	Ikasle arruntak	Eskola uzteko arriskuan dauden ikasleak
A. Telefonoz	1	1
B. Eskutitzez, jaso izanaren adierazpenarekin.	1	1
C. Familiarekin hitz eginda.	1	1

12. Zehaztuta al daude hutsegiteak justifikatzen dituzten arrazoiak (Antolamendu eta Jarduera-Araudi...)?

Bai

 ₁

Ez

 ₂

13. Familiak emandako justifikazioak bat etorri behar al du ikastetxeak zehaztutakoekin?

Bai

 ₁

Ez

 ₂

14. Normalean, nork ematen dio familiari semearen edo alabaren eskola-hutsegitearen berri?

Behar beste lauki bete

	Ikasle arruntak	Eskola uzteko arriskuan dauden ikasleak
A. Edozein irakaslek.	1	1
B. Taldearen tutoreak	1	1
C. Auzi horretarako berariazko arduraduna dago ikastetxean	1	1
D. Ikastetxeko zuzendariak	1	1
E. Orientatzaileak	1	1
F. Ikastetxetik kanpoko beste pertsona batek	1	1

15. Zein da familiarekin hitz egitearen helburua?

Behar beste lauki bete

	Ikasle arruntak	Eskola uzteko arriskuan dauden ikasleak
A. Semearen edo alabaren egoerari buruzko informazioa ematea	1	1
B. Elkarrekin neurriak hartzea	1	1
C. Familiari neurriak har ditzan eskatzea	1	1
D. Beste zerbitzu edo erakunderen baten esku uzteari buruzko informazioa ematea	1	1

16. Familiarekin hitz egin ondoren, zenbateko epea ezartzen da egoera konpontzeko?

Bete lauki bat zutabe bakoitzean

	Ikasle arruntak	Eskola uzteko arriskuan dauden ikasleak
A. Astebete	1	1
B. Bi aste.	2	2
C. Hiru aste	3	3
D. Hilabete	4	4
E. Ez dago eperik ezarrita	5	5

17. Justifikatu gabekotzat jotzen diren faltak Lurralde Ikuskaritzara bidaltzen al dira?

Hilaren 5a baino lehen 1

Hilean zehar 2

Ez dira bidaltzen 3

18. Arazoa mantentzen bada, esan ikastetxetik kanpoko beste erakunde edo zerbitzuei arazoaren berri ematen zaien.

Behar beste lauki bete

Udalari (Gizarte Zerbitzuak)	Hezkuntza Ordezkaritzako berariazko langileei	Aldundiari (Gizarte Zerbitzuak)	Ez da beste zerbitzuen esku uzten
1	1	1	1

Beste zerbitzuen esku uzten ez bada, 21. galderara jo.

19. Ikastetxean erabiltzen al da txosten-eredurik kasuak kanpoko erakunde edo zerbitzuen esku uzteko?

Bai ₁

Ez ₂

20. Kanpoko zerbitzu edo erakundeek egiten duten esku-hartzearen berri ematen al dute?

	Inoiz ere ez	Batzuetan	Sarri	Beti
A. Udalak	1	2	3	4
B. Hezkuntza Ordezkaritzako berariazko langileek	1	2	3	4
C. Hezkuntza Ikuskaritzak	1	2	3	4
D. Aldundiak	1	2	3	4

21. Prozesuaren berri ematen dutenean, nola egiten dute?

Behar beste lauki markatu

	Txosten idatzia	Telefonoa	Uneko bilera	Aldizkako bilerak
A. Udalak	1	1	1	1
B. Hezkuntza Ordezkaritzako berariazko langileek	1	1	1	1
C. Hezkuntza Ikuskaritzak	1	1	1	1
D. Aldundiak	1	1	1	1

Ondorengo galderen bidez, ikastetxean eskola-uztea saihesteko prebentzio-neurririk egiten den jakin nahi da.

22. Zure ikastetxean, garatzen al da azpian adierazten direnetako programa, proiektu edo neurririk?

	Bai	Ez	Proiektatuta
A. Berariazko-Hezkuntzan Esku Hartzerako Programa	1	2	3
B. Eskolaratzeko Programa Osagarria	1	2	3
C. Aniztasun eta Bizikidetzako Programa	1	2	3
D. Curriculum Aniztasunerako Programa	1	2	3
E. Ikastetxeak antolatutako Errefortzu Neurriak (gela arruntetik kanpo)	1	2	3
F. Aniztasunaren Trataerarako neurriak, gela arruntean bertan	1	2	3

23. Aurreko galderari baietz erantzunez gero, zenbat gela erabiltzen dira eta zenbat ikaslek parte hartzen dute prebentzio-neurri bakoitzean?

	Gela kopurua	Ikasleak guztira	16 urtetik gorako ikasleen kopurua
A. Berriazko-Hezkuntzan Esku Hartzeko Programa . . .			
B. Eskolaratzeko Programa Osagarria			
C. Aniztasun eta Bizikidetzako Programa			
D. Curriculum Anitasunerako Programa			
E. Ikastetxeak antolatutako Errefortzu Neurriak (gela arruntetik kanpo)			
F. Aniztasun Tratarerako neurriak, gela arruntean bertan			

24. Ba al dago ikastetxean, eskola-uzteaz edo huts egiteaz arduratzen den lan-talde egonkorrik?

Bai 1

Ez 2

25. Ikastetxean, hemen aipatu ez dugun eskola-uztea saihesteko neurririk erabiltzen bada, mesedez, azaldu labur, neurrion ezaugarri nagusiak

Zuk emandako informazioa oso garrantzitsua da ikerketa honetarako

ESKERRIK ASKO LAGUNTZEAGATIK

II. eranskina. Lurralde Delegaritzetatik kurtso hasierako jarraibideak



Zuzendari jn/and.:

Sr/a Director/a:

“Hezkuntzarako eskubidea” onartuta dago arras indarreko ordenamendu juridikoan eta honakoan zehazturik: *Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeetan 2006-07 ikasturtea hasiari buruzko Ebazpenaren III.5 atalean eta Bigarren Hezkuntzako Institutuetan 2006-07 ikasturtea antolatzeari buruzko Ebazpenaren 3.7an*. Horri dagokionez, azken urteotan esku-hartze sistematikoa bat egiten ari da eta horrek Lurralde honetan deseskolatzea eta absentismoa saihestea du helburu.

Handia izan da benetan Ikastetxeetako zuzendaritza talde eta irakasleen parte-hartzea zeregin garrantzitsu honetan, eta hori dela medio Ordezkaritza honek bere esker ona adierazi nahi die guztiei agertutako konpromisoa eta ardura aintzat hartuta; baita jokabide hori hobetzeko xedez maiztean zehar igorritako galdera-sortei erantzuna emateko ekarpenak kontuan edukita ere.

Lehenengo ikasturtean zehar Hezkuntza Ikuskaritzara bidalitako ekarpen horiek eta absentismo eta deseskolatzeko erregistroen azterketak sendotzen dute egiten dihardugun lan horretan buru-belarri jarraitu beharra daukagulako uste osoa; halarik ere, 2006-2007 ikasturtean zehar zera bilatzen da, gainera: sartuta dauden Erakundeen arteko koordinazio eta harreman lana sustatzea, hain zuzen.

Horren guztiaren ondorioz, Ikastetxe guztiek ikasleen hutsegiteen erregistro bat eraman beharko dute. Eskola Kontseiluak edo OOGk irizpideak onartuko ditu, hutsegiteak justifika daitezkeen ala ez erabakitzeko, Arautegietan edo funtzionamendurako

En relación con “el derecho a la educación” reconocido en el ordenamiento jurídico vigente y concretado en el apartado III.5 de la *Resolución sobre el comienzo de curso 2006-2007 en los Centros de Educación Infantil y Primaria* y en el 3.7 de la *Resolución sobre la organización del curso 2006-2007 en los Institutos de Educación Secundaria*, durante los últimos años se viene realizando una intervención sistemática que tiene por objeto evitar la desescolarización y el absentismo en este Territorio.

La implicación de los Equipos directivos y personal docente de los Centros escolares en esta tarea ha sido grande y desde esta Delegación se quiere trasladar su reconocimiento por el compromiso y dedicación mostrados hasta la fecha, así como por sus aportaciones de cara a la mejora de esta actuación en forma de respuesta a los cuestionarios remitidos al efecto durante el mes de mayo.

Esas aportaciones y el análisis de los registros de absentismo y desescolarización enviados durante el curso pasado a la Inspección de Educación refuerzan nuestro convencimiento de que hay que seguir insistiendo en la labor que se viene realizando, si bien durante el curso 2006-2007 se pretende además potenciar la labor de coordinación y de comunicación entre las distintas Instituciones implicadas.

En consecuencia, todos los Centros deberán llevar un registro de las faltas de su alumnado. El Consejo Escolar u O.M.R. aprobará los criterios para decidir si dichas faltas son justificadas o no, en caso de no estar previamente determinados en los Regla-

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
Hezkuntza Ikuskaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Inspección de Educación

beste barneko arau batzuetan aldez aurretik zehaztuta egon ezik.

Hutsegite ez justifikatuak gertatzen direnean, "Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko Programa: deseskolatze eta eskola absentismoa eraztea Bizkaia Lurraldean" dokumentuan ezarrita dagoen protokoloa erabiliko da; agiri hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Bizkaiko Foru Aldundiak (Gizarte Ekintza Saila) eta EUDELeK (Euskal Udalerrien Elkarte) egin zuten elkarrekin batera, eta gainera luzatu egin da hiru urte gehiagoz (2006-2009 hirurtekoa). Zehazki hona ikastetxeek egin beharreko gauzak:

➤ Hasieran aipatu diren Ebazpenetan jasota dagoenez, hileroko 5a baino lehen aurreko hileko deseskolatze eta eskola absentismoko erregistro-orriak Ikuskariari eta Udalarri bidaltzea. Ildo honetan honako hau egin beharra dagoela gogoratu nahi dugu: **Lehen Hezkuntzako Ikastetxeen kasuan irailean deseskolatzeko erregistro-orriari hezkuntza aldi hori bukatu duten eta eskola liburuak aurkezteko Bigarren Hezkuntzako ezein ikastetxeren eskaria jaso ez duten ikasleen izenak bidali. Halaber, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek lehenengo hil horretan zehar sartu ez diren ikasleen izenak jasoko dituzte.**

➤ Adierazitako epeetan Udalen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara zera igortzea: Ikastetxeek eurek bakarrik ezin konpondu izan dituzten kasuei buruzko gizarte- eta hezkuntza- txostenak.

➤ Udaletako taldeekin batera lan egitea, esku-hartze koordinaturako proposamenak gauzat-

mentos u otras normas internas de funcionamiento.

Cuando se produzcan faltas no justificadas se seguirá el protocolo establecido en el "Programa para garantizar el derecho a la educación: erradicación de la desescolarización y el absentismo escolar en el Territorio de Bizkaia", que fue elaborado conjuntamente por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, Diputación Foral de Bizkaia (Departamento de Acción Social) y EUDEL (Asociación de Municipios Vascos), y que se ha prorrogado durante tres años más (trienio 2006-2009). En concreto los Centros escolares deberán:

➤ Enviar a su Inspector/a y al Ayuntamiento, antes del día 5 de cada mes, como se recoge en las Resoluciones al comienzo mencionadas, las hojas de registro de desescolarización y de absentismo escolar del mes anterior. En este sentido se recuerda la necesidad, en el caso de los Centros de Educación Primaria, de enviar en el mes de septiembre en la hoja de registro de desescolarización el nombre de los alumnos y alumnas que han terminado esta etapa educativa y cuyos libros de escolaridad no hayan sido requeridos por ningún centro de Educación Secundaria. Así mismo, los centros de Educación Secundaria recogerán los nombres de sus alumnos/as que no se hayan incorporado a lo largo de este primer mes.

➤ Remitir en los plazos señalados a los Servicios Sociales de Base de los Ayuntamientos los informes socio-educativos de los casos no solucionados con la sola intervención de los Centros.

➤ Colaborar con los equipos de los Ayuntamientos en la realización de propuestas de inter-

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
Hezkuntza Ikuskaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Inspección de Educación

zeko xedez.

Bestalde, ikasturte honetan, Hezkuntza Ikuskaritzatik bertatik kasu bakoitzaren segimendu hobe bat egiteko xedez, baita absentismoa eta deseskolatzea zuzentzeko asmoz guztiek eta Ikastetxeek batez ere egindako ahaleginaren ondorioa optimizatzeke ere, Ikastetxe bakoitzak **hiruhileko sintesi bat** landuko du –erreferentziako Ikuskariari bidaliko dio urtarrilean, apirilean eta ekainean– eta bertan ikasle absentista edo deseskolatuen egoera eta burutzen diharduten esku-hartzeak jasoko dira. Sintesi horren ereduia gainerako dokumentazioarekin batera bidaliko da.

Ikastetxe guztiek, baina absentismoko indize handia daukatenek batik bat, aukera edukiko dute zonaldeko Berritzegunearen laguntzaz baliatzeko, Esku-Hartzeko Egitasmoak diseinatzeke; horiexek irakasleen prestakuntza eta berrikuntzarako prozesuak berekin daroatzate.

Ikasturte honetan zehar ere gai honen gaineko jardunaldi batzuk antolatuko dira, honako hau egiteko asmoz: elkarrekin hausnartu, hainbat esperientzia partekatu, jokatzeko proposamen praktikoak gauzatu eta zuzendaritza taldeen ekarpenen sintesia aditzera emateko, baita absentismoaren eta deseskolatzearen eboluzioaren datuak ere.

Azkenik, datuen bilketa berdina bermatzeko eta betetzea errazteko xedez, posta elektronikoz bidaliko da hurrengo dokumentazioa:

➤ Eskolara ez agertzearen eta eskolagabetzearen hileko erregistroko orriak, ongi betetzeko argibideekin batera.

vención coordinada.

Además este curso, con objeto de poder hacer un mejor seguimiento desde la propia Inspección de Educación de cada caso, que optimice el resultado del esfuerzo de todos y especialmente de los Centros en la corrección del absentismo y de la desescolarización, cada Centro elaborará **una síntesis trimestral** (que enviará a su Inspector/a de referencia en enero, abril y junio) donde se recoja la situación del alumnado absentista o desescolarizado y las intervenciones que se están realizando. El modelo de esta síntesis se enviará con el resto de la documentación.

Todos los Centros, pero especialmente aquellos cuyo índice de absentismo sea muy elevado, podrán contar con la ayuda del Berritzegune de su zona para diseñar Planes de Intervención que incluyan procesos de formación e innovación del profesorado.

Durante el presente curso también se organizarán unas jornadas de trabajo sobre este tema que permitan reflexionar conjuntamente, compartir distintas experiencias, realizar propuestas prácticas de actuación y dar a conocer la síntesis de las aportaciones de los equipos directivos así como los datos de la evolución del absentismo y de la desescolarización.

Por último, con objeto de garantizar una recogida uniforme de los datos y facilitar su cumplimentación se enviará por correo electrónico la siguiente documentación:

➤ Hojas de registro mensual de absentismo y de desescolarización, con las instrucciones para su cumplimentación.

ELISKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
Hezkuntza Ikuskaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Inspección de Educación

- Desbideratzeko gutun ereduak.
- Hezkuntza-Gizarteko txosten ereduak.
- Hiruhileko sintesi ereduak.

Zalantzaren bat baldin balego, jar zaitez harremanetan zeure ikuskariarekin.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren (Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza), Udalen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren (Gizarte Ekintza Saila) arteko esku-hartze koordinatu honek Bizkaiko Lurraldean deseskolatzea eta eskola absentismoa saihesteko ahaleginak egingo dituelakoan, eta zure ezinbesteko laguntza kontuan edukita, jaso itzazu berriro ere ene esker ona eta agur beroa.

- Modelos de cartas de derivación.
- Modelo de informe socio-educativo.
- Modelo de síntesis trimestral.

Ante cualquier duda póngase en contacto con su inspector/a.

Con el deseo de que esta intervención coordinada entre el Departamento de Educación, Universidades e Investigación (Delegación Territorial de Bizkaia), los Ayuntamientos y la Diputación Foral de Bizkaia (Departamento de Acción Social) contribuya a evitar la desescolarización y el absentismo escolar en el Territorio de Bizkaia, y contando con su imprescindible colaboración, reciba de nuevo mi agradecimiento y un afectuoso saludo.

III. eranskina. Eskola-uzte eta eskolagabetzeari buruzko erregistro-orriak

Eskolagabetzearen hileroko erregistroa (matrikulaturiz ez dauden edo hileroko programaturako 100eko 100 eskoletara baten ez diren ikasleak)

IKASTETXEAREN IZENA: _____

IKASTURTEA: 2002-2003

HILA: _____

Matrikulaturik ez dauden ikasleak

—Lehen Hezkuntzako Ikastetxeek, irailean (eta ondorengo hiletan, egoerak iraunez gero) jarraian ageri diren koadroetan jasoko dituzte Bigarren Hezkuntzako ezein ikastetxek eskatu ez dituen espedienteak dituzten ikasleen datuak.

Ikaslearen izena eta abizenak	Jatitze data	Ikas-maila	Aitarene eta amaren izen-abizenak	Egoitzaren helbidea	Telefonoa	Oharrak

—Ikasletxean matrikulaturiz ez dauden eta programaturako 100eko 100 eskoletara joaten ez diren ikasleak.

Ikaslearen izena eta abizenak	Jatitze data	Ikas-maila	Aitarene eta amaren izen-abizenak	Egoitzaren helbidea	Telefonoa	Oharrak

Eskolara ez agertzearen hileroko erregistroa

(hileroko programatutako 100eko 20 eskolara
edo gehiagotara joaten ez diren ikasleak)

IKASTETXEAREN IZENA: _____ **HELBIDEA:** _____

IKASTURTEA: 2002-2003 **HILA:** _____

Ikaslearen izena eta abizenak	Jatitze data	Ikas-maila	Aitarene eta amarene izen-abizenak	Egoitzarene helbidea	Telefonoa	Esk. ez ager %etan (1)	Oharrak (2)

- (1) Ehuneko hau ezartzeko, EZ dira eskolara ez agertzetzat joko JUSTIFIKATUTAKO TXIKARRAK (gaixotasuna, aparteko gertaerak, sasoiakako lanak, kanporatzeak edo beste ikastetxe bateko aldi baterako eskolatzea).
- (2) Adierazi, laburki, eskolara ez agertzearen kari posibleak eta ikastetxeak buruturiko jarduketak.



IKASTETXEEN HIRUHILEKO SINTESIA IKASLEEN ARTEAN DAUDEN ESKOLA ABSENTISMOARI ETA DESESKOLATZEARI BURUZ

Ikastetxeek azken hiru urteotan zehar zenbait ikasleren absentismo edo deseskolatzeari dagokionez eman duten erantzunak argi eta garbi agertu du eskola erakundetik egiten diharduten ahalegin handi-handiak, batzuetan lorpenak urri samarrak izanagatik ere. Hori dela eta, arlo honetako emaitzak hobetzeko asmoz zuzendaritza taldeek bidalitako ekarpenak kontuan edukita eta arazo hau konpontzeko bidean aurrerantz sendo jarraitzeko xedez, eskola hiruhileko bakoitza amaitzean sintesi bat lantzea proposatzen da eta horrek zerean lagunduko digu:

- 1.º Ikasleak egunero eskolaratzeko ikastetxeek burutzen diharduten kontrol eraginkorra indartzen.
- 2.º Ikasle absentista edo deseskolatuen hiru hileko eboluzioa islatu eta aztertzen.
- 3.º Sartuta dauden Erakundeen arteko koordinazio eta harreman lana sustatzen.

Horretarako guztirako:

- 1.º Ikastetxeek erreferentziako Ikuskariari bidaliko diote absentismo edo deseskolatzearen eboluzioaren laburpena urtarril, apiril eta ekainean, honekin batera doan ereduaren arabera.
Ikastetxe guztiek behar dute bidali laburpen hori. Ikasle absentista edo deseskolatuei buruzko erregistrorik ez duten ikastetxeek txosteneko laukiak gauzaez bihurtuko dituzte, baina nolana ere ikastetxeko Zuzendaritzak datatu, sinatu eta zigilatu behar du dokumentu hori.
- 2.º Ikasle absentista edo deseskolatuen zerrendan sartuko dira Lehen Hezkuntzan eta DBHn matrikulatuak daudelarik jaioteguna 1991 baino lehenagokoa ez dutenak. Haur Hezkuntzan aurkitu diren kasuak ere sartuko dira.
- 3.º Hezkuntza Ikuskaritzak egingo du sintesian islatutako kasu bakoitzaren segimendua, beste Erakunde batzuetara bideratu direnena bereziki, esku-hartze eraginkorrago bat ziurtatzeko xedez. Horretarako harreman zuzenak izango ditu tinko Ikastetxeko eta Erakundeetako arduradunekin batera.

Eskola absentismo eta deseskolatzeari buruzko egoeraren hiru hileko sintesia 2006-2007 ikasturtea

IKASTETXEA: _____ **IKASTETXE KODEA:** _____ **UDALERRIA:** _____

1. Hiruhilekoa (ira./abe.)	
2. Hiruhilekoa (urt./mar.)	
3. Hiruhilekoa (api./eka.)	
(Gurutze bat jarri dagokion lekuan)	

LABURPENA

Ikasleen kopuru osoa Absentistak + deseskolatuak	
Kasu konponduen kop.	
Kasu bideratuen kop.	
Konpondu gabeko kasuen kop.	

IKASLEA (Izena, deiturak eta maila)				(1) ABS.	(2) DESES.	(3) KONP..	(4) BIDE..	(5) K. GAB.	OHARRAK
1. DEITURA	2. DEITURA	IZENA	MAILA	(Gurutze bat jarri dagokion lekuan)					

ABS: Portaera absentista

ZUZENDARIA

- (1) DESES: Deseskolatua
 (2) KONP.: Ikastetxearen esku-hartzeaz konpondu den kasua.
 (3) BIDE: OGZ edo beste Udal Zerbitzu batzuetara bideratua.
 (4) K. GAB.: Konpondu gabe eta ez da oraindik bideratu.

OHARRAK: Hemen jasoko dira osagai adierazgarriak, jarritako harremanak,
bideratzeko denbora, beste Instantzia batzuen esku-hartzea —Aldundia,
Fiskaltza— sasoikako eta ferietako salerosle familien egoera bereziak...

Izpta.:

EGUNA: IKASTETXEKO ZIGILUA


EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



ISEI·IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

www.isei-ivei.net